



HMH 2011-2014

**HEZKUNTZA MARKO HIRUELEDUNAREN
ESPERIMENTAZIO PROZESUAREN EBALUAZIOA.**

AMAIERAKO TXOSTENA ETA ONDORIOAK



EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Argitaratzailea: **Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (ISEI-IVEI)**

Asturias 9,3.- 48015 BILBO

info@isei-ivei.net www.isei-ivei.net

Txostena egin dutenak: Francisco Luna, Jesús Grisaleña eta Esmeralda Alonso

Aholkularitza eta gainbegiratze teknikoa: Eduardo Ubieta Muñuzuri

2015eko APIRILA




Fundación Europea Sociedad y Educación
European Foundation Society and Education



CAMBRIDGE ENGLISH
Language Assessment
Part of the University of Cambridge



Australian Council for Educational Research



ISEI-IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

HMM PROIEKTUAREN EBALUAZIOAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK

0. HMM proiektuaren ebaluazioaren helburuak.....	5
1. HMM proiektuaren ebaluazioaren ezaugarriak.....	5
2. Ebaluatutako laginaren ezaugarriak eta taldeen tipologia.....	6
3. Egindako aurrerapen-neurketak.....	16
4. Errendimendu-proben ezaugarriak.....	19
5. Aplikazio-prozesuaren ezaugarriak.....	23
6. Txostenean aurkeztutako emaitzen irakurketa-irizpideak.....	25

I. ATALA. EMAITZEN BILAKAERA KONPETENTZIAN (ISA-PISA eskala)

I. HELBURUA: ANTZEKO ERRENDIMENDUA 1H ETA 2H HIZKUNTZETAN (EUSKARA ETA GAZTELANIA).....	30
I.1.1. Euskarazko irakurmena.....	30
I.1.2. Gaztelaniazko irakurmena.....	32
I.2. HELBURUA: ANTZEKO ERRENDIMENDUA HIZKUNTZAZKOAK EZ DIREN KONPETENTZIAN: MATEMATIKA ETA ZIENTZIAK.....	34
I.2.1. Matematikarako konpetentzia.....	34
I.2.2. Zientzia-kulturarako konpetentzia.....	36
I.3. HELBURUA: INGELESEZKO ERRENDIMENDUA NABARMEN HANDIAGOA TALDE ESPERIMENTALETAN.....	38
I.3.1. Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia.....	38

II. ATALA. 4. HELBURUA: ALDAGAIEN AZTERKETA ETA TESTUINGURUKO FAKTOREAK.

II.1. KONPETENTZIAN HIRUGARREN NEURKETAREN EMAITZAK.....	49
II.1.1. Euskarazko irakurmeneko emaitzak Lehen Hezkuntzako 6. mailan eta DBHko 3. mailan ikastetxeen tipologiaren arabera.....	50
II.1.2. Gaztelaniazko irakurmeneko emaitzak Lehen Hezkuntzako 6. mailan eta DBHko 3. mailan ikastetxeen tipologiaren arabera.....	51
II.1.3. Matematikarako konpetentziako emaitzak Lehen Hezkuntzako 6. mailan eta DBHko 3. mailan ikastetxeen tipologiaren arabera.....	52
II.1.4. Ingeleseko hizkuntza komunikaziorako konpetentziako emaitzak Lehen Hezkuntzako 6. mailan eta DBHko 3. mailan ikastetxeen tipologiaren arabera.....	53
II.2. ZEHARKAKO ALDAGAIK.....	55
II.2.1. Emaitzak ikasleen sexuaren arabera.....	55
II.2.2. Emaitzak adin-egokitasunaren arabera.....	57
II.2.3. Emaitzak ikasleen familiaren jatorriaren arabera.....	59
II.2.4. Emaitzak familiaren ikasketa mailaren arabera.....	61
II.2.5. Ikasgelako kalifikazioen eta HMM ebaluazioko emaitzen arteko korrelazioa	65

II.3. HIZKUNTZA ALDAGAIAK.....	68
II.3.1. Ikasleen familia-hizkuntzaren arabera emaitzak	69
II.3.2. Ingeleseko eskolaz kanpoko jarduerak egitearen arabera emaitzak	77
II.3.3. Emaitzak euskararen erabilera orokorraren arabera.....	82
II.3.4. Emaitzak hizkuntza bakoitzean emandako orduen ehunekoaren arabera.....	86
II.3.5. Emaitzak hizkuntzekiko jarreraren arabera.....	99

III. ATALA. 5. HELBURUA: EEMB MAILAK IDENTIFIKATZEA DERRIGORREZKO ETAPEN AMAIERARAKO.

III.1. HMH ESPERIENTZIAREN EMAITZA OROKORRAK.....	111
III.1.1. Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta DBHko 3. mailako Euskarazko irakurmeneko emaitza orokorrak.....	112
III.1.2. Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta DBHko 3. mailako Gaztelaniazko irakurmeneko emaitza orokorrak.....	112
III.1.3. Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta DBHko 3. mailako Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako emaitza orokorrak.....	113
III.1.4. Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta DBHko 3. mailako Matematikarako kompetentziako emaitza orokorrak.....	113
III.2 HIZKUNTZA KOMPETENTZIETAKO TALDEEK GARATUTAKO LANEKO PROZESUA.....	114
III.2.1. Taldeek egindako lanaren helburuak eta ezaugarriak.....	115
III.3. EUSKARAZKO ETA GAZTELANIAZKO TALDEEK EGINDAKO LANEKO PROZESUA.....	116
III.3.1. Euskararako eta gaztelaniarako EEMB mailak identifikatzea derrigorrezko etapen amaieran.....	119
III.4. INGELESEZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO TALDEAK EGINDAKO LANEKO PROZESUA.....	128
III.4.1. Emaitzak ingelesezko EEMB mailen arabera.....	128
III.4.2. Ingeleserako EEMB mailak identifikatzea derrigorrezko etapen amaieran.....	133

IV. ATALA. FAMILIEN BALORAZIOA ESPERIENTZIARI BURUZ

IV.1. IKASLEEN FAMILIEN BALORAZIOA.....	139
IV.1.1. HMH esperientziaren balorazioa.....	139
IV.1.2. Hirueletasunari edo eleaniztasunari buruz duten iritzia.....	141
IV.1.3. Hizkuntzak ikastearen erabilgarritasunari buruzko iritzia.....	143

V. ATALA. ONDORIOAK

V.1. ONDORIOAK.....	147
----------------------------	------------

HMH (Hezkuntza Marko Hirueleduna) PROIEKTUAREN EBALUAZIOAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK.

0. HMH PROIEKTUAREN EBALUAZIOAREN HELBURUAK

Hezkuntza Marko Hirueledunaren (HMH) esperimentazio-prozesuaren ebaluazioaren bidez, alderdi hauek egiaztatu nahi izan dira:

- LI eta L2 hizkuntzetan, euskarari eta gaztelanian, antzeko errendimendua gertatzen denean, HMH talde esperimentaletan eta kontrol-taldeetan.
- Hizkuntzakoa ez den konpetentzien errendimendua antzekoa denean HMH talde esperimentaletan eta kontrol-taldeetan (kasu honetan, *Matematikarako konpetentzia* eta *Zientzia-kulturarako konpetentzia*).
- 3Hko errendimendua (kasu honetan, ingelesekoa) nabarmen handiagoa denean HMH talde esperimentaletan kontrol-taldeetan baino.
- Esperimentazio horretako ikasleen errendimenduan testuinguruko, ikastetxeko edo banakako zer faktorek eragiten duen identifikatzea.
- HMH esperimentazioa amaitzean, Lehen Hezkuntzako 6. mailan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailan hizkuntza bakoitzean ikasleek lortzen duten EEMB maila edo azpimaila zein den zehaztea.

1. HMH PROIEKTUAREN EBALUAZIOAREN EZAUGARRIAK

Esperimentazio-prozesuan parte hartu duten ikastetxeek, esperimentazioaren hasieratik egindako deialdiek zehaztutako mugen baitan hizkuntza-proiektua aurkezteko betebeharra izan duten arren (talde esperimentalek gutxienez curriculumaren % 20 eman behar zuten hizkuntza bakoitzean), proposamena era askotan gauzatu dute. Esperimentazioko proposamenen aniztasun hori gorabehera ugari (besteak beste, hizkuntza-ibilbideak eta -ezaugarriak) eta ikastetxean eta esperimentazioan eskuragarri dauden giza baliabideak eta baliabide teknikoak zehaztu dute.

Hizkuntza-garapeneko proiektuen aniztasun hori bi gertaeratan zehaztu da: alde batetik, hizkuntzakoa ez ziren arloetan jarraibidean hiru hizkuntzak erabili diren arren, haietako bakoitzaren presentzia orduen kopuruari dagokionez askotarikoa izan da; bestalde, arlo bakoitzean erabilitako irakaskuntza-hizkuntzan uniformetasunik ez da egon.

Hizkuntza-proiektuen aniztasun logikoa dela eta, hasiera-hasieratik baztertu behar izan genuen hizkuntzakoa ez den arlo bakoitzeko irakaskuntzako hizkuntzarekin lotuta zegoen curriculum-izaera zuen ebaluazioa; izan ere, kasu askotan, ikastetxeen eta ikasleen kopurua ez zen nahikoa emaitza fidagarriak eta konparagarriak bermatzeko. Gainera, curriculum-izaerako ebaluazioa garatu ahal izateko beharrezkoa izango zatekeen ikastetxe esperimentaleko eta kontrol-taldeetako curriculum-proiektuetan alde aurretiko akordioa lortzea.

Horrenbestez, esperimentazio-prozesua ebaluatzeko estrategia egokiena **konpetentzien araberrako ebaluazio-eredua** egitea zela erabaki genuen. Izan ere, ikastetxe bakoitzeko curriculum-garapen espezifikoekiko lotura txikiena duen eredia da eta, gainera, Euskadiko Ebaluazio-diagnostikoan eta nazioarteko ebaluazio garrantzitsuenetako batzuetan (ELGaren PISA edo IEAren PIRLS, adibidez) ezarritako eta garatutako ereduarekiko koherenteena da eta

oinarrizko irakaskuntzetarako curriculum-garapenetan finkatutakoari modu zuzenean erantzuten dio.

Konpetentzia-erreferentziako mailak

Esperimentazio-prozesu horretan, eta horrenbestez baita ebaluazioan ere, bi izan dira oinarrizko konpetentzia-erreferentziak:

- a) Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratua (EEMB), HMH esperimentazio-prozesuaren deialdiaren Aginduan bertan espresuki zehaztuta zegoena. Dokumentuak irakaskuntzaren plangintzarako zein ikasketaren ebaluaziorako erabilgarriak diren deskribatzaileak proposatzen ditu ikasgai gisa hizkuntzen konpetentzia mailak eta, horrenbestez, beste ikasgai batzuetan komunikaziorako hizkuntza gisa erabilitakoen mailak bateratzeko asmoz. Aipatu dugun moduan, ebaluazio-prozesuaren oinarrizko helburua esperimentazioaren zati diren hiru hizkuntzen EEMB mailen eta azpimailen inguruko azterketa egitearekin lotuta dago.
- b) Aurrekoaz gain, erreferentziako bigarren iturria da derrigorrezko lehen eta bigarren hezkuntzako etapen curriculumak. Bertan daude zehaztuta 1Hko eta 2Hko, eta atzerriko hizkuntza gisa lantzen duten hizkuntza osagarriaren hizkuntza-konpetentzia garatzeko pixkanakako elementuak eta konpetentzia osatzen duten elementu ugariekin lotutako ebaluazio-irizpideak: edukiak, abileziak, prozedurak eta jarrerak.

Ezaugarri horiek dituen eta horren estrategikoa den esperimentazio-prozesuan, gainera, beharrezkoa dirudi ebaluazio-prozesuaren amaieran emaitzak modu estatistikoan lotzea eta, horrenbestez, ezaguna den eta behar adinako egonkortasuna duen eskala batekin konparatzea. Eskala hori menderatze maila bakoitzean lortutako konpetentziak eta ikasketak oinarritzat hartuta garatutakoa da: ELGAren nazioarteko eskala, PISA. Eskala egonkor horri esker, esperimentazio-prozesuan eta haren amaieran, kanpoko konparazio-elementuak eskuratu ditugu konpetentzia bakoitzean lortutako mailak kokatzen laguntzeko.

Horrekin lotuta, ebaluazioan erabilitako errendimendu-proba guztiek lotura-elementuak izan dituzte eta, prozesuaren une jakin batzuetan eskala berean kokatu dira. Hori dela eta, geroago ikusiko dugun moduan, esperimentazioak iraun duen hiru urteetan ebaluatutako konpetentzia guztietako hobekuntza neurtu eta eskala komunean egin ahal izan dugu.

2. EBALUATUTAKO LAGINAREN EZAUGARRIAK ETA TALDEEN TIPOLOGIA

Hezkuntza Marko Hirueledunaren esperimentazioak bi deialdi izan ditu, bat 2011n hasi zen eta 2013an amaitu (I. HMH deitu diogu), eta bigarrena 2012an hasi zen eta 2014an amaitu (II. HMH deitu diogu). Bi ikasle multzoren errendimendua alderatu eta esperimentazioaren hasieran aurrez ikusitako helburuak betetzen ziren egiaztatu ahal izateko egin genuen HMH ebaluazioaren diseinua. Hala, bi talde mota daude: alde batetik, esperimentazioan parte hartu duten ikasleak, **talde esperimentalak** deitzen diegunak, eta bestetik, esperimentazioan parte hartu ez duten ikasleak edo **kontrol-taldeak**; azken horiek errendimendu-probak alderatzeko erreferentzia gisa erabiltzen dira.

Talde horiek honako ezaugarri hauek dituzte:

a) **I. HMM eta II. HMMrako talde esperimentalak:**

Esperimentazioan borondatez parte hartzea onartu duten ikasleek osatutako taldeak dira. Txosten honetako I. atalean jasotako emaitza orokorren bilakaeran, talde hauek osatzen dituzten ikasleek esperientziak iraundako hiru ikasturteetan egin diren hiru aurrerapen-neurketetan hartu dute parte (Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziaren kasuan bi neurketa izan dira).

b) **I. HMMrako kontrol-taldeak:**

Talde hauek osatzen dituzten ikasleek ez dute hartu parte esperimentazioan, baina hiru aurrerapen-neurketetan ebaluatu dira; ikasleak aurrez zehaztutako ezaugarri batzuen arabera aukeratu dira, talde esperimentalen antzekoak izan zitezten. Hauek izan ziren taldeak hautatzeko kontuan hartutako irizpideak:

- ✓ Ikastetxean hizkuntza-eredu bereko kontrol-taldea eratzeko aukera bazegoen, talde hori aukeratu zuten.
- ✓ Eredu eta maila bereko kontrol-taldea aukeratu ezin zen ikastetxeetan, esperientzian parte hartu zuten beste ikastetxe batzuetako eredu eta sare bereko taldeak aukeratu zituzten. Horretarako, kontuan izan zen aukeratutako taldeen (HMM eta kontrol-taldea) ISEK (Indize Sozioekonomiko eta Kulturala) antzekoa izatea.
- ✓ Kasu guztietan beharrezko ezaugarri guztiak beteko zituzten taldeak bilatzea ezinezkoa izan zenez, esperientzian parte hartuko zuen talderik ez zuten ikastetxeetako talde batzuk aukeratu ziren, betiere sare eta hizkuntza-ereduaren ezaugarri berak eta antzeko ISEK maila zutela kontuan hartuta.

c) **II. HMMrako kontrol-taldeak:**

Talde hauek II. HMMren azken neurketan soilik ebaluatu dira, 2014ko maiatzean. Esperimentazioan parte hartzen ez duten ikasleek osatzen dute eta, kasu batzuetan, curriculumean ingeleseko ordu gehiago dituzte, eta beste batzuetan ez.

- a) **II. HMMn nahitaezko ingelesa duten kontrolekoak** Atzerriko hizkuntzan (ingelesa) oinarrizko irakaskuntzako 97/2010 Dekretuak ezarritako nahitaezko ordutegia ematen duten ikastetxeak.
- b) **II. HMMn +ingelesa duten kontrolekoak:** Atzerriko hizkuntzan (ingelesa) oinarrizko irakaskuntzako 97/2010 Dekretuak ezarritako nahitaezko ordutegia baino gehiago ematen duten ikastetxeak.

Ebaluatutako taldeen aniztasun hori honako eskema honetan laburtzen da:

I. HMM I. DEIALDIA 2011-2013		II. HMM 2. DEIALDIA 2012-2014	
<p>TALDE ESPERIMENTALAK</p> <ul style="list-style-type: none"> Esperimendazioaren lehen deialdian parte hartzen duten ikasleak, oinarritzko irakaskuntzako 97/2010 Dekretuan zehaztutako ingeleseko orduak gutxienez % 20 areagotuta. 	<p>KONTROL TALDEAK</p> <ul style="list-style-type: none"> Talde esperimendalaren antzeko ezaugarriak dituzten ikasleak, baina esperimendazian parte hartu gabe eta 97/2010 Dekretuan zehaztutako ingeleseko orduak gehitu gabe. 	<p>TALDE ESPERIMENTALAK</p> <ul style="list-style-type: none"> Esperimendazioaren bigarren deialdian parte hartu duten ikasleak. 	<p>KONTROL TALDEAK (2014an soilik)</p> <ul style="list-style-type: none"> Esperimendazioan parte hartu ez duten ikasleak. <p>II. HMM KONTROLA + ingelesa: Atzerriko hizkuntzan oinarritzko irakaskuntzako 97/2010 Dekretuak ezarritako nahitaezko ordutegia baino gehiago ematen dute l.</p> <p>II. HMM KONTROLA nahitaezko ingelesa Atzerriko hizkuntzan (ingelesa) oinarritzko irakaskuntzako 97/2010 Dekretuak ezarritako nahitaezko ordutegia ematen dute.</p>

I. HMMko ikasleak, bai talde esperimendalakoak, bai kontrol-taldekoak, esperimendazio-prozesu osoan kanpoko proben bidez ebaluatu dira. II. HMMko ikasleak ere I. HMMko ikasleen irizpide bera erabilia ebaluatu dira, baina haien kontrol-taldeei azken urtean, 2014an, soilik egin zaie ebaluazio-proba.

Hurrengo taula honetan I. HMM eta II. HMM deialdietan ebaluatutako taldeen laburpena eta proben aplikazioaren egutegia ageri da.

Etapa	Maila	2010-2011	2011-2012	2012-2013	2013-2014
LEHEN HEZKUNTZA	4	I. HMM Taldea esperimendala Kontrol-taldea	II. HMM Taldea esperimendala		
	5		I. HMM Taldea esperimendala Kontrol-taldea	II. HMM Taldea esperimendala	
	6			I. HMM Taldea esperimendala Kontrol-taldea	II. HMM Taldea esperimendala Kontrol-taldea
DBH	1	I. HMM Taldea esperimendala Kontrol-taldea	II. HMM Taldea esperimendala		

I Lehen Hezkuntzako Dekretu horren I. Eranskinean (2,5 ordu astean) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako II. Eranskinean (3 ordu astean) ezarritako ordutegia hartu da nahitaezkozat.

	2		I. HMM Talde esperimentala Kontrol-taldea	II. HMM Talde esperimentala	
	3			I. HMM Talde esperimentala Kontrol-taldea	II. HMM Talde esperimentala Kontrol-taldea

2.1. EBALUATUTAKO LAGINA

Taldean aniztasun hau ikusirik, eta ebaluatutako talde ugarien datuak aztertzeak eskaintzen dituen aukera ugariak sinplifikatzeko asmoz, txosten hau egiteko bi hezkuntza etapetan ikasle multzoen bi mota soilik hartu dira kontuan:

- Esperimentazioaren hiru neurketetako bakoitzean parte hartu duten ikasleak. Hau da I. HMMko talde esperimentaletako eta kontrol-taldeetako ikasleak eta II. HMMko talde esperimentaletako ikasleak. Puntu horri dagokionez, kontuan izan behar da aurrerapeneko neurketa bakoitzeko laginen benetako neurria gutxitu egin dela ebaluazioko lehen urteko datuei dagokienez; izan ere, azterketa honetan neurri hauek guztiak ditugun subjektuak bakarrik sartzea interesatzen zaigu: oinarrizko hasierako neurria, eta aurrerapeneko lehen, bigarren eta hirugarren neurketak une horietako bakoitzean ebaluatutako kompetentziei dagokienez.

		Hiru neurketetan parte hartu duten Lehen Hezkuntzako ikasleak		
		I. HMM		II. HMM
		Esperimentala	Kontrola	Esperimentala
	IKASTETXEAK	38	9	57
	TALDEAK	44	12	108
IRAKASLEAK	Euskara	687	158	1.552
	Gaztelania	688	195	1.740
	Matematika	701	192	1.706
	Zientziak	665	155	1.621
	Ingelesa	731	204	1.815

		Hiru neurketetan parte hartu duten DBHko ikasleak		
		I. HMM		II. HMM
		Esperimentala	Kontrola	Esperimentala
	IKASTETXEAK	18	9	33
	TALDEAK	20	9	66
IRAKASLEAK	Euskara	227	73	804
	Gaztelania	254	85	859
	Matematika	260	64	878
	Zientziak	229	65	770
	Ingelesa	270	87	854

- b. Esperimentazioaren 3. neurketan soilik parte hartu duten ikasleak: I. HMM eta II. HMM, talde esperimentalak eta kontrol-taldeak.

		Hirugarren neurketan parte hartu duten Lehen Hezkuntzako ikasleak.				
		I. HMM		II. HMM		
		Esperimentala	Kontrola	Esperimentala	Kontrola + ingelesa	Kontrola, nahitaezko ingelesa
IRAKASLEAK	IKASTETXEAK	38	9	57	20	21
	TALDEAK	44	12	108	20	21
	Euskara	766	206	1872	417	426
	Gaztelania	786	205	1875	422	421
	Matematika	771	209	1880	424	428
	Zientziak	786	205	1876	423	423
	Ingelesa	762	210	1872	405	418

		Hirugarren neurketan parte hartu duten DBHko ikasleak.				
		I. HMM		II. HMM		
		Esperimentala	Kontrola	Esperimentala	Kontrola + ingelesa	Kontrola, nahitaezko ingelesa
IRAKASLEAK	IKASTETXEAK	18	9	33	8	9
	TALDEAK	20	9	66	8	9
	Euskara	273	94	974	160	226
	Gaztelania	271	96	968	162	224
	Matematika	277	95	981	163	225
	Zientziak	272	97	970	163	227
	Ingelesa	273	99	892	127	222

Komeni da adieraztea txosten honen hasieran adierazitako lehen hiru helburuetan egindako aurrerapen-neurketetan galdutako baliorik ez duten ikasleak soilik sar daitezkeela azterketetan. Horrek azaltzen ditu kompetentzia bakoitzeko N-etan dauden aldeak. Dena den, aurrerapeneko neurketa ugarietan erabilitako proben ezaugarri psikometrikoak kalkulatzeko, ebaluazioetan erantzun duten subjektu guztiak hartu ditugu kontuan.

2.2. LAGINAREN EZAUGARRIAK EREDUEN, SAREEN ETA GERUZEN ARABERA

Jarraian, HMM taldeen (talde esperimentalak nahiz kontrol-taldeak) tipologiari buruz aurrez emandako informazio osagarri gisa, bi etapetako talde horien deskribapena dator, euskal hezkuntza-sistemaren egitura mailako antolaketarekin lotutako hiru aldagai oinarri hartuta:

- Curriculumean euskarak eta gaztelaniak duten proportzioaren arabera euskal hezkuntza-sistema egituratzen den hizkuntza-ereduak –A, B eta D–.
- Funts publikoak jasotzen dituzten ikastetxeetarako ezarritako hezkuntza-sareak –publikoa edo itunpekoa–.

- Hizkuntza-ereduen eta hezkuntza-sareen ondorioz sortzen diren hezkuntza-geruzak.


Datuak ebaluazio honen hirugarren edizioan parte hartu duten Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta DBHko 3. mailako ikasle eta taldeenak dira.

2.2.1. HIZKUNTZA EREDUEN ARABERAKO AZTERKETA.

A) Lehen Hezkuntzako 6. maila

Lehen Hezkuntzako 6. mailan 4.136 ikaslek hartu dute parte. Horietatik 511 (% 12,4) A ereduari eskolatuta zeuden; 1.597 (% 38,6) B ereduari, eta 2.028 (% 49), berriz, D ereduari. 2.2.1.a grafikoa, azken neurketan parte hartu duten ikasle guztien laginari dagozkion datuekin batera, aztertutako ikastetxe mota bakoitzaren ehunekoak ageri dira, hizkuntza-ereduen arabera.

2.2.1.a. grafikoa. HMM. Lehen Hezkuntzako 6. maila. Ikasleen ehunekoak hizkuntza-eredu bakoitzean ikastetxe moten arabera.



HMM ebaluazioan parte hartu duten Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen % 50 D ereduari eskolatuta dago; % 40 inguru B ereduari, eta % 10 baino zertxobait gehiago A ereduari. 2013ko Ebaluazio diagnostikoaren datuen arabera, Lehen Hezkuntzako 4. mailan ehunekoak honako hauek izan ziren: % 6,2 A ereduari; % 26,6 B ereduari, eta % 67,2 D ereduari. Beraz, oro har, D ereduak ordezkapen txikiagoa du HMM laginean, eta aldiz B ereduari HMM esperientziaren ebaluazioan baino ia % 14 ikasle gehiago dago.


Grafikoa hainbat alderdi ikus daitezke:

- HMM deialdiaren talde esperimentalak eta bi kontrol-taldeak eredu bakoitzean antzeko ehunekoak dute, eta aldagai horren ikuspegitik kontrol-taldeen aukeraketa zuzena islatzen du horrek, nahiz eta, agerikoa den moduan, ehunekoak ez izan antzekoak kasu guztietan.
I. HMM deialdian ereduaren arabera ikasleen banaketa II. HMM deialdiaren nahiko desberdina da. Talde esperimentalen artean ehuneko 20ko aldea dago D ereduari eskolatutako ikasleei dagokienez, eta I. HMM deialdian A ereduari eskolatutako ikasleak % 13 gehiago dira.

B) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila

2.2.1.b grafikoa ikus dezakegu DBHko 3. mailako ikasleen banaketa hizkuntza-ereduaren arabera, azken edizioan parte hartu duten ikasle guztien laginari dagozkion datuekin batera.

2.2.1.b. grafikoa. HMMH. DBHko 3. maila. Ikasleen ehunekoak hizkuntza-eredu bakoitzean ikastetxe moten arabera.



DBHko 3. mailako ikasleen % 44k D eredian ikasten du; antzeko ehunekoak, % 38k, B eredian ikasten du, eta A eredian ikasten dutenak % 18 inguru dira. 2013ko Ebaluazio diagnostikoan, DBHko 2. mailan, ehunekoen banaketa honelakoa zen:

% 12,5 A eredian eskolatuta zegoen; % 27,7 B eredian, eta % 59,8, berriz, D eredian. HMMH ebaluazioan parte hartu duten ikastetxeen laginean D ereduko ikasleak % 16 gutxiago dira, aldiz, A eredukoek eta batez ere B eredukoek ordezkapen handiagoa dute DBHko 2. mailako erroldan baino.

Etapan honetan, Lehen Hezkuntzan ikusitakoan ez bezala, HMMHren bi deialdietan hizkuntza-ereduen arabera ikasleen ehunekoak are nabarmenago bereizten dira.

- Bi talde esperimentaletan ereduaren arabera banaketa aldatuz gero, ikusiko dugu I. HMMHko talde esperimentalak D eredian ikasleen % 8 gutxiago duela II. HMMHko talde esperimentalak baino. Aldiz, II. HMMHn, talde esperimentalean A ereduko ikasleen % 16,2 gehiago dago.
- I. HMMHko bi taldeei dagokienez, talde esperimentalari eta kontrol-taldeari alegia, ikus daiteke ez zela kontrol-talderik izan A eredian; aldiz, I. HMMHko talde esperimentalean eredu horretan eskolatutako 25 ikasleak itunpeko sarean zeuden eskolatuta. Gainera, kontrol-taldean D eredian eskolatutako ikasleak % 13 gehiago ziren talde esperimentalean baino.
- II. HMMHko taldeetan ere talde esperimentalaren eta bi kontrol-taldearen arteko aldeak ikus daitezke. II. HMMHko talde esperimentalean Kontrola+ingelesa duten taldeetan baino D ereduko ikasleen ia % 15 gutxiago dago eta nahitaezko ingelesa duten kontrol-taldeetan baino % 10 gutxiago. Kontuan hartu beharreko beste

alderdi garrantzitsu bat da deialdi horretako talde esperimentalean A eremuan eskolatutako ikasleen % 23 dagoela. Ehuneko hori Kontrola+ingelese duten taldeen antzekoa da, baina nahitaezko ingelese duten kontrol-taldekoena baino % 10 handiagoa.


2.2.2. LAGINAREN AZTERKETA HEZKUNTZA SAREEN ARABERA.

Atal honetan HMM proiektua aztertzen da, hezkuntza-sistema antolatzen den bi hezkuntza-sareak erreferentzia gisa hartuta: sare publikoa eta itunpeko sare pribatua. Oso kontuan hartu behar da hezkuntza-sareen arabeko analisian, neurri batean, emaitzetan garrantzi handia duten bi aldagaik asko eragiten dutela. Alde batetik, hezkuntza-ereduak, aurrez ikusi dugun moduan, sare publikoak D eremuan proportzioan gehiago eskolatu baitu itunpekoak baino, eta bestetik, ezaugarri sozioekonomiko eta kulturalak (itunpeko sareak normalean indize sozioekonomiko eta kultural handiagoa izan ohi du ikastetxe publikoek baino). Hezkuntza-sarearen barneko bi aldagai horiek neurri handian "kutsatzen" dute emaitzen interpretazioa.

A) Lehen Hezkuntzako 6. maila

2.2.2.a grafikoa ikus daiteke ebaluazio honetan aztertutako ikastetxe mota bakoitzean bi hezkuntza-sareek duten ehunekoaren banaketa. Lagin orokorrak erakusten du ikasleen % 40,8 sare publikoan eskolatuta zegoela; aldiz, % 59,2, itunpekoan.

Datu horiek 2013ko Ebaluazio diagnostikoan ebaluatutako Lehen Hezkuntzako 4. mailako errondarekin alderatuta, ikus dezakegu HMMn neurtutako laginean –talde esperimentalak nahiz kontrol-taldeak barne– sare publikoan eskolatutako ikasleak % 10 gutxiago direla (2013an % 50,8koa zen ehunekoak).



Sareen ehunekoak HMM ikastetxe moten arabera aztertzen baditugu, honako hau ikus dezakegu:


- I. HMM eta II. HMMko talde esperimentalen artean ikus dezakegu ehunekoetan alde handia dagoela: I. HMMn sare publikoko ikasleak % 15 gehiago dira II. HMMn baino. II. HMMn 2013ko Ebaluazio diagnostikoan jasotako Lehen Hezkuntzako 4. mailako errollaren ia ehuneko berak daude.
- I. HMMko bi taldeetan (esperimental eta kontrol-taldea) ehunekoak ia berak dira. II. HMMko hiru taldeetan, aldiz, aldeak handiak dira, bereziki Kontrola + ingelesa duten taldeen eta beste bi taldeen artean. Talde horretako ikasleen % 13,1 soilik dago eskolatutako sare publikoan, II. HMMko talde esperimentalean baino % 35 gutxiago eta beste Kontrol-taldea baino ia % 42 gutxiago. Hori oso datu garrantzitsua da eta kontuan hartu behar da emaitzak aztertzean; izan ere, Kontrola + ingelesa duten taldeko ikasleen familien % 54k ditu unibertsitate-ikasketak, nahitaezko ingelesa duten kontrol-taldekoenek baino % 13 gehiagok eta talde esperimentalenek baino % 4 gehiagok, *II.2.4.a grafikoan* ikus daitekeen moduan.

B) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila

Ebaluazio honetan aztertutako ikastetxe mota bakoitzeko bi hezkuntza-sareen ehunekoak, *2.2.2.b grafikoan* ikus daitekeenak, adierazten du DBHko 3. mailan itunpeko sarean eskolatutako ikasleak % 10 gehiago zirela sare publikoan eskolatutakoak baino.

2013ko Ebaluazio diagnostikoan ebaluatutako DBHko 2. mailako ikasle guztien datuek adierazten zuten % 47,5 ikastetxe publikoetan eskolatuta zegoela, aldiz, % 52,5, itunpeko ikastetxeetan. HMM lagin guztian ikusitako datuekin antzik ez dute horiek, ehuneko 3ko alde dago.

2.2.2.b. grafikoa. HMM. DBHko 3. maila. Ikastetxe mota bakoitzeko ikasleen ehunekoak sareen arabera.



Aurreko grafikoan ikus daitekeen moduan, sareen arabera HMM ikastetxe motetako bakoitzeko ehunekoan alde ez da Lehen Hezkuntzan ikusitakoa bezain desorekatua. II. HMMko kontrola + ingelesa duten taldean soilik itunpeko sareko ikasleak sare publikoan eskolatutakoen kopuru bikoitza dira.


2.2.3. GERUZEN ARABERAKO AZTERKETA

Adierazi dugun moduan, hezkuntza-sareak eta hiru hizkuntza-ereduak gurutzatzearen ondorioz sortzen dira geruzak. Hala, euskal hezkuntza-sistema sei geruzatan antolatuta dago. Hainbeste taldetan egindako azpibanaketaren eta HMM ebaluazio honetan aztertutako ikastetxe mota batzuk txikiak izatearen ondorioz, geruza batzuetan ez dago deskribapenek sendotasuna izatea bermatzeko adina ikasle.

A) Lehen Hezkuntzako 6. maila

Hurrengo grafiko honetan HMMko bost ikastetxe motetako bakoitzean geruza bakoitzean eskolatutako ikasleen ehunekoa ikus daiteke.

2.2.3.a. grafikoa. HMM. Lehen Hezkuntzako 6. maila. Ikastetxe mota bakoitzeko ikasleen ehunekoa geruzen arabera.




Ikasleen ehuneko handieneko geruzak, oro har, honako hauek dira: itunpeko B eredu, HMMko ikastetxe mota ia guztietan ikasle guztien laurdena biltzen du, I. HMM kontrol-taldean izan ezik. Itunpeko D ereduak ere presentzia handia du, baina kasu horretan ehunekoak desberdinagoak dira: II. HMMn nahitaezko ingelesa duten kontrol-taldearen kasuan % 15,8koa da, eta aldiz, II. HMMn kontrola +ingelesa duten taldearen kasuan % 41,8koa. Geruza A publikoak oso ordezkagarritasun urria du.

B) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila

DBHko 3. mailan, geruzen arabera ehunekoen banaketa ikastetxe mota bakoitzean 2.2.3.b grafikoan ikus daiteke.

Geruza A publikoak, Lehen Hezkuntzan ikusi duguna baino intentsitate handiagoz, ia ordezkapenik ez du, hain zuzen ere, lau HMM ikastetxe mota daude geruza horretan ikaslerik gabe. Ordezkaritzan oreka gehien duen geruza D publikoa da, HMM ikastetxe mota guztietan ikasleen % 30 baino gehiagorekin.

2.2.3.b. grafikoa. HMM. DBHko 3. maila. Ikastetxe mota bakoitzeko ikasleen ehunekoak geruzen arabera.



A eredu publikoa	1,6	0,0	0,0	2,6	0,0	0,0
B eredu publikoa	8,8	13,7	23,8	7,1	7,4	0,0
D eredu publikoa	34,3	31,1	34,1	35,0	43,4	32,6
Itunpeko A eredua	15,8	6,7	0,0	20,2	12,6	20,3
Itunpeko B eredua	29,6	44,2	27,4	26,6	26,3	21,6
Itunpeko D eredua	10,0	4,3	14,6	8,4	10,3	25,4

3. EGINDAKO AURRERAPEN NEURKETAK

Ebaluazio-prozesu honetan I. HMM ikasleentzat lau neurketa egin dira, eta hiru II. HMM ikasleentzat. I. HMMren kasuan, lehen neurketa 2011ko urtarrilean egin zen eta oinarri gisa baliatzeko hasierako neurketa izateko asmoz diseinatu zen. Hori kontuan hartu da esperimentazio-prozesuan zehar emaitzak aztertzeko. Gainerako neurketetan, eskala komunean ebaluatutako taldeen errendimenduan izandako aurrerapena egiaztatzea izan da helburua.

3.1. HMM TALDEEN OINARRIZKO HASIERAKO NEURKETA: 2011KO URTARRILA

2011ko urtarrilean proiektu honetan parte hartu zuten ikasle guztiei zuzendutako oinarrizko hasierako neurketa egin genuen: HMM talde esperimentalei zein kontrol-taldee. II. HMMren kasuan, ez zen hasierako neurketa hori egin, I. HMMko esperientzia eta bertan lortutako emaitzak bagenituelako, eta horiek balio zuten alderaketak egiteko erreferentzia gisa.

Lehenengo neurketa horri esker, ikasle guztien hasierako maila ezarri ahal izan genuen proba horiek aplikatuta. Eraitza horietatik abiatuta, bi taldeetako ikasleek (esperimentala eta kontrol-taldea) ebaluatutako lau kompetentzia mailetan estatistikoki berdinak ziren abiapuntuak zituzten ala ez finkatu ahal izan da: *Irakurmena gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez*, eta *Matematikarako kompetentzia*. Hau da, esperimentazioaren alde aurretiko aldeak baloratzea zuen xede.

Oinarrizko neurketa egiteko, guztira, ikasturte bakoitzerako 8 proba prestatu zituzten: kompetentzia bakoitzeko bina (A eta B koadernoak, nahiz eta azkenean lehenengoa bakarrik aplikatu zuten). Probak MESE taldeak (Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Hezkuntza Sistemen Neurketa eta Ebaluazioa) egin zituen eta ISEI-IVEIk berrikusi, baloratu, aztertu eta egokitu egin zituen.

3.2. AURRERAPENAREN LEHEN NEURKETA: 2011KO MAIATZA-EKAINA (I. HMM) ETA 2012KO MAIATZA-EKAINA (II. HMM).

2011ko maiatzeko bigarren hamabostaldian eta ekaineko lehenengoan, I. HMMko taldeetarako (esperimentalak eta kontrol-taldeak) aurrerapenaren lehen neurketa egin zen. II. HMM taldeetarako (esperimentalak) aurrerapenaren lehen neurketa 2012ko maiatza-ekainaren artean egin zen.

Bi kasuetan egindako probak ACERek (*Australian Council for Educational Research*) prestatukoak izan ziren, PAT deitzen zaienak (*Progressive Achievement Test*) bi hizkuntza-kompetentzietarako – euskara eta gaztelania– eta hizkuntzakoak ez diren bi kompetentzietarako: matematika eta zientziak. Azken hori ez zuten oinarrizko hasiera-neurketan ebaluatu.

Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia Cambridge English Language Assessmentek HMM ebaluazio-prozesu horretarako espezifikoki prestatu zuen maila anitzeko probaren bidez ebaluatu zen.

3.3. AURRERAPENAREN BIGARREN NEURKETA: 2012KO MAIATZA-EKAINA (I. HMM) ETA 2013KO MAIATZA-EKAINA (II. HMM).

I. HMM talde guztiei (esperimentala eta kontrol-taldea) egin zitzairen aurrerapenaren bigarren neurketa, aurreko urtean bezala, 2012ko maiatzeko bigarren hamabostaldian eta ekaineko lehenengoan. II. HMMko taldeetarako bigarren neurketa 2013ko data berberetan aplikatu zen. Esperimentazioaren bigarren ikasturte horretan, aurreko ikasturteko hizkuntza-kompetentzia eta hizkuntzakoak ez diren kompetentzia berberak ebaluatu ziren, *Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia* izan ezik.

Horren denbora-tarte laburrean *Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia* ebaluatutako abilezia ugarietako ikasketa-aurrerapena behatzea zaila denez, eta proba horiek maila ugari dituztenez, bigarren neurketa esperimentazio-zikloaren amaieran egitea erabaki genuen; hau da, hirugarren ikasturtearen amaieran.


Bi deialdietan ikasleak galdu izana, batez ere, bi arrazoik eragin dute: esperimentazioa utzi zutelako edo maila errepikatu behar izan zutelako eta, horrenbestez, taldeko ikaskideekin maila igo ezin izan zutelako.

3.4. AURRERAPENAREN HIRUGARREN ETA AZKEN NEURKETA: 2013KO MAIATZA-EKAINA (I. HMMH) ETA 2014KO MAIATZA-EKAINA (II. HMMH).

Hirugarren eta azken neurketa aurrekoen data berberetan egin zen (I. HMMHrako 2013ko maiatzaren bigarren hamabostaldian eta ekaineko lehenengoan eta II. HMMHrako 2014ko maiatzeko bigarren hamabostaldian). Kasu honetan, bi multzoetako talde esperimentalak eta kontrol-taldeak ebaluatu ziren, aurrez deskribatutako II. HMMHko bi kontrol-taldeak sartu baitziren.

Lkasleek bi hizkuntza-konpetentzietako probak (euskara eta gaztelania) eta hizkuntzakoak ez zirenak (matematika eta zientziak) erantzun behar izan zituzten. Bestalde, hasieran aurrez ikusi genuen moduan, azken neurketa horretan *Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren* ebaluazioa ere egin genuen esperimentazioko lehen eta hirugarren ikasturteen arteko konparazio-emaitzak lortu ahal izateko.

Proba horiekin guztiekin batera, bi taldeek ISA (*International Schools' Assessment*) probak izenekoei ere erantzun zieten. ACERek prestatutako probak dira eta hiru ikasturteetan aplikatutako probetako puntuazioa PISA izeneko nazioarteko ikerketako puntuazioarekin bateratzea xede dute. Kasu horretan, ISA proben gai nagusiak euskarazko eta gaztelaniazko Irakurmena eta *Matematikarako konpetentzia* izan ziren.



4. ERRENDIMENDU PROBEN EZAUGARRIAK.

Hiru ikasturtetan konpetentzien igoera neurtzeko, ezinbestekoa zen nahikoa kalitate zuten errendimendu-probak erabiltzea, eskala berean eta nazioarteko beste estandar batzuekiko alderagarritasuneko bermeak izanda. Gainera, prozesu honetan ebaluatu behar ziren sei mailetan (Lehen Hezkuntzako 4. mailatik DBHko 3.era) aplikatu ahal izateko nahikoa item eta forma zituzten probak izan behar zuten.

Balio handieneko erreferentzia edo estandarretako bat, nazioartean onartuena eta egonkortasun gehien duena, ELGaren PISA nazioarteko proba da. Euskadi 2003ko ediziotik ari da parte hartzen bertan. PISA erreferentzia, zalantzarik gabe, hezkuntza mailan ezagunena eta balorazio onena duen erreferentzietako bat bihurtu da, eta hezkuntza-sistemen konparazioa neurtzeko tresna ona da.

Hori dela eta, esperimentazio-prozesua hasi zenetik, HMH esperientziaren ebaluazioaren azken emaitzak PISA eskalan adieraztea erabaki genuen, eta errendimendu-proba guztiak prozesuaren amaieran puntuazio horrekin kalibratuta egotea. Erabaki horren eraginez, PISA estandarrek erabili dira *Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* (euskaraz eta gaztelaniaz) izandako lorpenak neurtzeko, zehatzago esanda, *Irakurmenean* eta *Matematikarako konpetentzian*, horiek baitira, dakigun moduan, hiru urtean behin PISA azterketan ebaluatzen diren konpetentziak.

Hiru urtean behin azterketa honen edizio ofizialean parte hartu ezean, ELGak ez du emaitzak neurtzeko hezkuntza-sistemek erabil dezaketan PISA probarik. Beraz, ezin genuen nazioarteko erakunde horrengana jo probak erabiltzeko. Gainera, PISAk 15 urteko ikasleak soilik ebaluatzen ditu eta ez du eskala komun batean dagoen eta maila baxuagoetako neurketan erabil daitekeen ebaluazio-materialik.

Maila ugarian aplikatzeko moduan eta probak azkenean PISA eskalarekin kalibratzeko berme teknikoak eskaintzeko gaitasuna zuen erakunde bakarra zegoen; hain zuzen ere, 2000. urtean PISA azterketa hasi zenetik PISA errendimendu-probak prestatzeaz arduratu eta emaitzen analisisia kudeatu zuen enpresa. Australiako enpresa zen: ACER-Australian Council for Education Research (<http://www.acer.edu.au/>). Enpresa horrek proben erabilera eskusiborako hitzarmena zuen sinatuta MESE taldearekin (Hezkuntza Sistemen Neurketa eta Ebaluazioa <http://grupomese.com/mese.html>), Unibertsitate Konplutentsearen ikerketa-taldearekin, eta talde horrek, aldi berean, beste hitzarmen bat zuen sinatuta Gizartea eta Hezkuntza Europako Fundazioarekin (<http://www.sociedadeducacion.org/>) ACER probak Espainia osoan erabiltzeko eta aplikatzeko.

Esperimentazio-prozesu osoan eta aurrerapeneko neurketa bakoitzean, ACER erakundeak euskarazko eta gaztelaniazko *Irakurmenerako*, *Matematikarako konpetentziarako* eta *Zientzia-kulturarako konpetentziarako* prestatutako errendimendu-probak erabili ditugu.

Azkenik, esperimentazioaren hirugarren urtean, I. HMHrako 2013an eta II. HMHrako 2014an, ohiko probez gain, ikasleek lortutako puntuazioak PISA probako puntuazioen eskalarekin parekatzeko proba espezifikoak egin dituzte. Proba horiek ISA probak dira (<http://www.acer.edu.au/tests/isa>) eta euskarazko eta gaztelaniazko *Irakurmena* eta *Matematikarako konpetentzia* ebaluatzen dituzte.

Probak Lehen Hezkuntzan eta DBHn egindako aurrerapeneko hiru neurketetan erabili dira, bai I. HMHrako, bai II. HMHrako, eta *Australian Council for Educational Research (ACER)* erakundeko

adituek sortu eta definitu dituzte PAT (*Progressive Achievement Test*²) eta IBT (*International Benchmark Test* <http://ibt.acer.edu.au/>) izeneko probetatik eratorrita. Pilotatutako, kalibratutako edo eskalatutako probak dira, eta PISA-ACER (*Australian Council for Educational Research*) nazioarteko estandarren arabera egokituta daude aurrez aipatutako eskola-konpetentzien lorpen mailak neurtzeko.

Probak konpetentziak ebaluatzeko diseinatu dira; hau da, ikasleek arazoak aztertzeko eta konpontzeko erabiltzen dituzten abilezia eta gaitasunak ebaluatzeko. Beraz, haien helburua ez da zuzenean ikasleek edukiei, gertaerei edo datu jakinei buruz duten ezagutza maila egiaztatzea, baizik eta gaitasun mota desberdineko informazioa aztertzeko edo baloratzeko eta eguneroko bizitzan topa ditzaketen egoeretako arazoak konpontzeko duten maila aztertzea. Proba horiek lortu nahi dute ikasleak hainbat edukiri erreferentzia egiten dieten prozesuak martxan jartzea, konpetentzia mailaren adierazle baita hori.

Hizkuntzak garrantzi erabakigarria duen ikerketa-testuingurua izanik, arreta berezia jarri diogu arlo horri eta garrantzitsua da gogoratzea *Matematikarako konpetentziako* probak eta *Zientziakulturarako konpetentziakoak* familia-hizkuntzan³ erantzun zituztela, euskaraz edo gaztelaniaz. Baina ereduaren izaerari dagokion moduan, Irakurmena neurtzeko, ikasle guztiek bi proba egin behar izan zituzten, bat gaztelaniaz, eta beste bat euskaraz.

Alderatze-eskemak ebaluatu den konpetentzia mota bakoitzaren curriculum-ezaugarri espezifikotara eta egiturara egokitu dira.

- Hizkuntza-konpetentzien kasuan, irakurmenaren ebaluazioan oinarritu dira bereziki, eta horretarako askotariko testuak eta koadernoak eta euskarazko nahiz gaztelaniazko probak neurtzeko eskala komuna erabili dira.
- Hizkuntzakoak ez diren konpetentzien kasuan, maila bakoitzerako proba espezifikoak erabili dira, guztietarako eskala komuna jarrita.
- Esperimentazioaren ikasturte bakoitzerako eta etapa bakoitzerako proba desberdina erabili dugu; hala, probek esperimentazioaren hiru urteetan etapa bakoitzeko konpetentzietako bakoitza neurtzen dute, probak elkarren artean kalibratuta daude eta ikasleen konpetentzien garapenean izandako igoera antzematea ahalbidetzen dute.

Adierazi dugun moduan, PISAk lehen hizkuntzetako irakurmeneko konpetentziak neurtzen ditu, baina ez atzerriko hizkuntzetakoak; beraz, PISA azterketa ezin genuen erreferentzia gisa hartu atzerriko hizkuntzan, eta bereziki ingelesean, lortutako lorpena neurtzeko. Hala ere, HMH esperimentazioaren hasieran, zalantzarik ez zegoen konpetentzia hori ebaluatzen esperientzia zabala zutela izen on eta berme tekniko handiko erakundeek, errendimendu-proben kalitatea bermatzeko nahikoa nazioarteko abalekin.

Horixe da, esaterako, ACER erakundearen kasua. Alde batetik, konpetentzia horretako dimentsio ugari neurtzeko probak eskainiko zituen erakunde bat bilatu genuen, eta beste alde batetik, Lehen Hezkuntzako nahiz DBHko ikasleentzako egokiak ziren probak izango zituen erakundea izan behar zuen. Gainera, ezinbestekoa zen probak Hizkuntzetarako Erreferentziako Europako Marko Komunarekin (EEMB) kalibratuta egotea; izan ere, hori zen deialdiaren

² Honako esteka hauetan ikus daitezke PAT proben ezaugarriak eta adibideak. Matematikarako: <http://www.acer.edu.au/tests/patmaths>; Irakurketarako: <http://www.acer.edu.au/tests/pat-reading>; eta Zientzietarako: <http://www.acer.edu.au/documents/PAT-Science-sample-200110.pdf>

³ Etxean aitarekin eta amarekin normalean erabiltzen duen hizkuntza da, eta askotan ez dator bat irakaskuntzako hizkuntzarekin.

Aginduan adierazitako hizkuntza-erreferentzia. Esperimentazio-prozesua hasi zen unean hiru arlo horietan erantzun positiboa eman zezakeen erakunde bakarra *Cambridge English Language Assessment* (www.cambridgeenglish.org/es/) zen, ALTEren (*Association of Language Testers in Europe* – Europako hizkuntza-aztertzaileen elkarte, www.alte.org/) sortzailea eta giltzarria zen EEMB ren testuinguru kontzeptuala bera definitzeko eta sortzeko.

Beraz, Atzerriko hizkuntzako (ingeleza) hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia neurtzeko *Cambridge English Language Assessment* tek espezifikoki sortutako probak erabili ditugu esperimentazio-prozesu honetarako. Europako Kontseiluko EEMB en nazioarteko estandarrek kalibratuta edo eskalatuta zeuden eta Marko horretako mailen eta azpimailen arabera adierazten dituzte emaitzak, ISEI-IVEIk proposatutako zehaztapen teknikoak oinarri hartuta.

Hauek izan dira bi hezkuntza-etapetan eta HMMren bi deialdietan ebaluatu diren konpetentziak:

Lehen Hezkuntza: 4., 5. eta 6. mailak		DBH: 1., 2. eta 3. mailak	
Hizkuntza-konpetentziak:		Hizkuntza-konpetentziak:	
1.	Euskarazko hizkuntza-komunikazioa.	1.	Euskarazko hizkuntza-komunikazioa.
2.	Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa.	2.	Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa.
3.	Atzerriko hizkuntzako (ingeleza) hizkuntza-komunikazioa.	3.	Atzerriko hizkuntzako (ingeleza) hizkuntza-komunikazioa.
Konpetentzia ez-linguistikoak:		Konpetentzia ez-linguistikoak:	
4.	Matematikarako konpetentzia	4.	Matematikarako konpetentzia
5.	Zientzia-kulturarako konpetentzia	5.	Zientzia-kulturarako konpetentzia

4.1. **Gaztelaniazko eta Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia: Irakurmena.**

Euskarazko eta Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako proben egitura, bi etapetan, honako hau izan da:

- Hizkuntza koofizialetako bakoitzean (euskaraz eta gaztelaniaz) hizkuntza-konpetentzia neurtzeko maila bakoitzeko proba.
- Koaderno bakoitzak 30-35 item zituen.
- Item guztiak erantzun anitzekoak ziren eta hainbat motatako, zailtasun mailatako eta luzeratako testuei lotuta zeuden.
- Proba guztiak elkarren artean parekatuta zeuden eta, esperimentazio-prozesuaren amaieran, hizkuntza bakoitzerako ACER erakundearen ISA probaren irakurmeneko puntuazioarekin alderatuta.

4.2. **Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia.**

Ingeleseko maila-probak HMM azterketa honetako helburuetarako espezifikoki neurrira diseinatu ziren. Ariketa motak eta haien formatua, azterketen edukia eta egiteko baimendutako

denbora prestatzeko garaian, kontuan hartu zen hautagaiak Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleak zirela. Item guztiak nazioarteko izaera zuten eta hautagai gazteentzat garrantzitsuak eta hurbilak ziren; gainera, espresuki kulturalak diren gaien erreferentziarik ez zuten.

Cambridge English probako item guztiak *Cambridge English Language Assessment*en datu-basetik aukeratu genituen. HMH esperientziarako proba horretako materialak prestatzean erabilitako ainguraketa-sistemak bermatzen du datu-baseko item guztiak *Cambridge English Language Assessment*eko zailtasun maila komunera lotuta daudela, eta hori EEMB mailako sistemarekin lotuta dago berez. Balorazioaren eta kalitate-bermearen prozesu zorrotz horrek bermatzen du proba guztietan erabilitako item guztiak baliozkoak, fidagarriak eta justuak izatea.

Lehen Hezkuntzako ikasleentzako proba EEMB A1 eta B1 mailetatik aurrera ebaluatzeko diseinatu zen eta gaitasun-tarte horretako ikasleentzako egokia da. Bigarren Hezkuntzako ikasleentzako proba EEMB A2 eta B2 mailak ebaluatzeko diseinatu zen eta gaitasun tarte horretako ikasleentzako egokia da.

Probetako ariketa gehienak *Cambridge English Key for Schools (KET)*, *Cambridge English Preliminary for Schools (PET)* eta *Cambridge English Young Learners* azterketetako en estilokoak ziren.

Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia neurtzeko proben egitura, bi etapetan, honako hau izan da:

- Maila ugaritako probak; horiei esker, ikasleak Europako Marko Komuneko mailetan eta azpimailetan kokatu ahal izan ditugu. Maila ugaritako probak dira, eta desberdinak dira Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleentzako, kasu bakoitzean Markoaren maila desberdinak hartzen baitira erreferentzia gisa.
- Proba horiek, koaderno baten bidez, entzumena, irakurmena eta idazmena neurtzen dituzte. Gainera, ikasleen azpilagin bati esperientazio-prozesuaren amaieran mintzapena ebaluatu zaio.
- Maila ugaritako probak direnez, konpetentzia horien neurketa gainerako konpetentzietakoena ez bezala egin da, eta esperientziaren lehen eta azken urtean soilik aplikatu da.

4.3. Matematikarako konpetentzia eta Zientzia-kulturarako konpetentzia.

Hizkuntzakoak ez diren konpetentziak neurtzeko proben egitura, bi etapetan, honako hau izan da:

- Hizkuntzako ez den konpetentzia bakoitzerako eta ebaluatutako maila bakoitzerako proba bat egin da. Koaderno bakoitzak, gutxi gorabehera, erantzun anitzeko 30 item zituen, matematika eta zientzia arloko gaien ingurukoak, zegokion adin-taldera egokituta.
- Proba guztiak elkarren artean parekatuta zeuden eta, esperientazio-prozesuaren amaieran, *Matematikarako konpetentziarako ISA-PISA* probarekin ere alderatu genituen.

5. APLIKAZIO PROZESUAREN EZAUGARRIAK.

HMH esperimentazioaren ebaluazio-prozesuak ISEI-IVEIk beste ebaluazio mota batzuetan egindako aplikazioen kontrol tekniko eta kalitate-parametro guztiak bete ditu. Honako erakunde hauek hartu dute parte aplikazio-prozesuan:

- **Berritzeguneak:** 2011ko urtarrilean hasierako oinarri-neurketaren proben aplikazioa.
- **Cambridge English Language Assessment:** 2011, 2012, 2013 eta 2014 urteetan Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako proben aplikazioa.
- **ISEI-IVEI:** 2011n, 2012an, 2013an eta 2014an ebaluatutako gainerako konpetentzien aplikazioaz eta egindako aplikazio guztien koordinazioaz eta gainbegiraketaz arduratzen da.

5.1. Galdetegiaren eta proben aplikazio-euskarria

Proba guztiak HMH ebaluazio honetarako espresuki sortutako aplikazio informatiko baten bidez egin dira, eta ikasleek ikastetxeetako ordenagailuen bidez bete dituzte galdetegiak, Eskola 2.0 ekipamendua oinarri hartuta.

Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako probak paper-euskarrian egin dira.

Ordenagailuz probak betetzeko prozesua bi modutan egin da:

- *On line:* Errendimendu-probak kanpoko zerbitzari batean ostatatuta zeuden eta haiek betetzeko, ikasleek ikastetxean eskuragarri zeuden ordenagailuetatik sartu behar zuten zerbitzari horretara.
- *Off-line:* Probetara sarbidea ematen zuen ordenagailutik kanpoko USB gailu baten bidez. 2012tik aurrera, probak kanpoko gailu bidez egin ziren guztiak, aurrez esan dugun modua, ingeleseko probak izan ezik.

5.2. Aplikazioaren aldi baterako antolaketa

Errendimendu-probak aplikatzeko, bereizitako bi denbora-tarte erabili dira, bat ordenagailu bidez egindako errendimendu-probetarako, eta beste bat, *Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako* probetarako. Oro har, lehenengoak egiteko bi goiz erabili dira, eta beste goiz bat ingeleseko probak egiteko. Proba ugarien ordutegi-banaketa egiteko, oinarrizko irizpide gisa, kontuan hartu da ikastetxeetan ahalik eta nahasmendu gutxien eragitea, haien eskola-ordutegia aintzat hartuta. Bi etapetan eta ikasturte guztietan honako banaketa-eredu hau erabili dugu gehienez:

APLIKAZIOKO LEHEN EGUNA

	Argibideak	Proba	Minutuak, guztira
Ikasleen ebaluazioa antolatzea eta aurkeztea.			15-20
Matematikarako kompetentzia.	5'	60'	65'
Atsedernaldia			20'-30'
Euskara. Irakurmena	5'	60'	65'

APLIKAZIOKO BIGARREN EGUNA

	Argibideak	Proba	Minutuak, guztira
Gaztelania. Irakurmena	5'	60'	65'
Atsedernaldia			20'-30'
Kompetentzia zientifikoa	5'	60'	65'
Galdetegia	2'	20'	22'

APLIKAZIOKO HIRUGARREN EGUNA (INGELESA)

LEHEN HEZKUNTZA	Argibideak	Proba	Minutuak, guztira
Ingeleseko hizkuntza komunikaziorako kompetentzia	5'	60'	65'
BIGARREN HEZKUNTZA			
Ingeleseko hizkuntza komunikaziorako kompetentzia	5'	90'	95'

6. TXOSTENEAN AURKEZTUTAKO EMAITZEN IRAKURKETA-IRIZPIDEAK

Txosten honek, aplikazioko teknika bereizgarriez eta orain arte deskribatutako errendimendu-probez gain, **3 ataletan** egituratuta dago. Atal horietako bakoitzak bere helburuak ditu eta, beraz, bere ezaugarriak, eta noski, ematen duen informazioa ere bestelakoa da. Atal bakoitzeko helburuen aniztasuna kontuan hartuta, Atal bakoitzerako emaitza-grafiko espezifikoak eta bereziak aurkeztea erabaki dugu. Horretarako arrazoiak eta atal bakoitzean aurkeztutako emaitza motak jarraian azaldu eta justifikatu ditugu:

- **I. ATALA. EMAITZEN BILAKAERA KOMPETENTZIAN ISA-PISA ESKALA.**

Atal honen helburua aurrez I. puntuari adierazi ditugun eta talde esperimentalen eta kontrol-taldearen arteko emaitzen alderaketarekin zerikusia duten lehen hiru helburuei erantzutea da. Beraz, esperimentazioak iraun duen hiru ikasturteetan ebaluatutako bost kompetentzien emaitzak aurkezten dira; hau da, bi etapetako bakoitzean egindako aurrerapeneko hiru neurketetan ikasleek lortutako puntuazioak jasotzen dituzten bilakaera-grafikoak datoz.

Emaitza horiek kalkulatzeko lagina kompetentzia bakoitzean egindako hiru neurketetan emaitzak ditugun ikasleekin soilik osatu dugu; beraz, ez dira kontuan hartu prozesuan esperientzia utzi duten edo prozesuaren bigarren edo hirugarren ikasturtean sartu diren ikasleen puntuazioak. Izan ere, teknikoki zuzenagoa da neurketa guztietan parte hartu dutenen puntuazioen bilakaera alderatzea. Erabaki hori dela eta, Atal horretako grafikoetan hiru ikastetxe motaren bilakaera-emaitzak eman daitezke: I. HMM eta II. HMMko talde esperimentala eta I. HMMko kontrol-taldea, baina ez II. HMMko bi kontrol-taldeena, horiek azken neurketan soilik hartu baituzten parte.

Grafikoetan ageri den puntuazioak ISA-PISA eskala hartzen du erreferentzia gisa, aurrez azaldu dugun moduan. Hau da, ACERek egindako PAT probetan lortutako puntuazioak ISA eskalara pasatzen dira, eta hala, puntuazio guztiak nazioarteko PISA eskalarekin lotzeko aukera ematen digu.

- **II. ATALA 4. HELBURUA: ALDAGAIEN AZTERKETA ETA TESTUINGURUKO FAKTOREAK. ISA-PISA ESKALA**

Bigarren atal hau esperientziaren laugarren ebaluazio-helburuari dagokio: emaitzetan eragina duten aldagai eta testuinguruko faktoreak aztertzea, alegia.

Azterketa hori egin ahal izateko, HMM deialdi bakoitzeko azken neurketan jasotako ikasleen, zuzendaritzaren eta familien galdetegiko datuak eta erantzunak hartzen dira kontuan, eta esperientziaren azken ikasturtean eskuragarri dauden informazioak. Hori kontuan hartuta, logikoa dirudi pentsatzea horiek aztertzeko ere azken ebaluazioan parte hartu duten ikasleen emaitzak soilik hartzea.

Erabaki horri esker, txosten honetan aztertzen ditugun bost HMM ikastetxe moten emaitzak aurkez ditzakegu: I. HMM esperimentala eta kontrol-taldea, eta II. HMM esperimentala eta bi kontrol-taldeak. Noski, lagina desberdina izanik, atal honetan

aurkezten ditugun konpetentzia bakoitzeko emaitza orokorrak ere zertxobait aldatzen dira lehen Atalean aurkeztutakoekiko, baina noski, joerak berberak dira. Bigarren Atal honetako grafikoak aurreko Atalaren eskala berean aurkeztu ditugu, ISA-PISA eskalan.

- **III. ATALA. 5. HELBURUA: EEMB MAILAK IDENTIFIKATZEA DERRIGORREZKO ETAPEN AMAIERARAKO. ISA-PISA ESKALA**

Amaierako Atal hau HMMko ebaluazio-proiektu honen bosgarren helburuari dagokio: Europako Marko Komuna (EEMB) erreferentzia gisa hartuta, mailak identifikatzea derrigorrezko bi etapetako amaierarako. Lan hori egiteko, atalean bertan zehazten den moduan, hainbat lantalde izan ditugu.

Kasu honetan erreferentziatzko puntuazioa bi etapetako hirugarren neurketan ebaluatutako ikasle guztiena da, ikastetxeko moten arabera bereizketarik egin gabe, erreferentzia gisa HMM lagin osoa hartzea interesatzen baitzaigu; izan ere, emaitza horiek, sistema ordezkatzan ez duten arren, fidagarriagoak izan daitezke sistema osora zabaltzearen aukeraren aurrean.

Beraz, hirugarren Atalean erakusten diren emaitzen grafikoek konpetentzia horiei dagozkien hirugarren neurketan ebaluatutako ikasle guztien batez besteko puntuazioak jasotzen dituzte. Eskala aurreko ataletan erabilitako berbera da, ISA-PISA eskala. Ez da puntuazio berria, hirugarren eta azken ebaluazioan parte hartu duten ikasleen emaitzak bigarren Atalean ere eman baititugu, ikastetxe moten arabera bereizita. Oraingoan, puntuazio bakarra ematen da, eta hori kalkulatzeko, ikasle guztien puntuazioak hartzen dira lagin bakar gisa.

I. ATALA. EMAITZEN BILAKAERA KONPETENTZIETAN

1.5 puntuan adierazi dugun moduan, *Euskarazko eta Gaztelaniazko irakurmena* eta hizkuntzakoak ez diren konpetentziak (*matematikarako konpetentzia* eta *Zientzia-kulturarako konpetentzia*) esperimentazio-prozesuak iraun duen hiru ikasturteetan neurtu dira ACERek egindako errendimendu-proben bidez, konpetentzia bakoitzerako eskala bereziekin. Proba horiek dira **PAT proba** (*Progressive Achievement Test*) deitutakoak.

PAT proben hirugarren neurketarekin batera, ikasleek beste proba bat egin zuten, ISA izenekoa (*International Schools` Assessment*). Proba hori ere ACERek egindakoa da eta horri esker lotu ahal izan ditugu PAT proben bidez lortutako puntuazioak ELGAko PISA nazioarteko eskalarekin eta puntuazioarekin.

Txostenaren lehen atal honetan erabiltzen diren grafikoetan bi informazioak jasotzen dira: ACERen PAT probetan lortutako puntuazioak ISA-PISA eskalara pasatu dira, esperimentazio honen aurrerapeneko azken neurketan, Lehen Hezkuntzako 6. mailan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3.ean, aplikatutako ISA proban lortutako puntuazioetan oinarrituta.

PAT puntuazioak ISA-PISA eskalara pasatuta, bi etapetako ikasleen emaitzen bilakaera eskala egonkorrean eta nazioartean aitortutako eskalan aldera ditzakegu, hau da, PISA eskalan. Hala, jarraian ikusiko dugun moduan, kasu bakoitzean, ebaluazio-prozesu honetan parte hartu duten ikasleen puntuazioa PISA azterketaren azken edizioan parte hartzen duten euskal ikasle guztien puntuazioarekin alderatu ahal izango da, edo 2012an egindako ELGAren nazioarteko batez bestekoarekin. Hona iritsita, gogorarazi behar da DBHko HMHko ikasleak etaparen hirugarren mailan eskolatuta dauden arren, nazioarteko PISA ebaluazioan parte hartu duten ikasle gehienak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako taldeetan daudela. Alde hori kontuan hartzea garrantzitsua da emaitzak alderatzean eta baloratzean.

Konpetentzia bakoitzeko puntuazioak kalkulatzeko, txosten honetako II. orrialdean adierazitako aurrerapeneko hiru neurketetan parte hartu duten ikasleak soilik hartu ditugu kontuan. Beraz, I. HMH eta II. HMHko talde esperimentalei eta I. HMHko kontrol-taldeari dagozkien puntuazioak soilik ageri dira grafikoetan, horiek baitira esperimentazio-prozesu osoan parte hartu duten ikasleak.


I.I. I.HELBURUA: ANTZEKO ERRENDIMENDUA IH ETA 2H HIZKUNTZETAN (EUSKARA ETA GAZTELANIA).

Talde esperimentaleko ikasleek *Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* kontrol-taldeko ikasleek baino hobekuntza nabarmen handiagoa izatearekin lotuta zegoen HMM esperimentazio-prozesuaren helburu nagusia. Baina helburu horrek ez lioke eragin beharko curriculumeko IH eta 2H hizkuntza gisa euskarazko eta gaztelaniazko ikasleek lortutako hizkuntza arloko mailei.

Beraz, bi hizkuntza horietako ebaluazioarekin ikusi nahi dena da I. HMMko eta II. HMMko talde esperimentaleko ikasleek kontrol-taldeko ikasleek lortutako antzeko errendimendua lortzen ote duten; hau da, curriculumean ikaskuntzako eta irakaskuntzako hizkuntza gisa ingelesaren presentzia-ordu kopurua handitu izanak IH eta 2Hren (euskara eta gaztelania) emaitzetan modu nabarmenean ez duela eragiten egiaztatzea, kasu askotan talde esperimentaleko ikasleen curriculumetik hizkuntza horien presentzia murriztu egin baita.

I.I.I. EUSKARAZKO IRAKURMENA.

I.I.I.a grafikoan ACERen PAT probako *Euskarazko irakurmeneko* puntuazioak ageri dira ISA/PISA eskalara pasatuta. Grafiko honetan jasotzen dira Lehen Hezkuntzako hiru mailetan (4.etik 6.era) eta DBHko hiru mailetan (1.etik 3.era) egindako aplikazioaren emaitzen puntuazioak jaso ditugu.



A) Lehen Hezkuntza

Esperimentazio-prozesuaren hasieran, II. HMMko talde esperimentaleko ikasleek eta Kontrol-taldekoek I. HMM taldekoek baino maila hobea erakutsi zuten. Aurrerapeneko lehen neurketa horretako aldea esperimentazio-prozesu osoan zehar mantendu da. Azken neurketan, II. HMM talde esperimentalak hiru taldeetako emaitza altuenak lortu ditu, alde adierazgarriekin: kontrol-taldearekiko 17 puntuko aldea eta I. HMM talde esperimentalarekiko 24 puntuko aldea. I. HMM talde esperimentalaren eta haren kontrol-taldearen artean amaierako aldea ez da adierazgarria.

I. HMM eta II. HMMko talde esperimentalen puntuazio-igoera nahiko egonkorra da, baina handiagoa da II. HMM taldearen kasuan. Aldiz, kontrol-taldeak ez du joera hain egonkorra; izan ere, lehen eta bigarren neurketaren artean igoera handia izan du, 50 puntuko, eta bigarren eta hirugarren neurketaren artean, ordea, igoera hori nabarmen murriztu da.

Edonola ere, hiru taldeek antzeko joera dute emaitzetan, nahiz eta kontrol-taldearen azken neurketa talde esperimentaletan baino askoz gutxiago hazi den. Datuen arabera, badirudi Lehen Hezkuntzako ikasleek esperientziak parte hartzeak ez duela eragin kaltegarririk izan kompetentzia horretako emaitzetan. Are gehiago, positiboa izan dela esan daiteke, I. HMM talde esperimentalak lehen neurketan kontrol-taldeak baino 14 puntu gutxiago lortu baitzituen, eta azken datu-bilketan 7 puntura arte murriztu du aldea.

B) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

Abiapuntua ia berbera da ebaluatutako hiru motetan, kontrol-taldearen eta bi talde esperimentalen arteko 2 puntuko alde oso txikia soilik ikus daiteke. Baina hurrengo bi neurketetan, talde esperimentalek kontrol-taldeak baino igoera handiagoa izan dute emaitzetan, eta azken neurketan kontrol-taldearen eta I. HMM talde esperimentalaren artean 21 puntura iritsi da aldea. Alde hori estatistikoki adierazgarria da.

DBHko 3. mailako I. HMMko eta II. HMMko talde esperimentaletako ikasleek nabarmen gaitzen dituzte Euskadiko batez besteko puntuazioak (498 puntu) eta ELGAkoak (496 puntu) 2012ko PISA-n. Proba hori batez ere DBHko 4. mailan eskolatutako ikasleek egin zuten. Aldiz, kontrol-taldeak hirugarren neurketan lortutako emaitzak baxuagoak dira bai Euskadiko batez bestekoa baino, bai ELGAkoak baino.


Ondorioz, Bigarren Hezkuntzako ikasleek I. HMMn esperimentazioan parte hartu izana positiboa izan da euskarazko kompetentzia areagotzeko kontrol-taldekoen emaitzen aurrean, eta badirudi emaitzak ez direla aldatu esperimentazio-prozesuan parte hartzeagatik. II. HMMko talde esperimentalen joerak berretsi egiten du I. HMMn ikusitakoa.

1.1.2. GAZTELANIAZKO IRAKURMENA

Gaztelaniazko irakurmena ere esperimentazio-prozesuak iraun duen hiru ikasturteetan neurtu da ACERek egindako PAT errendimendu-proben bidez, eta puntuazioak ISA probaren bidez ELGAREN PISA nazioarteko eskalarekin ainguratu dira.

1.1.2.a grafikoa bi etapetan egindako aurrerapeneko neurketetan lortutako sei puntuazioak ageri dira, Lehen Hezkuntzako 4.etik 6.era eta DBHko 1.tik 3.era.

1.1.2.a. grafikoa. HMM. Lehen Hezkuntza eta DBH. *Gaztelaniazko irakurmenean*, ACEReko PAT probetan izandako errendimenduaren bilakaera ISA-PISA eskalan.



A) Lehen Hezkuntza

Bi talde esperimentalek (I. HMM eta II. HMM) aurrerapeneko lehen neurketatik kontrol-taldeek baino joera hobea erakusten dute hasieratik emaitzetan, 20 puntu inguruko hasierako alde adierazgarriarekin. Egoera hori aurrerapeneko hurrengo neurketetan mantendu egin da, hiru taldeen joerak bilakaera desberdina izan duen arren.

II. HMM talde esperimentalak, lehen neurketan emaitza altuena zuenak (nahiz eta aldea puntu bakarrekoa izan), posizio hori galdu du eta I. HMMren azpitik geratu da, 7 puntuko alde adierazgarriarekin. II. HMM taldearen eta I. HMM kontrol-taldearen arteko amaierako aldea ez da adierazgarria. I. HMMko talde esperimentala da bi taldeekin alde adierazgarria duen bakarra.

Edonola ere, hiru taldeen joerak oso antzekoak dira, eta horrek adieraziko luke, azken batean, itxuraz HMM esperimentazioan Lehen Hezkuntzako ikasleek parte hartu izanak ez duela eragin *Gaztelaniazko irakurmeneko* konpetentzia mailan.

B) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

Lehen Hezkuntzan ikusi genuen moduan, etapa honetan ere, I. HMM eta II. HMM talde esperimentalak kontrol-taldeak lortutako emaitzen gainetik mantentzen dira. Hain zuzen ere, I. HMM eta kontrol-taldearen artean hasieran zeuden 32 puntuetatik 33 puntutara pasatu zen azken neurketan, eta amaierako puntuazioen arteko aldea estatistikoki adierazgarria da.

II. HMM talde esperimentalak, lehen eta bigarren neurketan I. HMMren joera berbera zuenak, indarra galdu du hirugarren neurketan eta I. HMMk baino 6 puntu baxuagoko emaitzak lortu zituen.

DBHko 3. mailako ikasleen emaitzak, bai I. HMMko eta II. HMMko talde esperimentaletan, bai kontrol-taldeetan, Euskadiko batez bestekoaren (498 puntu) eta ELGAkoaren (496 puntu) gainetik daude 2012ko PISAn. Horrek ikasle horien joera positiboa erakusten digu.

Beraz, esan daiteke HMM esperimentazioan Bigarren Hezkuntzako ikasleek parte hartu izanak ez duela eragin itxuraz *Gaztelaniazko irakurmeneko* kompetentzia mailan.

I.2. 2.HELBURUA: ANTZEKO ERRENDIMENDUA HIZKUNTZAZKOAK EZ DIREN KONPETENTZIETAN: MATEMATIKA ETA ZIENTZIAK.

Hizkuntzako konpetentzien kasuan bezalaxe (euskara eta gaztelania), talde esperimentaletan eta kontrol-taldean hizkuntzakoak ez diren konpetentzietan errendimendua antzekoa dela edo antzeko joera duela egiaztatzea da esperimentazio-prozesuaren bigarren helburua.

Txostenaren lehen atalean adierazi dugun moduan, ikasleek proba hauek familia-hizkuntzan egin dituzte; izan ere, konpetentzia ezagutzea interesatzen zitzaigun, eta ez hizkuntza menderatzea, hori beste errendimendu-proba batzuen bidez neurtzen baita esperimentazioan inplikaturako hiru hizkuntzetan.


Jarraian ikusiko dugun moduan, hizkuntzakoak ez diren bi konpetentzia horietako bakoitzari buruz emandako informazioa desberdina da; izan ere, ikasleek *Matematikarako konpetentzian* PAT probak nahiz ISA probak erantzun zituzten bitartean, hirugarren neurketan, *Zientzia-kulturarako konpetentzian* PAT probak soilik erantzun dituzte, eta beraz, ezin izan da ISA/PISA eskalan eman puntuazio hori, sarreran azaldu dugun moduan.

Matematikarako konpetentziako eta *Zientzia-kulturarako konpetentziako* probak osatu zituzten itemak berberak izan ziren bai gaztelaniazko bertsioan, bai euskarazkoan; beraz, item bakoitzerako puntuazioen kalkulua, eta amaierako eskala, bi hizkuntza-berzioen emaitzak bateratuz egin genuen.

I.2.1. MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA

Matematikarako konpetentzia ere esperimentazio-prozesuak iraun duen hiru ikasturteetan ACER erakundeak egindako PAT errendimendu-proben bidez neurtu da eta lortutako puntuazioak, ISA probaren bidez, ELGAko PISA nazioarteko eskalarekin ainguratu dira.

I.2.1.a grafikoan ageri dira bi etapetan, Lehen Hezkuntzako 4.etik 6.era eta DBHko 1.etik 3.era, egindako aurrerapeneko neurketetan lortutako sei puntuazioak.



A) Lehen Hezkuntza:

Kompetentzia honetan, ISA/PISA eskalan dauden PAT puntuazioen bilakaera aztertzen badugu, hiru taldeen emaitzek argi eta garbi bat egiten dutela ikus daiteke: Lehen neurketan ikus daiteke puntuazioak nahiko desberdinak direla hiru taldeetako bakoitzarentzat, I. HMM eta II. HMM talde esperimentalen artean 38 puntura arteko aldearekin; estatistikoki adierazgarria da alde hori. Aldiz, kontrol-taldean tarteko egoera dago. Bigarren neurketan, bi talde esperimentalen arteko aldea 8 puntu murriztu da eta azken neurketan 6 puntutan geratu da. Prozesuaren amaieran, hiru taldeen arteko aldeak ez dira adierazgarriak.

Aipatu beharrekoa da I. HMMko kontrol-taldearen eta talde esperimentalaren arteko hasierako aldea, lehen neurketan 13 puntukoa izan zena, ia erdira, 7 puntutara, murriztu zela azken neurketan. Horrek adieraziko luke deialdi honetan talde esperimentalaren aurrerapena handiagoa izan dela kontrol-taldearena baino.

Edonola ere, grafikoan ageri den joerak adierazten du emaitzak antzekoak direla esperimentazioaren amaieran, eta beraz, ez dirudiela esperimentazio-prozesu honetan I. HMM eta II. HMM ikasleek parte hartu izana kaltegarria izan denik, eta ez dirudi *Matematikarako kompetentziako* emaitzetan eragin kaltegarririk izan duenik ere.

B) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza:

I. HMM eta II. HMMko talde esperimentalen emaitzak kontrol-taldearenak baino hobeak dira argi eta garbi aurrerapeneko neurketa guztietan. Talde esperimentalen arteko aldeek, aplikazioak egin ahala, gora egin dute, I. HMM taldearen eta kontrol-taldearen artean lehen neurketan 26 puntuko aldea zegoen, eta azken neurketan, 37koa. Hain zuzen ere, kontrol-taldearen igoera oso txikia izan da bigarren eta hirugarren neurketen artean.

Talde esperimentalen puntuazioak soilik daude (bai I. HMMn, bai II. HMMn) Euskadiko batez bestekoaren (505 puntu) eta ELGAkoaren (494 puntu) gainetik 2012ko PISAn, baina ez kontrol-taldekoarenak.


Horren ondorioz, bigarren hezkuntzako ikasleek HMM esperimentazioan parte hartzeak itxuraz ez du eraginik *Matematikarako kompetentzian* izan dituzten emaitzetan; are gehiago, badirudi eragin positiboa izan duela.

I.2.2. ZIENTZIA-KULTURARAKO KONPETENTZIA

Zientzia-kulturarako konpetentzia ere esperimentazioak iraun duen hiru ikasturteetan neurtu da ACERek egindako PAT errendimendu-proben bidez, baina puntuazio horiek ezin dira ISA/PISA puntuazioan ainguratu, ikasleek ez baitzuten proba hori erantzun. Beraz, garrantzitsua da kontuan hartzea konpetentzia honetako puntuazioak ezin direla gainerako konpetentzietan aurkeztutakoekin alderatu, ez baitira eskala berekoak.

A) Lehen Hezkuntza: 4. mailatik 6. mailara.

I.2.2.a grafikoan ikus daiteke Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako ikasleen emaitzek ACERen PAT probetan *Zientzia-kulturarako konpetentzian* izandako bilakaera, bai bi talde esperimentaletan (I. HMM eta II. HMM), bai kontrol-taldean.



Lehen Hezkuntzan, *Zientzia-kulturarako konpetentzian* ikus daiteke neurketa guztietan kontrol-taldea talde esperimentalaren puntuazioen azpitik dagoela, nahiz eta aldeak kasu guztietan txikiak diren: 5 eta 7 puntu artean lehen neurketan eta 6 eta 10 puntu artean azken aplikazioan.


Hala, emaitzei begiratu ondoren esan daiteke I. HMM eta II. HMM talde esperimentaletako ikasleek kontrol-taldekoek baino emaitza hobeak lortu dituztela *Zientzia-kulturarako konpetentzian*, aldea oso txikia den arren.

Lehen Hezkuntzako talde esperimentaletako ikasleek HMM prozesuan parte hartzeak badirudi ez duela eraginik izan *Zientzia-kulturarako konpetentziako* emaitzetan.

B) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: 1. mailatik 3. mailara.

I.2.2.b grafikoan ikus daiteke Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailako ikasleek *Zientzia-kulturarako konpetentzian* emaitzetan izan duten bilakaera ACERen PAT probetan, bai I. HMM eta II. HMM taldeetan, bai kontrol-taldean.

1.2.2.b. grafikoa. HMM. Zientzia-kulturarako kompetentzia ACEReko PAT probetan izandako errendimenduaren bilakaera DBHko 1. mailatik 3. mailara.



Ikus daitekeen moduan, lehen neurketan ezarritako joera bera mantentzen da esperimentazio-prozesu osoan: I. HMM eta II. HMM taldeak kontrol-taldearen emaitzen gainetik daude. Bi talde esperimentalen artean aldea ez da aldatzen (6 eta 7 puntu artean) aurrerapeneko hiru neurketetan.

I. HMM talde esperimentalak ez du lortzen lehen neurketan ikusitako aldea handitzerik kontrol-taldearekiko (12 puntu). Emaitzek bigarren neurketan aldean igoera txikia adierazten dute, baina azken ebaluazioan baliogabetu egiten dira, eta talde esperimentalekiko kontrol-taldearen hasierako aldeetara itzultzen dira.

Azken batean, HMM esperimentazioan parte hartu duten bigarren hezkuntzako ikasleek erakutsi dute lehen neurketatik kompetentzia maila handiagoa dutela kontrol-taldeko ikasleek baino, eta hasierako alde hori mantendu dute. Horrek adierazten digu HMM ikasleek esperimentazio-prozesuan parte hartu izana itxuraz ez dela kaltegarria izan, haien emaitzek ez baitute eragin kaltegarrikerik izan.

I.3. 3.HELBURUA: INGELESEZKO ERRENDIMENDUA NABARMEN HANDIAGOA TALDE ESPERIMENTALETAN.

I.3.1. INGELESEZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA

Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia neurtzeko, *Cambridge English Language Assessment* delakoak HMM proiektua ebaluatzeko berariaz prestatutako probak erabili ditugu eta ebaluatutako gainerako konpetentziekin gertatzen ez den bezala, proba honek hainbat maila hartzen dituenez, esperimentazioaren hasieran eta amaieran aplikatu dugu; hau da, 2011ko eta 2012eko maiatzean-ekainean eta 2013ko eta 2014ko maiatzean-ekainean. Hizkuntzetarako Erreferentziako Europako Marko Komunaren (EEMB) estandarrak betetzen dituzte proba horiek eta, beraz, emaitzak aipatutako Marko horretan ezarritako mailen arabera dira, ISEI-IVEIk emandako zehaztapenetatik eta irizpideetatik abiatutakoak, hain zuzen.

Konpetentzia neurtzeko, beraz, ez dugu gainerako konpetentzien ebaluazioan erabilitako prozesua erabili eta emaitzak ez ditugu adierazi ez eskala berean, ez eta ilustrazio grafiko berdinekin ere. Konpetentzia hori PISA azterketan neurtzen ez denez, ezin dira konpetentzia honen emaitzak eskala horretan eman, *Euskarazko eta Gaztelaniazko irakurmenaren konpetentziarekin* eta *Matematikarako konpetentziarekin* egin dugun bezala.

Lehen esan dugun moduan, bi neurketetan aplikatu dugu hainbat maila hartzen dituen proba bat. Lehen Hezkuntzako taldeetan EEMBren A1 mailatik B1 artekoa izan da eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzako, A2 mailatik B2 mailara artekoa.


Konpetentzia honetan, bi kontrol-talde mota aukeratu dira 2014ko maiatzean aplikazioa egiteko bi etapetan. *Nahitaezko ingelesa duen kontrol-taldeko* ikasleek Ingelesez curriculumean nahitaezkoa den ordutegia jasotzen dute; aldiz, *Kontrola+ingelesa duen taldeko* ikasleek, ikastetxeko curriculumeko orduen barruan, Ingelesezko ordutegi zabalagoa jasotzen dute.

A) Lehen Hezkuntza: 4. eta 6. maila.

- **II. HMM deialdiko taldeen emaitzak**

Jarraian datorren grafikoko datuek adierazten dute Lehen Hezkuntzan 6. mailako II. HMMko ikasleek Ingelesezko konpetentzia areagotu egin dutela. Hala, 2012an eskalaren maila baxuenean, *Below A1*, zegoen LHko 4. mailako ikasleen ehunekoak 28 puntutan murriztu da. 2012an % 48,5 izatetik 2014an % 20,3 izatera pasatu da. Era berean, ia 27 puntutan handitu da 2012an orduan ebaluatutako mailarik altuena, *A2 & above*, lortu zuten ikasleen ehunekoak; orduan % 6,7 izatetik 2014an % 33,2 izatera pasatu da.

I.3.1.a. grafikoa. II. HMM Lehen Hezkuntza. Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian izandako errendimenduaren bilakaera.




Kontuan hartu behar da, horrez gain, alderaketan sartutako dimentsioak *Entzumena* eta *Irakurmena* direla, lehen urtean ez baitzen idazmena berezita ebaluatu, eta hirugarren urtean, aldiz, bai.

Lehen Hezkuntzan ebaluatutako mailei dagokienez, 2014an B1 maila ere neurtu da. Baina grafikoa, maila hori A2 mailarekin batera multzokatuta ageri da 'A2 & above' kategorian, 2012ko proban ebaluatu ziren EEMB mailekin alderaketa egin ahal izateko.

Aipatu dugun moduan, 2014ko maiatzeko aplikazioan, II. HMMko esperimentazioaren hirugarren eta azken urtean, bi kontrol-talde mota aukeratu dira: Nahitaezko ingelesa duen kontrol-taldea eta Kontrola+ingelesa. Grafikoa ikus daitezke horien emaitza orokorrak, talde esperimentalarekin batera, ebaluatutako hiru dimentsioetan. *Entzumena*, *Irakurmena* eta *Idazmena*.

Nahitaezko ingelesa duen kontrol-taldearen errendimendua baxuagoa da II. HMMko talde esperimentalarena baino. Espero zitekeen emaitza da, kontrol-taldeak Ingeleseko nahitaezko ordutegia jasotzen baitu, eta aldiz, HMM proiektuan ordutegi hori handitu egiten da esperimentazioko hiru mailetan. Kontrola+ingelesa taldeari dagokionez, Ingeleseko ordutegi zabalagoa jasotzen duen, baina Hezkuntza Sailaren HMM proiektuan parte hartzen ez duen ikasleen kasuan, HMM talde esperimentaleko ikasleek baino emaitza handiagoak lortzen dituzte.


I.3.1.b. grafikoa. II. HMM Lehen Hezkuntzako 6. maila Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako emaitzak.



- **HMH proiektuaren errendimenduaren bilakaera Lehen Hezkuntzan.**

Jarraian, HMH proiektuko talde desberdinen errendimendu-bilakaerarekin egindako grafikoa dator. Talde guztiek hobetzen dute errendimendua, eta talde esperimentaletan kontrol-taldeetan baino emaitza handiagoak lortzen dituzte. I. HMH eta II. HMH talde esperimentalen artean, ikus daiteke I. HMHn errendimendua handiagoa izan dela bigarren neurketan, % 40,4 lortuta A2 & above mailan, eta aldiz, II. HMHn ehuneko hori % 33,2koa da. Bi taldeetan I. HMH kontrol-taldeko ehunekoaren (% 16,6) bikoitza baino gehiago.

I.3.1.c. grafikoa. HMH. Lehen Hezkuntza. Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian izandako errendimenduaren bilakaera. Entzumena eta irakurmena.




Emaitzen interpretazioa osatzeko, erreferentzia gisa sartu behar da *Irakurmeneko* puntuazioa, *Euskarazko eta Gaztelaniazko Irakurmeneko* erabilitako eskala berarekin, batez beste 500 punturekin Lehen Hezkuntzarako. Puntuazioa 250 eta 450 puntu artekoa da, datuen irakurketa errazteko.

Grafikoak proiektuaren 3 urteetan probetan parte hartu duten ikasleen lagina biltzen du. Ingelesezko probak bi aldiz aplikatu ziren, lehen neurketa I. HMHn eta I. HMH kontrolekoa 2011n egin zen, II. HMH 2012an eta bigarren eta azkena, handik bi urtera, I. HMH eta I. HMH kontrolekoa 2013an eta II. HMH 2014an.

I. HMHko talde esperimentalak lortu du, irakurmenean, igoerarik handiena, 50 puntu lehen eta bigarren neurketaren artean. Igoera hori I. HMHko kontrol-taldeak lortutako 37 puntuko baino nabarmen handiagoa da.

Lehen neurketan, bi talde esperimentalen arteko puntuazio-aldea ez da adierazgarria, baina bai bi horiek kontrol-taldearekin duten aldea. Bigarren neurketan, hiru taldeen arteko puntuazio-aldea estatistikoki adierazgarria da.

I.3.1.d. grafikoa. HMM. Lehen Hezkuntza. Lehen eta bigarren neurketako emaitzak Reading ariketan (Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia).




B) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: I. eta 3. maila.

• II. HMM deialdiko taldeen emaitzak

Jarraian datorren grafikoko datuek adierazten dute Bigarren Hezkuntzan 3. mailako II. HMMko ikasleek Ingeleseko kompetentzia areagotu egin dutela. Hala, DBHko I. mailan eskalaren maila baxuenean, *A1 & below*, zeuden ikasleen ehunekoa 28 puntutan murriztu da, 2012an % 28,7 izatetik 2014an % 0,8 izatera pasatuta. Era berean, 44 puntutan baino gehiagotan handitu da 2012an orduan ebaluatutako maila altuenean, *B1 & above*, zeuden ikasleen ehunekoa, % 32,8tik 2014an % 77,1era pasatuta. Igoera hori dela eta, A2 mailan dauden ikasleen taldea 2014an % 16 murriztu da lehen neurketarekiko.

I.3.1.e. grafikoa. II. HMM Bigarren hezkuntza. Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian izandako errendimenduaren bilakaera.




Bigarren Hezkuntzan ebaluatutako mailai dagokienez, 2014an B2 maila ere neurtu da. Baina grafikoan, maila hori B1 mailarekin batera multzokatuta ageri da '*B1 & above*' kategorian, 2012ko proban ebaluatu ziren EEMB mailekin alderaketa egin ahal izateko.

Lehen Hezkuntzan bezalaxe, Bigarren Hezkuntzan ere bi kontrol-talde mota aukeratu dira: Nahitezko ingelesa duen kontrol-taldea eta Kontrola + ingelesa duena 2014ko maiatzeko aplikaziorako, II. HMHn esperimentazioko hirugarren eta azken urterako. *I.3.1.f. grafikoak* erakusten ditu bi kontrol-talde horien emaitza orokorrak, talde esperimentalekoen emaitzekin batera.

Nahitaezko ingelesa duen kontrol-taldearen errendimendua baxuagoa da II. HMHko talde esperimentalarena baino. Espero zitekeen emaitza da, kontrol-taldeak Ingelesezko nahitaezko ordutegia jasotzen baitu, eta aldiz, HMMH proiektuan ordutegi hori handitu egiten da esperimentazioko hiru mailetan. Kontrola+ingelesa duen taldeari dagokionez, Ingelesezko ordutegi zabalagoa jasotzen duten baina Hezkuntza Saileko HMMH proiektuan parte hartzen ez duten ikasleen kasuan, HMMH talde esperimentaleko ikasleek baino emaitza hobeak lortu dituztela ikus daiteke, bereziki maila altuenean, B2n. Kontrola+ingelesa duen taldeko ikasleen % 53,6 maila horretan dago; aldiz, II. HMMH taldean % 33k lortzen du B2 maila.


I.3.1.f. grafikoa. HMMH. Bigarren Hezkuntzako 3. maila. Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzak.



- **HMMH proiektuaren errendimenduaren bilakaera Bigarren Hezkuntzan.**

Jarraian, etapa honetan bi neurketetan parte hartu duten HMMH proiektuko taldeetako ikasleen errendimendu-bilakaera jasotzen duen grafiko bat dator.

I.3.1.g. grafikoa. DBH. Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian izandako errendimenduaren bilakaera. Entzumena, Irakurmena eta Idazmena.



Talde guztiek hobetzen dute errendimendua, eta talde esperimentaletan kontrol-taldeetan baino emaitza handiagoak lortzen dituzte. I. HMM eta II. HMM talde esperimentalen artean, ikus daiteke bigarren neurketan errendimendua nabarmen hobeia izan dela II. HMMn, % 77,1 izanik *B1 & above* mailan, eta aldiz, I. HMMn ehuneko hori % 68,5ekoa da. Emaitza horiek nabarmen gainditzen dute I. HMMko kontrol-taldearen ehunekoa (% 21,8).


Emaitzen interpretazioa osatzeko, erreferentzia gisa sartu behar da *Irakurmeneko* puntuazioa, *Euskarazko eta Gaztelaniazko irakurmeneko* erabilitako eskala berarekin, batez beste 500 punturekin Bigarren Hezkuntzarako. Puntuazioa 350 eta 550 puntu artekoa da, datuen irakurketa errazteko.

Grafikoak proiektuaren 3 urteetan probetan parte hartu duten ikasleen lagina biltzen du. Ingelesezko probak bi aldiz aplikatu ziren, lehen neurketa I. HMMn eta I. HMM kontrollekoa 2011n egin zen, II. HMM 2012an eta bigarren eta azkena, handik bi urtera, I. HMM eta I. HMM kontrollekoa 2013an eta II. HMM 2014an.

Hiru taldeek, bigarren neurketan, lehen neurketan baino 45-51 puntu gehiago lortu dituzte *Irakurmenean*, eta talde esperimentaletan zertxobait igoera handiagoa izan dute. Hiru taldeen puntuazioen arteko aldeak estatistikoki adierazgarriak dira, bai lehen neurketan, bai bigarrean.

Nabarmendu behar da grafikoak adierazitako baldintzak betetzen dituen (proban bi aldietan parte hartu izana eta esperimentazioan hiru urteetan egon izana) I. HMMko kontrol-taldea oso txikia dela, 87 ikaslekoa, eta aldiz, I. HMM 270ekoa da, eta II. HMM, berriz, 854koa.

I.3.1.h. grafikoa. HMM. Bigarren Hezkuntza. Puntuazioa Readingean (Ingeleseko hizkuntza-komunikazioa).



II. ATALA.

4. HELBURUA: ALDAGAIEN AZTERKETA ETA TESTUINGURUKO FAKTOREAK

Ez da erraza parte hartzen duten faktore guztiak ezagutzea, ezta benetan zenbaterainoko eragina duten jakitea ere; gainera, askotan, zaila izaten da aldagaiaren eta errendimenduaren arteko kausa-efektua lotura egiaztatzea. Hala ere, badakigu euskal ikasleekin egindako beste ebaluazio, azterketa eta ikerketa batzuek adierazten dutela oinarritzko kompetentzietako ikasleen errendimenduan, oro har, bi arlotan sartutako aldagaiek eragiten dutela:

- alde batetik, ikasgelako prozesu didaktikoak eta ikastetxearen eta hezkuntza-sistemaren antolaketa eta curriculum arloko ezaugarriak.
- beste alde batetik, ikasle bakoitzaren baldintza pertsonalak eta familia arloko baldintzak.

Familiarekin eta ikaslearen ezaugarri pertsonalekin lotutako faktoreak ikastetxearen kanpoko eraginak dira eta hezkuntza-prozesuak baldintzatzen dituzten input gisa hartu behar dira. Antolaketa eta curriculum arloko aldagaiak ikastetxearen beraren barneko elementuak dira eta, printzipioz, eragiteko eta aldatzeko gaitasun handiagoa izan dezakete.

Ikasle bakoitzak familia bat eta maila sozioekonomiko eta kultural jakina du, jatorri bat eta egitura- eta hizkuntza-ezaugarri espezifikoak ditu, baliabide material eta ondasun kultural jakinekin, eta ezaugarri jakinak dituen ikastetxe batean eskolatzen da. Ikaslearen galdetegiak informazio hori jasotzen du, txosten honek helburu duen azterketa egin ahal izateko: eskolaz kanpoko alderdiak, familiaren ezaugarriak, hizkuntzekiko norberaren jarrerak, adinaren eta egiten ari den irakasmilaren arteko egokitasuna, aitaren eta amaren ikasketa maila, ingeleseko eskolaz kanpoko jarduerak eta abar.

Eskuragarri dagoen informazio guztia aztertzeko, bi motatako aldagaiak sailkatu ditugu:

- a) **Zeharkako aldagaiak:** aldagai multzo honek, oro har, esperimentazio-prozesu honetan parte hartu duten ikasleen ezaugarri eta jokabideak beste errolda-ebaluazio batzuetan (Ebaluazio diagnostikoan, esaterako) eskuragarri dauden datuen edo lagin adierazgarrien (PISA ebaluazioan gertatzen den moduan) antzekoa ote den ikustea ahalbidetuko digu. Zeharkako aldagai hauetako gehienak beste ebaluazio batzuetan ere badaude eta ez dituzte Txosten honetako ondorioetan kontuan hartzeko moduko informazio adierazgarriak emango, baina lagunduko digute aztertutako gainerako aldagaiei balioa emateko. Lehen tipologia honetan aztertu diren alderdiak honako hauek dira: ikasleen sexua, ikasmilarekiko adin-egokitasun egoera, etorkinak diren ala ez, gurasoen ikasketa maila, eta ikasle bakoitzaren kalifikazio akademikoen eta ebaluazio honetan lortutako emaitzen arteko korrelazioa.
- b) **Hizkuntza-aldagaiak:** Txostenaren bigarren atal honetako aldagai garrantzitsuenak dira, eta etorkizunean erabakiak hartzeko informazioa handiagoa ematen digute. Batzuk 2014an aurkeztutako Txostenean aztertu genituen esperientzia honetako lehen promozioaren, I. HMHren, emaitzekin, eta orain hirugarren neurketan parte hartu duten ikasle guztien emaitzarekin eguneratu dira, bai talde esperimentaletan, bai bi deialdietako (I. HMH eta II. HMH) kontrol-taldeetan.

Tipologia honetan sartuko dugu ikasleen familia-hizkuntzarekin lotutako informazioa, ingelesezko eskolaz kanpoko jarduerak egitea eta emaitzetan horrek duen eragina, ikastetxeetako euskararen erabilera orokorra eta ikasleek hizkuntzekiko duten

jarrerarekin lotutako atal bat. Era berean, hizkuntza bakoitzerako emandako eskola-orduen ehunekoak emaitzetan duten eraginari buruzko azterketa aurkeztu dugu.

Azterketa aldagaien arabera eta horiek konpetentzietako errendimendurekin duten loturaren arabera egiteko, dagokion konpetentziako proba egin eta puntuazioa errendimendu orokorrerako kontuan hartu zaion ikasleak soilik hartu dira kontuan; gainera, ikasle horiek ikasleari aurkeztutako galdera-sortan kasu bakoitzean egokiak diren galderei erantzun diete.

ALDAGAIEN AZTERKETAREN ANTOLAKETA

ZEHARKAKO ALDAGAIAK:

- Aitaren eta amaren ikasketa maila
- Ikasleen sexua
- Adin-egokitasun egoera
- Familiaren jatorria
- Kalifikazioen eta ebaluazioko emaitzen arteko korrelazioa.

HIZKUNTZA ALDAGAIAK:

- Familia-hizkuntza
- Ingelesezko eskolaz kanpokoak
- Euskararen erabilera orokorra
- Hizkuntza bakoitzean emandako orduen ehunekoa
- Hizkuntzekiko jarrera

II.1. KOMPETENTZIEN HIRUGARREN NEURKETAREN EMAITZAK

Txosten honetako I. atalean, esperimentazio-prozesu honetan garatutako hiru neurketetan (bai I. HMM taldeetan, bai II. HMM taldeetan) parte hartu duten ikasleen ebaluatutako kompetentzietako emaitzen bilakaera aurkeztu da. Esperimentazio-prozesu osoan mantendu diren ikasleen puntuazioak soilik jasotzen dituzten emaitzak dira, beraz; eta noski, emaitzatik kendu dira prozesu esperimentalera esperimentazioa hasi eta hurrengo ikasturteetan sartu direnen emaitzak edo, beste arrazoi batzuk direla eta, prozesuan parte hartzeari utzi ziotenenak. Hala, teknikoki zuzenagoa eta fidagarriagoa da neurketa eta errendimendu-probetako hiru neurketetan emaitzetan izandako aurrerapena. Horregatik ez dira adierazi Txosten honetako I. atalean jasotako grafikoetan aurrerapeneko hirugarren neurketan parte hartu duten ikasle batzuen emaitzak, hala nola II. HMMko bi kontrol-taldeenak.

Hala ere, Txosteneko II. atal honetan interesgarriena ez da emaitzen bilakaera alderatzea, baizik eta aldagai indibidualak eta testuinguru-aldagaiak sakon aztertzea, emaitzetan duten eragina egiaztatzeko. Azterketa egiteko, egokiagoa da hirugarren eta azken neurketako emaitzak soilik erabiltzea, honako bi arrazoi hauek direla eta: alde batetik, aldagaiei buruzko informazioak esperimentazio-prozesuaren amaieran jaso direlako (hau da, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleak eta DBHko 3. mailako ikasleak); beste alde batetik, hirugarren neurketan parte hartu duten ikasleak soilik kontuan hartuta lagin zabalagoa dugu, II. HMMrako ezarritako bi kontrol-taldeen informazioa biltzen baitu. Horien ezaugarriak azaldu ditugu dagoeneko 3. puntuan: “*HMM proiektuaren ebaluazioaren ezaugarri teknikoak*”.

Ondorioz, jarraian ageri da kompetentzia bakoitzerako grafiko bana, Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailako emaitzekin. Lortutako emaitzak ebaluatutako bost talde moten arabera bereizita daude:


- **I. HMM:** HMMko lehen deialdiko talde esperimentalak.
- **I. HMMko kontrol-taldea:** I. HMM deialdiko kontrol-taldea.
- **II. HMM:** HMMko bigarren deialdiko talde esperimentalak.
- **II. HMM kontrola, nahitaezko ingelesa** II. HMMko lehen kontrol-taldea, indarrean den Dekretuak ezarritako nahitaezko ingeles-ordutegia ematen dena.
- **II. HMM kontrola + ingelesa:** II. HMMko bigarren kontrol-taldea, ingeleseko nahitaezko ordutegia baino gehiago ematen duena.

Grafikoetan ageri diren puntuazio guztiak ISA-PISA eskalan daude. Hori da Txosten honetako I. ataleko emaitzak, esperimentazioak iraun duen hiru ikasturteetan izandako bilakaera jasotzen dutenak, aurkezteko erabilitako eskala.

II.1.1. EUSKARAZKO IRAKURMENEKO EMAITZAK LEHEN HEZKUNTZAKO 6. MAILAN ETA DBH-KO 3. MAILAN IKASTETXEEN TIPOLOGIAREN ARABERA.

II.1.1.a grafikoa nahitaezko bi etapetan garatu den esperimentazio-prozesuaren hirugarren eta azken neurketan parte hartu duten ikasle guztien Euskarazko irakurmeneko emaitzak jaso dira.

II.1.1.a. grafikoa. HMM. Euskarazko irakurmena PISA eskalan. Lehen Hezkuntzako 6. maila eta DBHko 3. maila.



A) Lehen Hezkuntzako 6. maila

II.1.1.a grafikoa ikusi ahal izan dugun moduan, Txosteneko I. atalean I. HMMko talde esperimentaleko Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleak ziren kompetentzia horretan puntuazio baxuena lortzen zutenak atal honetan aztertutako hiru taldeetako (I. HMM, II. HMM eta I. HMMko Kontrola) guztien artean; aldiz, II. HMM talde esperimentala gainerakoen gainetik zegoen. Gogoratu beharrekoa da 3.2.1.a grafikoa jasotzen den moduan, bi talde esperimentalen artean %20ko aldea dagoela ikastetxe mota bakoitzean eskolatutako D ereduko ikasleen artean.

II.1.1.a grafikoko informazioan II. HMMko bi kontrol-taldearen emaitzak gehitu dira (curriculumean ingeles gehiago edo gutxiago dutenak), eta horietan, bi talde esperimentalen eta I. HMMko kontrol-taldearen gainetik daudela ikus daiteke. Kontrola + ingelesa duen taldea nabarmentzen da batez ere, haren puntuazioa gainerako taldeena baino altuagoa baita. 3.2.1 atalean ikusi dugun moduan, kontrol-talde horretako ikasleen % 67,3 D ereduan eskolatuta dago, batez ere itunpeko sarean, beraz, zati batean, emaitza horiek interpretatzen lagun dezake horrek.

Nazioarteko ISA laginaren emaitza 406 puntutan dago maila horretan; I. HMM talde esperimentalarena baino maila altuagoan dagoen bakarra da eta I. HMMko kontrol-taldearen emaitzatik oso gertu dago, baina gainerako taldeena baino baxuagoa da.

B) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila

Bigarren Hezkuntzako talde esperimentaleko ikasleen kasuan, egoera Lehen Hezkuntzan ikusitakotik oso desberdina da, II. HMMko kontrola + ingelesa duen taldeak soilik baititu puntuazioak talde esperimentalekoen gainetik. Bi talde esperimentalen puntuazioen artean II puntuko aldea dago, I. HMMko talde esperimentalen mesedetan. Besteak beste, II. HMM talde esperimentalean, I. HMM talde esperimentalean baino D ereduan eskolatutako % 20 ikasle gutxiago dagoelako izan daiteke hori, Txosten honetako 3.2 atalean azalduta ikus daitekeen moduan.


Talde esperimentalek eta II. HMMko Kontrola+ingelesa duen taldeak lortutako puntuazioa PISA 2012ko ELGAko batez bestekoaren (496 puntu), Euskadikoaren (498 puntu) eta Espainiakoaren (488 puntu) gainetik dago, PISA ebaluazioan (15 urte) parte hartzen duten ikasle gehienak baino maila bat baxuagoan eskolatuta egon arren.

Gainera, I. HMM talde esperimentala maila honetan nazioarteko ISA laginak lortutako mailetatik oso gertu dago (I. HMMn 512 puntu; ISA laginak, aldiz, 515 puntu) eta II. HMMko Kontrola +ingelesa taldeak nabarmen gainditzen ditu.

II.1.2. GAZTELANIAZKO IRAKURMENEKO EMAITZAK LEHEN HEZKUNTZAKO 6. MAILAN ETA DBH-KO 3. MAILAN IKASTETXEEN TIPOLOGIAREN ARABERA.

A) Lehen Hezkuntzako 6. maila

Hurrengo grafikoan ageri dira aztertutako bost talde moten *Gaztelaniazko irakurmeneko* emaitzak.



Puntuazio guztiak oso gertu daude, 18,6 puntuko aldea da handiena, I. HMM kontrol-taldearen eta II. HMM Kontrola +ingeleza taldearen artean, hain zuzen ere. Gainerako taldeen artean aldeak askoz txikiagoak dira. Emaitza horien dimentsioa hautematen laguntzen duen datu bat da nazioarteko ISA laginaren puntuazioa 406 puntukoa dela, HMM ebaluazioan parte hartzen duten taldeen batez bestekoa baino 50 puntu gutxiagokoa.


B) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailan, aurreko konpetentzian deskribatutakoaren nahiko antzekoa da egoera: Talde esperimentalen gaineratik II. HMMko Kontrola+ingeleza duen taldea soilik dago. Taldeen puntuazioen arteko distantzia Lehen Hezkuntzan ikusitakoa baino handixeagoa da; hain zuzen ere puntuazio altuenaren eta baxuenaren arteko aldea 38 puntutara iristen da (I. HMMko kontrol-taldearen eta II. HMMko kontrola+ingeleza duen taldearen artean).

Euskararen kasuan ikusi genuen moduan, talde guztiak gainditzen dute ELGAko batez besteko puntuazioa (496), Euskadikoa (498) eta Espainiakoa (488) 2012ko PISAn. Era berean, talde guztien puntuazioa, I. HMMko kontrol-taldearena izan ezik, nazioarteko ISA laginaren batez bestekoaren gainetik dago.

II.1.3. MATEMATIKARAKO KONPETENTZIAKO EMAITZAK LEHEN HEZKUNTZAKO 6. MAILAN ETA DBH-KO 3. MAILAN IKASTETXEEN TIPOLOGIAREN ARABERA.

Hurrengo grafiko honetan adierazita datoz ebaluazio honetan neurtutako bost talde moten *Matematikarako konpetentziako* emaitzak.



A) Lehen Hezkuntzako 6. maila

Lehen Hezkuntzan puntuazioen arteko distantzia ez da 9 puntutatik pasatzen, II. HMMhko kontrola+ingeleza taldearen kasuan izan ezik, distantzia handiagoa baitu, 427 punturekin. Konpetentzia honetan, aurretik bi hizkuntzekin ikusi ez dugun bezala, nazioarteko ISA laginaren batez besteko puntuazioa (457 puntu) nabarmen handiagoa da HMMh aztertutako 5 talde motena baino. Aldea 57 puntukoa da I. HMMhko talde esperimentalarekin, eta 30 puntukoa II. HMMhko kontrola+ingeleza taldearekin.


B) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako maila honetan, puntuazio-aldeak nabarmen handitzen dira: II. HMMhko kontrola+ingeleza taldearen eta I. HMMhko kontrol-taldearen artean 84 puntu baino gehiagoko tarte dago. Talde esperimentalen artean aldea oso txikia da, 3 puntu eskasekoa.

Bi taldek (II. HMMhko nahitaezko ingeleza duen kontrol-taldea eta I. HMMhko kontrol-taldea) ez dute gainditzen 2012ko PISAn Euskadik lortutako batez besteko puntuazioa (505 puntu). ELGAko batez bestekoa (494 puntu) talde guztiak gainditzen dute, I. HMMh kontrol-taldea izan ezik. Nazioarteko ISA laginaren batez bestekoari dagokionez (539 puntu) II. HMMhko kontrola+ingeleza taldeak soilik gainditzen du.

III.1.4. INGELESEZKO HIZKUNTZA KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIAKO EMAITZAK LEHEN HEZKUNTZAKO 6. MAILAN ETA DBHKO 3. MAILAN IKASTETXEEN TIPOLOGIAREN ARABERA.

HMMhko bi deialdietan ebaluazio honetan egindako azken aplikazioan neurtutako bost talde moten Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzak datoz jasota hurrengo grafiko honetan.



A) Lehen Hezkuntzako 6. maila

Txostenaren I. atalean ikusi ahal izan dugun moduan, I. HMHko talde esperimentaleko Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleak ziren kompetentzia horretan puntuazio altuena lortzen zutenak atal honetan aztertutako hiru taldeetako (I. HMH, II. HMH eta I. HMHko Kontrola) guztien artean; aldiz, II. HMH talde esperimentala tarteko lekuan zegoen.

II.1.4.a grafikoaren informazioan II. HMHko bi kontrol-taldeetako emaitzak gehitzen dira (curriculumean ingeles gehiago edo gutxiagorekin). Ikus daiteke II. HMHko kontrola+ingelese duen taldea bi talde esperimentalen gainera dagoela, baina aldea ez da adierazgarria I. HMHko talde esperimentalaren eta II. HMHko kontrola+ingelese taldearen artean. II. HMHko talde esperimentalek eta kontrola+ingelese taldeak errendimendu nabarmen handiagoak lortzen dituzte curriculumean ingelesaren presentzia zabaltzen ez duten kontrol-taldeekin alderatuta.

Azken batean, elkarren artean alde adierazgarriak dituzten emaitzei dagokienez hiru egoera izango genituzke: alde batetik, I. HMHko talde esperimentala eta kontrola+ ingelese taldea; beste alde batetik, II. HMHko talde esperimentala, eta azkenik, beste bi kontrol-taldeak.

B) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila

Bigarren Hezkuntzako talde esperimentaleko ikasleen kasuan, egoera itxura batean Lehen Hezkuntzan ikusitakotik oso antzekoa da, II. HMHko kontrola + ingelese duen taldeak soilik baititu puntuazioak talde esperimentalekoen gainera.

Bi talde esperimentalen artean, puntuazioaren aldea ez da adierazgarria, baina bi talde horiek estatistikoki errendimendu baxuagoa dute kontrola+ingelese taldeak baino; horrek 50 puntu inguruko aldea baitu. Bi kontrol-taldeek emaitza nabarmen baxuagoak lortzen dituzte ebaluatutako beste hiru ikastetxeekin alderatuta.

II.2. ZEHARKAKO ALDAGAIK

Jarraian, zeharkako deitu diegun bost aldagairen azterketa dator. HMM esperimentazio-prozesuan parte hartu duten ikasleen ezaugarriak eta emaitzak beste errolda-ebaluazio batzuetan (Ebaluazio diagnostikoan, esaterako) eskuragarri dauden emaitzekin edo lagin adierazgarriekin (PISA ebaluazioaren kasuan bezala) koherenteak diren jakiten lagunduko digu horrek. Hala izanez gero, Txostenaren atal honetan aztertzen diren gainerako aldagaien azterketan lortutako ondorioak sendoagoak izan daitezke eta euskal hezkuntza-sistema osora zabaltzeko arriskua txikiagoa izan daiteke.

Ikusiko dugun moduan, zeharkako aldagai gehienek ez dute informazio adierazgarririk ematen orokortzeko modukoak diren ondorioei dagokienez edo ezin dira kontuan hartu gainerako sistemarako proposamen edo irizpide gisa; izan ere, horietako batzuk aldagai indibidualak edo familia-aldagaiak dira (sexua, familiaren jatorria, aitaren eta amaren ikasketak), eta ikastetxeak ez du aukerarik horietan eragiteko edo horiek aldatzeko. Beste bi aldagaiek (ikasmailarekiko adin-egokitasun egoera eta nota akademikoen eta HMM ebaluazioko emaitzen arteko korrelazioa) badute lotura ikastetxean garatutako hezkuntza-prozesuekin, baina horiek ere ez digute HMM esperimentazio-prozesuari buruzko ondorio adierazgarririk ematen.

HMM ikasleen eta ebaluazio diagnostikoko ikasleen emaitzak alderatzeko, kontuan hartu behar da eskala desberdina dela. HMMn batez bestekoa 500 eta desbideratze tipikoa 100 duen eskala erabiltzen da. Ebaluazio diagnostikoan batez bestekoa 250 da eta desbideratze tipikoa 50. Gainera, hizkuntza-kompetentzietan, euskarazkoan eta gaztelaniazkoan, puntuazioa Ebaluazio diagnostikoan bi dimentsioren emaitza da (entzumena eta irakurmena), eta aldiz HMMn, irakurmena soilik neurtu da.

II.2.1. EMAITZAK IKASLEEN SEXUAREN ARABERA

A) Lehen Hezkuntzako 6. maila

Ikasleen sexuaren araberako emaitzetan, neskek emaitza nabarmen altuagoak lortzen dituzte mutilek baino, bai *Euskarazko irakurmenean*, bai *Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian*. Hala ere, ez dago alderik *Gaztelaniazko irakurmenean*. *Matematikarako kompetentzian*, mutilen errendimendua nabarmen handiagoa da neskena baino.

Hurrengo taula honek Lehen Hezkuntzako 6. mailako neska-mutilek ebaluatutako kompetentzia bakoitzean lortutako puntuazioa erakusten du, baita aldean adierazgarritasuna ere.

Ikaslearen sexuaren arabera ebaluatutako kompetentzietan lortutako puntuazioak.				
Kompetentziak	Nesakak	Mutilak	Aldea	Adierazgarritasuna
<i>Irakurmena euskaraz</i>	417	401	16	Bai
<i>Irakurmena gaztelaniaz</i>	462	463	1	Ez
<i>Ingelesezko hizkuntza-komunikazioa</i>	410	391	19	Bai
<i>Matematikarako kompetentzia</i>	400	418	18	Bai

Bai: % 95eko alde adierazgarria

Aurreko datuetan ikusten den moduan, alderik handiena *Euskarazko eta ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziari* dagozkion puntuazioetan gertatzen da; hain zuzen ere, neskek 16 eta 19 punturekin gainditzen dituzte mutilak, hurrenez hurren. *Matematikarako konpetentzian*, mutilen taldeak neskenak baino 18 puntu gehiago lortzen ditu eta alde hori ere adierazgarria da.

B) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila

DBHko 3. mailako sexuaren arabera ikasleen emaitzak ere antzekoak dira: Neskek emaitza nabarmen altuagoak dituzte mutilek baino, bai *Euskarazko irakurmenean*, bai *Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*. Aldiz, aldea oso txikia da eta ez da adierazgarria *Gaztelaniazko irakurmenean*. Era berean, *Matematikarako konpetentzian*, mutilen errendimendua nabarmen handiagoa da neskena baino.

Hurrengo taula honek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailako neska-mutilek ebaluatutako konpetentzia bakoitzean lortutako puntuazioa erakusten du, baita aldean adierazgarritasuna ere.

Ikaslearen sexuaren arabera ebaluatutako konpetentzietan lortutako puntuazioak.				
Konpetentziak	Nesak	Mutilak	Aldea	Adierazgarritasuna
<i>Irakurmena euskaraz</i>	515	495	20	Bai
<i>Irakurmena gaztelaniaz</i>	538	534	4	Ez
<i>Ingeleseko hizkuntza-komunikazioa</i>	505	486	19	Bai
<i>Matematikarako konpetentzia</i>	503	520	17	Bai

Bai: % 95eko alde adierazgarria

Alde zabalenak *Euskarako irakurmenean* eta *Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren* puntuazioen artean daude; neskek mutilek baino 20 puntu gehiago ateratzen dituzte. *Matematikarako konpetentzian*, mutilen taldeak neskenak baino 17 puntu gehiago lortzen ditu eta alde hori ere adierazgarria da.


Ondorioz, bai Lehen Hezkuntzan, bai DBHn, HMM proiektuko ebaluazioan lortutako emaitzen joera erabat koherentea da beste neurketa batzuetan, hala nola Ebaluazio diagnostikoan edo PISA ebaluazioan, aldagai berberarekin ikusitako emaitzekiko; horietan ere neskek errendimendu hobea dute eta mutilak nabarmentzen dira *Matematikarako konpetentzian*.

II.2.2. EMAITZAK ADIN-EGOKITASUNAREN ARABERA

A) Lehen Hezkuntzako 6. maila

Puntuazioan sartuta dauden Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasle gehienak adinaren arabera dagokion ikasmilan eskolatuta daude, % 9,64 soilik da lehenago jaio eta adin egokiarekiko urtebeteko atzerapena duena. Atzerapen hori, normalean, ikasmilaren bat errepikatu delako edo urtebete geroago eskolatu delako gertatu ohi da. Ikasle horiek, konpetentzia guztietan, adin-egokitasun egoeran daudenek baino emaitza nabarmen baxuagoak lortu dituzte.

Talde horiek ebaluatutako konpetentzietan lortutako batez besteko puntuazioak hurrengo grafikoan ageri dira.



Adin-egokitasun egoeran dauden ikasleek lortutako puntuazioaren eta erreferentziazko urtea baino lehen jaiotakoek lortutakoen arteko alde nabarmenenak honako hauetan gertatzen dira: *Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*, 89 punturekin; *Matematikarako konpetentzian*, 84,3 punturekin, eta *Euskarazko irakurmenean*, 69 puntuko aldearekin. Aldea nabarmen murrizten da *Gaztelaniazko irakurmenean*, 46,6 punturekin.

Emaitzen aldeak adierazgarriak dira konpetentzia guztietan; hau da, adin-egokitasun egoeran dauden ikasleek aurreko urtean jaio eta maila berean daudenek baino emaitza askoz hobekak lortu dituzte.


4 2013ko Ebaluazio diagnostikoan ez adin-egokitasun egoeran zegoen Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen ehunekoa % 9,1ekoa zen.

B) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila

Ebaluazio honetan parte hartu duten DBHko 3. mailako ikasleen ia % 92 adinaren arabera dagokion ikasmilan eskolatuta dago. % 8,15 soilik da lehenago jaio eta dagokion adinarekiko urtebeteko edo biko atzerapena duena. Atzerapen hori, Lehen Hezkuntzako ikasleen kasuan bezala, batez ere ikasmila errepikatu duelako edo beranduago eskolatu delako gertatu ohi da. Ebaluazio guztietan gertatzen den moduan, ikasle horiek, konpetentzia guztietan, adin-egokitasun egoeran daudenek baino emaitza nabarmen baxuagoak lortu dituzte.

Talde horiek ebaluatutako konpetentzietan lortutako batez besteko puntuazioak hurrengo grafikoan ageri dira.

II.1.2.b. grafikoa. HMM. DBHko 3. maila. Konpetentzietako emaitzak, adinaren arabera dagokion adin-egokitasun mailaren arabera.



Lehen Hezkuntzako 6. mailan gertatzen zen moduan, distantzia handienak *Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* gertatzen dira, 93 punturekin; *Matematikarako konpetentzian* ere aldea handia da, 60 puntukoa. *Euskarazko irakurmenean* 48 puntuko distantzia dago. Aldea nabarmen murrizten da *Gaztelaniazko irakurmenean*, 24 punturekin.

Emaitzen aldeak adierazgarriak dira konpetentzia guztietan; hau da, adin-egokitasun egoeran dauden ikasleek lehenago jaiotakoek baino emaitza askoz hobekak lortu dituzte.

Ondorio hori bat dator bai Lehen Hezkuntzan, bai Bigarren Hezkuntzan, Ebaluazio diagnostikoarekin eta beste ebaluazio batzuekin, hala nola PISA eta TIMSS ebaluazioekin.


5 2013ko Ebaluazio diagnostikoan, adin-egokitasun egoeran zegoen DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoa % 19koa zen; HMM ebaluazioan DBHko 3. mailako ikasleen artean jasotakoa baino askoz ehuneko altuagoa.

II.2.3. EMAITZAK IKASLEEN FAMILIAREN JATORRIAREN ARABERA

A) Lehen Hezkuntzako 6. maila

HMH esperientziaren bi deialdietan hirugarren neurketan parte hartu zuten 4.041 ikasleen artetik, 207 ikasle etorkinak ziren, hau da, ebaluatutako populazio guztiaren % 5,1. Ehuneko hori oso koherentea da Lehen Hezkuntzan ebaluatutako ikasmailaren bateko etorkinen eskola-populazio osoarekin alderatuz gero. 2013an Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleei aplikatutako azken Ebaluazio diagnostikoan, adibidez, etorkinen eskola-populazioa % 5,5ekoa zen.

Hurrengo grafikoan bertako ikasleek eta ikasle etorkinek ebaluatutako lau konpetentzietan lortutako puntuazioa jasotzen da, baita bi taldeetako bakoitzak ordezkatzan zuten ehunekoak ere.




Ohikoa den moduan, ikasle natiboek puntuazio nabarmen altuagoak lortzen dituzte konpetentzia guztietan, baina emaitzak asko aldatzen dira konpetentzia batzuetatik besteetara. Konpetentzietako hirutan (euskara, matematika eta ingelesa) distantzia 50 puntukoa edo handiagoa da, 62 puntutara ere iristen da *Euskarazko irakurmenean*. *Gaztelaniazko irakurmenean* soilik murrizten dira aldeak nabarmen, 17 puntu, nahiz eta aldeak adierazgarria izaten jarraitzen duen.

B) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila

DBHko 3. mailan, HMMhko laginean etorkina zen ikasleen ehunekoak % 3,6koa zen, 2013ko ebaluazio diagnostikoan parte hartu zuten DBHko 2. mailako ikasleen artean jasotakoa baino askoz baxuagoa, orduan % 8,3koa baitzen. Beraz, badirudi HMMn ikasle etorkinen ehunekoak Lehen Hezkuntzan ikusi dugun populazio osoarekin alderatuta ez dela adierazgarria.

Jarraian, *II.2.3.b grafikoaren* bidez, hiru hizkuntza-kompetentzietan eta *Matematikarako kompetentzian* ikasle natiboek eta etorkinek lortutako puntuazioak datoz adierazita.

II.2.3.b. grafikoa. HMM. DBHko 3. maila. Kompetentzietako emaitzak ikasleen jatorriaren arabera (natiboa edo etorkina).



Hiru kompetentzietan, ikasle natiboen eta etorkinen arteko puntuazio-aldeak adierazgarriak dira: ia 35 puntu *Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian*; 28 puntu baino gehiago *Euskarazko irakurmenean* eta 23 puntu *Matematikarako kompetentzian*. *Gaztelaniazko irakurmenaren* kasuan soilik ez da adierazgarria aldea, puntu batekoa baita. Alde horiek 2013ko ebaluazio diagnostikoan DBHko 2. mailako ikasleen artean ikusitakoak baino askoz txikiagoak dira (46 puntu euskaraz edo 21 puntu gaztelaniaz). Horrek berriz ere berresten du hirugarren mailako HMM ikasle etorkinek itxuraz ez dituztela antzeko mailetako populazio etorkinen erroldak dituen ezaugarriak.

Ondorioz, ikasleen jatorriaren araberako azterketak (natiboa edo etorkina) adierazten digu ikasle etorkinen HMM laginak joera desberdina duela ebaluatutako maila bakoitzean: Lehen Hezkuntzako 6. mailan, joera beste ebaluazio batzuetatik eskuragarri ditugun datu eta ehunekoekin koherentea da; DBHko 3. mailan, aldiz, erroldako ikasle etorkinak gutxiago islatzen dira.

Edonola ere, emaitzen joera beste ebaluazio batzuetan ikusitakoaren oso antzekoa da, ikasle natiboek puntuazio nabarmen hobeak lortzen dituzte etorkinekin alderatuta.

II.2.4. EMAITZAK FAMILIAKO IKASKETA MAILAREN ARABERA

Alderdi sozio-ekonomiko eta kulturalen eragina datu bakarra kontuan hartuta neurtu da, aitaren eta amaren ikasketei buruz familiek emandako informazioa oinarri hartuta, hain zuzen ere. Beste informaziorik gabe, ezin izan da maila sozio-ekonomiko eta kulturalari (ISEK) buruzko indizea sortu. Edonola ere, orain arte egindako azterketetan argi geratu da gurasoen ikasketa mailak eragin argia duela ikaslearen emaitzetan.


Ikasketa mailaren inguruko aldagai hori lau taldetan sailkatu da: derrigorrezko hezkuntza amaitu dutenak (oinarrizko ikasketak); DBH edo ikasketa baliokidea amaitu dituztenak; Batxilergoa edo Lanbide Heziketa amaitu dutenak eta unibertsitateko ikasketak amaitu dituztenak.

A) Lehen Hezkuntzako 6. maila

II.2.4.a grafikoa HMMn Lehen Hezkuntzako 6. mailan ebaluatutako ikasle guztien ehuneko orokorrak ageri dira, familien ikasketen arabera. Era berean, esperientzia honetako ebaluazioan aztertutako ikastetxe motetako bakoitzari dagozkion datuak aurkezten dira.

Datu orokorrek adierazten dute ebaluatutako populazioaren erdia inguru zela aitak edo amak unibertsitate-ikasketak zituzten familia batekoa. Aldiz, % 2ren gurasoek oinarrizko ikasketak amaitu gabe zituzten.


Ebaluazio diagnostikoan eskuragarri ditugun datuekin alderatuta, unibertsitate-ikasketadun gurasoak zituzten HMMko ikasleen ehunekoa nabarmen handiagoa da (% 15 baino gehiago) Lehen Hezkuntzako 4. mailako erroldarekin alderatuta, eta oso antzekoa Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasketekin lotuta.



Ikastetxe moten arabera, askotariko egoerak daude: I. HMM eta II. HMM talde esperimentalek antzeko ehunekoak dituzte, baina ingeles-orduak ugaritzen ez dituzten haien kontrol-taldeek unibertsitate-ikasketadun familien ehuneko txikiagoa dute. Gainerakoen gainetik nabarmentzen

da II. HMMko kontrola+ingelesa taldea, unibertsitate-ikasketadun familien ehuneko altuagoa eta ikasketarik gabeko ia familiarik gabe.

II.2.4.b grafikoan jasota dator ikasleen familiak lortutako ikasketa mailaren eta ebaluatutako kompetenzietako bakoitzean lortutako puntuazioen arteko lotura.



Ikus daiteke lotura argia dagoela familiako ikasketa mailaren eta ebaluatutako kompetentzia guztietako emaitzen artean: zenbat eta ikasketa maila handiagoa, orduan eta emaitza hobeak. Kompetentzia guztietan aldeak adierazgarriak dira familiako ikasketa multzo bakoitzaren artean, *Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* izan ezik, kasu horretan, familiako ikasketa maila baxueneko bi taldeen arteko emaitzak ez baitira adierazgarriak.

Euskarazko irakurmeneko emaitzen joera desberdina da goi mailako ikasketak dituzten bi multzoetan gainerako kompetentziek duten joerarekin alderatuta; izan ere, batxilergoko/Lanbide Heziketako ikasketak dituzten familietako ikasleen eta unibertsitate-ikasketak dituzten familietako ikasleen arteko aldea 25 puntu baino gehiagokoa da eta, *Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian*, esaterako, 50 puntutaraino iristen da. Aldiz, euskarazkoan unibertsitate-ikasketadun familien multzoan puntuazioa ez da hainbeste igotzen eta distantzia 8,6 puntutan geratzen da.


B) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila

II.2.4.c grafikoan maila honetan HMMn ebaluatutako ikasle guztien familiako ikasketen arabeko ehuneko orokorrak datoz adierazita. Era berean, ebaluazioan aztertutako ikasketxe mota bakoitzean eskolatutako ikasleen ehunekoak ikus daitezke.

Orokorrean, ebaluazio honetan parte hartutako ikasleen % 60 ingururen gurasoek unibertsitate-ikasketak zituzten; aldiz, % I ziren oinarrizko ikasketak amaitu gabe zituzten gurasoak. Datu horiek adierazten dute maila honetako ikasleek HMMko Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek baino maila soziokultural handiagoa dutela.

2013ko Ebaluazio diagnostikoan ebaluatutako DBHko 2. mailako erroldan unibertsitate-ikasketadun familien ehunekoa argi eta garbi gairitzen dute datu horiek, % 30 ingurukoa zen orduan.


II.2.4.c. grafikoak. HMM. DBHko 3. maila. Ikastetxe bakoitzeko ikasleen ehunekoak familiako ikasketen arabera.



Ikastetxeen tipologiaren arabera, Lehen Hezkuntzan ikusitakoak baino alde handiagoak daude: nabarmentzekoa da II. HMMko kontrola +ingelesa duen taldeko familien % 74 dela unibertsitate-ikasketaduna, eta I. HMM eta II. HMM talde esperimentaletan unibertsitate-ikasketadun familien ehunekoa kontrol-taldekoena baino ia 20 puntu gehiagokoa da.

II.2.4.d grafikoan ikus dezakegu familiako ikasketa mailen lau multzoetan ikasleen ehunekoak duen banaketa, baita ebaluatutako lau konpetentzietan ikasleek lortutako emaitzak ere.

II.2.4.d. grafikoak. HMM. DBHko 3. maila. Konpetentzietako emaitzak gurasoen ikasketen arabera.



Beste aldagaietan lehen ikusi dugun moduan, DBHko 3. mailan *Gaztelaniazko irakurmeneko* emaitzak askoz txikiagoak dira gainerako konpetentzietan baino; hain zuzen ere, ez dago

puntuazio-alderik familiako ikasketa maila baxueneko bi taldeen artean. Gainerako kompetentzietan ikus daiteke, ohikoa den moduan, familiako ikasketen mailak gora egin ahala puntuazioek ere gora egiten dutela, bereziki *Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian*; hain zuzen ere, ia 100 puntuko distantzia dago familiako ikasketen maila baxuenaren eta altuenaren artean. Edonola ere, kompetentzietako batean ere ez dago alde adierazgarririk baxueneko bi mailen artean (oinarrizko ikasketak amaitu gabe eta derrigorrezko ikasketak amaituta), funtsean oso ikasle gutxi direlako (1.608ren artetik 24) oinarrizko ikasketak amaitu gabe dituztela dioten familietako ikasleak. Aldagai honetan ezarritako gainerako taldeen artean bai, aldeak adierazgarriak dira.

Ondorioz, bai Lehen Hezkuntzan, bai DBHn, aldagai honen funtzionamendua ohikoa da beste azterketa eta ebaluazio batzuetan, baina, adierazi dugun moduan, ikasketa maila bakoitzeko familien ehunekoa, bereziki unibertsitate-ikasketetako, ez da etapa hauetan beste maila batzuetan populazioko errolda osoarekin lan egiten denean topa dezakeguna.

II.2.5. IKASGELAKO KALIFIKAZIOEN ETA HMM EBALUAZIOKO EMAITZEN ARTEKO KORRELAZIOA

Ikasgelan ikasleek dituzten kalifikazioen eta HMM esperientziaren ebaluazioan lortutako puntuazioen artean loturarik badagoen aztertzea da azterketa honen helburua. Matematikaren arloa hartu da oinarrizko erreferentzia gisa bi puntuazioen artean lotura ezartzeko, hizkuntzari lotuta “kutsadura” gutxien duelako. Hala ere, ebaluatutako gainerako konpetentzietako informazioa ere eman dugu, ikusitako joera orokorra adierazita.

Ikasgelako puntuazio akademikoetako buruzko informazioa ikasleen galdetegitik jaso zen, baina ezin izan da akta akademikoetako informazio errealearekin alderatu. Hala ere, lortutako datuak kontuz hartu beharrekoak izanik ere, datu orokorrak erabilia, litekeena da errealtatetik oso gertu ibiltzea.

Bai Lehen Hezkuntzan, bai DBHn, lau konpetentzietako HMM puntuazioen eta dagokion arloko puntuazio akademikoaren arteko korrelazioa beti positiboa da. Hala ere, korrelazio hori dezentez altuagoa da Lehen Hezkuntzan (0,529 matematikan, 0,508 ingelesean eta 0,430 euskarari) eta txikiagoa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Etapa honetan, matematikan izan ezik (0,497ko korrelazioarekin), gainerako kasuetan dezentez baxuagoa da (0,199 euskarari edo 0,120 gaztelanari).

Hurrengo grafikoetan, hainbat datu daude:


- alde batetik, bost kalifikazio akademikoetako bakoitza lortutako ikasleen ehunekoa
- beste alde batetik, bost kalifikazio horietako bakoitzean sartutako ikasleek lortutako *Matematikarako konpetentziako* batez besteko puntuazioa, emaitzen hiru lerro berezita, hau da, HMMko lagin osoari eta I. HMM eta II. HMM laginei dagozkienak.

A) Lehen Hezkuntzako 6. maila

II.2.5.a grafikoan ikus daitezkeen moduan, Lehen Hezkuntzako 6. mailako HMM lagin osotik % 4k soilik dio ez duela matematika gainditu, eta aldiz % 65ek dio oso ongi edo bikain atera duela. Nota akademikoaren multzo horietako bakoitzaren puntuazioei begiratu gero, ikus dezakegu HMM ebaluazioan puntuazioen igoera argia dagoela nota akademikoan gora egin ahala. Emaitzen multzoen arteko aldea adierazgarria da kasu guztietan, eta horrek adierazten du, oro har, *Matematikarako konpetentzia* neurtzeko aplikatutako HMM proba koherentea dela ikastetxearen puntuazio akademikoarekin.

Gainera, HMMren bi deialdien joera desberdina dela ikus daiteke. Hori Txosten honetako aurreko azterketetan ere ikusi dugu. I. HMMn nota akademiko baxuenak dituzten ikasleek lortutako batez besteko puntuazioa II. HMMko ikasleek lortutakoa baino baxuagoa da, nahiz eta aldea *nahikoa* atera dutenen multzoan soilik den adierazgarria.

II.2.5.a. grafikoa. HMM. Lehen Hezkuntzako 6. maila. Matematikarako kompetentziako emaitzak, ikasgelako kalifikazioaren arabera.




Ebaluatutako gainerako konpetentzietan, puntuazioen joera *Matematikarako konpetentzian* ikusitakoaren antzekoa da, *Gaztelaniazko irakurmeneko* eta *Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako* Gutxiegi eta Nahikoa multzoen artean izan ezik; horien artean dagoen puntuazio-aldea ez da adierazgarria.

B) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila

DBHko 3. mailan, HMM ikasleen % 95ek gaintitu zuten matematika arloa, eta % 55 baino gehiago zen oso ongi edo bikain atera zuela zioena. *Matematikarako konpetentziako* puntuazioak gora egiten du kalifikazio akademikoak gora egin ahala eta aldeak adierazgarriak dira nota akademikoen multzo guztien artean.

I. HMM eta II. HMM deialdien arteko emaitzak alderatuta, II. HMM taldearen aldeko desberdintasun handiak ikus daitezke; izan ere, multzo guztietan emaitza nabarmen altuagoak lortzen ditu, *Nahikoa* eta *Ongi* taldeetan izan ezik.

Ebaluatutako beste konpetentzietan, *Matematikarako konpetentziarako* deskribatutako joera dago, nahiz eta hiru hizkuntza-konpetentzietan aldeak ez diren adierazgarriak nota akademiko baxueneko bi taldeen (gutxiegi eta nahikoa) artean.



Ondorioz, Lehen Hezkuntza nahiz DBHn aplikatutako HMH probak koherenteak dira ikastetxean bertan kompetentzia bakoitzarekin zuzenean lotutako arloetan egindako ikasleen kalifikazio akademikoarekin. Ikusi dugun moduan, kasu batzuetan eta bereziki hizkuntza-kompetentzietan, emaitza akademiko baxueneko bi multzoen artean aldeak ez dira adierazgarriak.

II. 3. HIZKUNTZA ALDAGAIK

Euskal hezkuntza-sisteman hizkuntza-aldagaien eragina erabakigarria da ikasleen emaitza batzuk azaltzeko garaian; hala ikusi dugu Ebaluazio diagnostikoaren emaitzetan edo parte hartu dugun estatu mailako nahiz nazioarteko ebaluazioetan.

HMM esperimentazio-proiektuaren helburu nagusiak hizkuntza-kompetentziak hobetzea eta, bereziki, atzerriko hizkuntzako komunikaziorako kompetentzia areagotzea dira. Beraz, hizkuntza-aldagaien azterketa giltzarria da Txosten honetan: emaitzetan hizkuntza arloko zer aldagaik eragiten duten zehaztea eta, ahal den neurrian, nola egiten duten jakitea, eta horrez gain, Txosten honetan aztertzen ari garen ikastetxe moten joera behatzea.

Aldagaietako batzuek kompetentzia batzuekin beste batzuekin baino lotura handiagoa duten arren, aldagai bakoitzaren azterketan hizkuntza guztietan eta *Matematikarako kompetentzian* duten eragina aurkeztu dugu, kasu bakoitzean joerak mantentzen diren edo desberdinak diren ikusteko edo egiaztatzeko.

Ikusiko den moduan, Txosteneko atal honetan ateratako ondorioetako batzuek esperientzia hau zabaldu nahi izanez gero oso kontuan hartu beharreko alderdiak eskainiko dizkigute. Beste kasu batzuetan, ondorioek 2014ko aurreko HMM txostenean esperientziaren lehen deialdiko emaitzekin aurkeztu genituen ondorioak berresteko balioko digute. Azkenik, aldagai batzuk berriak dira, esaterako, hizkuntzekiko jarrerarekin eta zailtasunaren pertzepzioarekin lotutakoak; horiek ikasleen hizkuntza-ezaugarriekin lotutako testuingurura eramango gaituzte.

Honako hauek dira atal honetan aztertutako aldagaiak:

- Emaitzak ikasleen familia-hizkuntzaren arabera: euskara edo euskara ez dena
- Emaitzak ingelesezko eskolaz kanpoko jarduerak egitearen arabera.
- Emaitzak ikasleek ikastetxean, gelan nahiz handik kanpo, duten euskararen erabilera orokorraren arabera.
- Emaitzak hizkuntza bakoitzean emandako orduen ehunekoaren arabera.
- Emaitzak hizkuntzen zailtasunaren balorazioaren eta pertzepzioaren arabera.

II.3.1. EMAITZAK IKASLEEN FAMILIA-HIZKUNTZAREN ARABERA

Atal honetan, ikasleen familia-hizkuntzak etapa bakoitzerako emaitzetan duen eragina aztertzen da. Bi multzo daude: alde batetik, familia-hizkuntza euskara duten ikasleak, eta bestetik, familia-hizkuntza beste bat duten ikasleak; Horiek gehienetan gaztelania izaten dute familia-hizkuntza, baina kasu gutxi batzuetan beste hizkuntzaren bat izan daiteke. Informazioa biltzeko, ikastetxeak emandako informazioaz gain, informazio hori biltzeko galdetegi bat erabili da eta hainbat irizpide komun aplikatu dira familia-hizkuntza identifikatzeko.

Gure sistemako aurreko ebaluazio batzuei esker, badakigu ikasleen familia-hizkuntzak eragin argia duela hizkuntza-konpetentzietako emaitzetan, bereziki euskararen kasuan, eta gainera, eskolatuta dagoen hizkuntza-ereduak ere eragiten du horretan. Hori dela eta, azterketaren zati handia alderdi horretan oinarrituta dago, ebaluatutako hiru hizkuntzetako bakoitzean emaitzen alde handienak non gertatzen diren antzeman nahian.

Era berean, orain arte egin diren eta hainbat ebaluaziok eta ikerlanek adierazi duten bezala, eta ISEI-IVEIk egindako lanetan hala berretsi da, bigarren hizkuntzaren ikaste-prozesuan dauden ikasleek ez dute jaiotzetiko hitzunen maila bera hizkuntza horretan, eta horrek eragin handia du bigarren hizkuntzan egiten dituzten probetako emaitzetan. Alderdi hori kontuan hartuta, esperientzia honen ebaluazio-prozesuaren hasieratik hizkuntzakoak ez ziren konpetentzietan (*Matematikarako konpetentzia* eta *Zientzia-kulturarako konpetentzia*) ikasleek probak familia-hizkuntzan egiteko erabakia hartu zen, hala, familia-hizkuntza eta ikaskuntza-hizkuntza bat ez zetozenean, bigarren hizkuntzan hizkuntza-konpetentzia baxuagoa izateak ez ziezaion eragin konpetentzia horretako emaitzetan.


A) Lehen Hezkuntzako 6. maila

Lehen Hezkuntzan neurtutako lagin guztia kontuan hartuta, talde esperimentalak nahiz kontrol-taldeak barne, ikasleen % 18,2k familia-hizkuntza euskara zuen, aldiz, gainerakoen, % 81,8ren, familia-hizkuntza ez zen euskara.

Hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan, ebaluazio-prozesu honetan parte hartu duten ikasle guztien emaitza orokorrak datoz jasota; ez dago joera uniforme konpetentzia guztietan familia-hizkuntzaren arabera. Batzuetan, hala nola *Gaztelaniazko irakurmenean*, aldagaiak badirudi ez duela eraginik, 1,4 puntuko alde minimoa ez baita adierazgarria. Beste kasu batzuetan, *Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*, esaterako, badirudi eragina txikia dela, 9 puntukoa soilik, baina aldea adierazgarria da euskal hitzunen multzoaren alde.

Ohikoa den moduan, *Euskarazko irakurmenean* dago alde handiena, 53,9 puntukoa. Alde hori azken ebaluazio diagnostikoan ikusitakoaren antzekoa da. Orduan, 2013an, aldea 27 puntukoa zen, baina batez bestekoa 250ekoa zen eskala batean (HMH eskala, aldiz, 500eko batez bestekoarekin eginda dago).


Matematikarako konpetentziaren kasuan, ikasleek proba familia-hizkuntzan erantzun duten arren, 15 puntuko aldea adierazgarria da. Agian kontuan hartu beharreko alderdia da familia-hizkuntza euskara ez duten ikasleengan ikasle etorkinek eragiten dutela; izan ere, ikasle natiboekin duten aldea 48 puntu baino gehiagokoa da, II.2.3.a puntuan ikusi dugun moduan.

II.3.1.a. grafikoa. HMM. Lehen Hezkuntzako 6. maila. Konpetentzietako emaitzak familia-hizkuntzaren arabera.

Jarraian, erdiguneko puntuaren inguruko balioak erakusten dituzten grafiko erradialen bidez, HMM ebaluazio honetan emaitzen ditugun bost ikastetxe moten (I. HMMko bi taldeak eta II. HMMko hiru taldeak) joera ikus dezakegu. Grafiko horiei esker, multzo bakoitzaren joera ikusi ahal izango dugu, aurretik orokorrean konpetentzietan ikusi dugun moduan, eta lagin-taldeetakoren batek joera jakina duen edo joera desberdina duen identifikatu ahal izango dugu.


II.3.1.b grafikoa familia-hizkuntzaren arabera Euskarazko irakurmenean izandako emaitza orokorrak nahiz aztertutako bost ikastetxe moten emaitzak datoz jasota. Orokorrean ikusitako alde adierazgarria kasu guztietan mantentzen da familia-hizkuntza euskara duten multzoaren alde. Aldeak handiagoak dira I. HMMko taldeetan, bai talde esperimentalean, bai kontrol-taldean. Nabarmena da, beraz, beste ebaluazio batzuetan ikusi dugun moduan, familia-hizkuntza itxuraz konpetentzia horretako emaitzetan eragin argia duen aldagaia dela.

II.3.1.b. grafikoa. HMH. Lehen Hezkuntzako 6. maila. Euskarazko irakurmeneko emaitzak HMH ikastetxeen tipologia bakoitzean, familia-hizkuntzaren arabera.




Gaztelaniazko irakurmenari dagokion grafikoa aurrekoaren oso desberdina da; izan ere, familia-hizkuntzen bi taldeen emaitzak islatzen dituzten lerroak ia elkarren gainean daude, aldeak oso txikiak dira eta ez dira adierazgarriak kasu bakar batean ere.

II.3.1.c. grafikoa. HMH. Lehen Hezkuntzako 6. maila. Gaztelaniazko irakurmeneko emaitzak HMH ikastetxeen tipologia bakoitzean familia-hizkuntzaren arabera.




Matematikarako konpetentzian ikusi dugu maila orokorrean aldea adierazgarria zela, halaxe da ikastetxe mota guztietan ere, I. HMHko talde esperimentalean izan ezik. Kasu guztietan familia-hizkuntza euskara duen multzoaren alde.

II.3.1.d. grafikoa. HMH. Lehen Hezkuntzako 6. maila. Matematikarako konpetentziako emaitzak HMH ikastetxeen tipologia bakoitzean familia-hizkuntzaren arabera.



Azkenik, Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian, maila orokorrean aldea txikia izanik ere adierazgarria dela kontuan hartuta, gainerako konpetentzietan baino egoera gehiago ikus daitezke: Ingeleseko presentzia handiagoa duten hiru taldeetan (I. HMHko eta II. HMHko talde esperimentalta eta II. HMHko kontrola+ingelesa) aldeak ez dira adierazgarriak, baina legediak ezarritako ingeleseko gutxieneko ordu kopurua ematen duten bi kontrol-taldeetan, familia-hizkuntzako bi taldeen puntuazioen arteko distantzia bai, adierazgarria da.

II.3.1.e. grafikoa. HMH. Lehen Hezkuntzako 6. maila. Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzak HMH ikastetxeen tipologia bakoitzean familia-hizkuntzaren arabera.



Ondorioz, aldagai horrek eragin handia du euskaran eta zertxobait txikiagoa matematikan; ia eraginik ez dute gaztelanian eta ingelesean eragina desagertu egiten da curriculumean ingeleseko ordu kopurua areagotzen denean. Horrek adierazi nahiko luke badirela emaitzetan familia-hizkuntzak duen eragina hobeto azaltzen duten beste aldagai batzuk.


B) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila

DBHko 3. mailan, familia-hizkuntza euskara duten ikasleak ebaluatutako populazio guztiaren % 12,3 ziren, Lehen Hezkuntzan baino heren bat gutxiago. Familia-hizkuntza euskara ez duten ikasleak ia % 88 dira. Hurrengo grafikoa bi hizkuntza multzo horiek lau kompetentzietan lortutako emaitzak datoz. Ikusiko dugun moduan, kompetentzien joera nahiko desberdina da Lehen Hezkuntzan ikusitakoarekin alderatuta.

Euskarazko irakurmena, Lehen Hezkuntzan gertatzen zen moduan, eta euskal hezkuntza-sistemako ebaluazio guztietan gertatzen den moduan, alde gehien dituen kompetentzia da, bi taldeen artean 34 puntu baino gehiago. Distantzia hori Lehen Hezkuntzan deskribatutakoa baino txikixeagoa da. Hori da familia-hizkuntza euskara duten ikasleek familia-hizkuntza euskara ez duten ikasleak gainditzen dituzten kompetentzia bakarra.

Gaztelaniazko irakurmenean, 6,6 puntuko aldea adierazgarria da, familia-hizkuntza euskara duen multzoaren mesedetan. Gauza bera gertatzen da *Matematikarako kompetentzian*. Kasu horretan, distantzia 13 puntukoa da, eta adierazgarria da. Azkenik, *Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* ere, 20 puntuko distantziarekin, aldea adierazgarria da, familia-hizkuntza euskara ez duen multzoaren alde.


II.3.1.f. grafikoa. HMH. DBHko 3. maila. Kompetentzietako emaitzak familia-hizkuntzaren arabera.



Emaitza orokor horiek ikus daitezke ebaluatutako konpetentzia bakoitzari dagozkion grafiko erradialetan ere. Horietan, ebaluazio honetan kontuan hartutako ikastetxe motetako bakoitzerako puntuazioak ageri dira.


II.3.1.g grafikoak Euskarazko irakurmeneko emaitzak biltzen ditu, eta erakusten du familia-hizkuntza euskara duten ikasleen multzoak guztietan gainditzen duela familia-hizkuntza euskara ez duten ikasleen multzoa.

II.3.1.g. grafikoa. HMH. DBHko 3. maila. Euskarazko irakurmeneko emaitzak HMH ikastetxeen tipologia bakoitzean familia-hizkuntzaren arabera.




Gaztelaniazko irakurmenean egoera gehiago daude: Bost ikastetxe motetatik bitan soilik (I. HMHko kontrol-taldea eta II. HMHko talde esperimentala) daude alde adierazgarriak familia-hizkuntzaren arabera bi multzoen artean, aldiz, beste hiruretan puntuazioen alde ez da adierazgarria. Konpetentzia honetan ez dago argi adierazitako bi multzoetan aldeak zergatik diren adierazgarriak.

II.3.1.h. grafikoa. HMM. DBHko 3. maila. Gaztelaniazko irakurmeneko emaitzak HMM ikastetxeen tipologia bakoitzean familia-hizkuntzaren arabera.



Matematikarako konpetentzian aldeak, oro har, adierazgarriak dira. Egoera desberdinak ageri dira ikastetxe moten artean, baina alde adierazgarriak II. HMMko talde esperimentalean eta I. HMMko kontrol-taldean soilik daude.


II.3.1.i. grafikoa. HMM. DBHko 3. maila. Matematikarako konpetentziako emaitzak HMM ikastetxeen tipologia bakoitzean familia-hizkuntzaren arabera.



Azkenik, Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian, oro har aldea adierazgarria den arren, Lehen Hezkuntzan ikusitakoa baino koherentzia gutxiago du egoerak. Orduko egoera

ingelesezko kompetentzia hobetzearekin lotzen genuen. Etapa honetan, familia-hizkuntzak badirudi ez duela eragiten I. HMMko talde esperimentalean eta II. HMMko bi kontrol-taldeetan (bi kasu horietan, familia-hizkuntza euskara duten ikasleen kopurua oso txikia da –57 eta 79–, eta beraz, estatistika-errorea oso altua da).

II.3.1.j. grafikoa. HMM. DBHko 3. maila. Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako emaitzak HMM ikastetxeen tipologia bakoitzean familia-hizkuntzaren arabera.



Ondorioz, etapa honetan, familia-aldagaiak eragin argia du *Euskarazko irakurmenean*, edozein izanik ere HMM talde mota. Baina gainerako kompetentzietan, I. HMMko kontrol-taldeetan eta II. HMMko talde esperimentalean soilik gertatzen dira emaitzetan alde adierazgarriak familia-hizkuntza euskara duten ikasleen multzoaren eta familia-hizkuntza euskara ez duten ikasleen multzoaren artean. Gainerako ikastetxe motetan, ez dago alde adierazgarririk ebaluatutako kompetentzietan.

II.3.2. EMAITZAK INGELESEZKO ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK EGITEAREN ARABERA

Normalean, eskolaz kanpoko jardueretara joateak korrelazio negatiboa du konpetentzietako emaitzekin; hau da, badirudi jarduera horietara batez ere eskatutako mailak lortzeko indargarria behar duen ikasleak joaten direla. Baina eskolaz kanpoko jardueretara joateak ingelesezko ikaskuntzarekin lotura duenean, puntuazioetan duen eragina positiboa da, eta horrek adierazten du, oro har, ingelesezko jarduera horietara joaten diren ikasleak hizkuntza hobeto ikasteko egiten duela, eta ez eskatutako minimoetara iristeko soilik. Oro har, esan liteke errendimendu ona duten ikasleek indartzen dituztela ikaskuntza horiek etxetik kanpo.


A) Lehen Hezkuntzako 6. maila

Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako proba egin zuten Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen artetik, % 45,8 ingelesezko eskolaz kanpoko jardueretara joaten dira. Jarduerak askotarikoak eta intentsitate desberdinetakoak dira. Ehuneko hori 2011ko Ebaluazio diagnostikoan galdera bera erantzun zuten Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen ehunekoarekin alderatuz gero, ikus dezakegu Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen artean % 15,8 gehiago direla. Baliteke ehunekoan alde hori, neurri batean, ikasleak zaharragoak izatearekin lotutakoa izatea (Lehen Hezkuntzako 4. eta 6. mailak).

Datu interesgarria izango litzateke ehuneko orokor horiek HMM ikastetxe moten artean nabarmen aldatzen diren ikustea; izan ere, badakigu beste ebaluazio eta ikerlan batzuei esker, jarduera mota horietara joateak emaitzetan adierazgarritasun estatistikoa duela. II.3.2.a grafikoa ingeleseko eskolaz kanpoko jardueretara joaten diren eta joaten ez diren ehunekoak daude.

Ikus daitekeen moduan, bi muturrak I. HMMko kontrol-taldearen eta II. HMMko kontrola+ingeleseko taldearen artean daude, eta elkarren artean % 10eko aldea dute. Hipotesi moduan, pentsa liteke HMMko talde esperimentaletan eskolatutako ikasleek kontrol-taldeen baino ehuneko altuagoak izan beharko litzuketela, baina hori ez da gertatzen. I. HMMko talde esperimentalaren eta kontrol-taldeen artean % 0,5eko aldea besterik ez dago, eta II. HMM talde esperimentalaren eta ingelesezko nahitaezko ordu kopurua soilik ematen duen kontrol-taldearen artean aldea % 3,8koa da.


II.3.2.a. grafikoa. HMM. Lehen Hezkuntzako 6. maila. Ingelesezko eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzen duten ikasleen ehunekoa HMM ikastetxeen arabera.



II.3.2.b grafikoak aldagai hori oinarri hartuta konpetentzietan lortutako emaitza orokorrak aztertzeko aukera ematen digu. Hainbat ondorio atera daitezke:

- Ingeleseko eskolaz kanpoko jardueretara joateak badirudi eragin argia duela *Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako* emaitzetan, 47 puntuko aldearekin, konpetentzia guztien artean alde handiena.
- Gainerako konpetentzietan, Matematikarako konpetentzia barne, hizkuntzari dagokionez kutsadura gutxien duena, jarduera mota horietara joaten diren eta joaten ez direnen emaitzen arteko aldea adierazgarria da kasu guztietan.
- Matematikaren arloko alde adierazgarri horrek adieraziko liguke, oro har, eskolaz kanpoko jarduera mota horietara joaten den ikaslea orokorrean ikasketetan ondo doan ikaslea dela, ikasketa akademikoetan gaitasun gehiago du, eskolaz kanpoko beste jarduera batzuetan, indargarriarekin lotura gehiago dutenetan, gertatzen ez den moduan.

II.3.2.b. grafikoa. HMM. Lehen Hezkuntzako 6. maila. Konpetentzietako emaitzak ingelesezko eskolaz kanpoko jarduerak egitearen arabera.




Jarraian, II.3.2.c grafikoan, HMM ikastetxe mota bakoitzerako emaitzak biltzen dira, aldagai hau oinarri hartuta. Ingeleseko eskolaz kanpoko jardueretara joaten direnen emaitzak beti altuagoak direla eta kasu guztietan aldea estatistikoki adierazgarria dela ikus dezakegu.

Baina ingelesezko eskolaz kanpoko jardueretara joaten den ikasle horrek lortutako puntuazioa HMM ikastetxe motaren arabera nabarmen aldatzen dela ere ikus dezakegu. Aldeak handiak izan daitezke, esaterako, I. HMMko talde esperimentalaren eta II. HMMko nahitaezko ingelese duen kontrol-taldearen artean 66,5 puntuko aldea dago. Talde esperimentalek dituzte, II. HMMko kontrola+ingelese taldearekin batera, puntuazio altuenak, eta aldiz, ingeles-orduak ugaritzen ez dituzten I. HMMko eta II. HMMko kontrol-taldeen emaitza nabarmen baxuagoak dituzte, eta hori hala gertatzen da jarduera mota horretara joaten direnen eta joaten ez direnen artean.

Grafiko horren irakurketatik ondorio garrantzitsua atera daiteke ingelesezko emaitzetan eragiten duten aldagaien inguruan:

- alde batetik, curriculumean ingelesaren presentzia-orduak areagotzeak eragin argia du puntuazioetan, orduak ugaritzen dituzten taldeek puntuazioetan alde handiak lortzen baitituzte ingeles-orduak ugaritzen ez dituzten kontrol-taldeekin alderatuta.
- eta bestetik, ingeleseko eskolaz kanpoko jardueretara joateak, ikusi dugun moduan ikasle horien kompetentzia akademiko orokor handiagoarekin oso lotuta dagoenak, badirudi eragin handia duela; izan ere, curriculumean ingeles-orduak ugaritzen ez dituzten baina hizkuntza horretako eskolaz kanpoko jardueretara joaten diren kontrol-taldeetako ikasleek jardura mota horietara joaten ez diren talde esperimentaleko ikasleek baino puntuazio altuagoak lortzen dituztela (408,5 puntu dituzte ingeleseko eskolaz kanpoko jardueretara joaten diren I. HMMko kontrol-taldeko ikasleek, eta hori ingeleseko eskolaz kanpoko jardueretara joaten ez diren I. HMMko talde esperimentaleko ikasleen emaitza baino 10 puntu gehiagokoa da. Gauza bera gertatzen da II. HMMren kasuan ere).

II.3.2.c. grafikoa. HMM. LHko 6. maila. Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako emaitzak ikastetxe mota bakoitzean, ingelesezko eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzearen arabera.




B) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila

HMM ebaluazioan parte hartu zuten DBHko 3. mailako ikasle guztien artetik, % 52,6k dio ingeleseko eskolaz kanpoko jardueretara joaten dela. 2011ko Ebaluazio diagnostikoan, kompetentzia bera ebaluatu zen eta DBHko 2. mailako ikasleei buruzko informazio bera bildu zen. Orduan, % 43,6 zen jardura mota horietara joaten zena. Lehen Hezkuntzan ikusitakoaren antzera, HMMn DBHko 3. mailan ebaluatutako ikasleen artean ere ingeleseko eskolaz kanpoko jardueretara joaten diren ikasleak % 10 inguru dira.

HMM ikastetxe motaren araberrako ehunekoak, II.3.2.d grafikoa ikus daitekeen moduan, adierazten du egoerak askotarikoak direla eta ez du ondorio argirik ematen. Lehen Hezkuntzan gertatzen zen moduan, ingeles-orduak ugaritu dituen II. HMMko kontrol-taldea da ehuneko handiena duena, % 65,5, aldiz, I. HMMko kontrol-taldeak du ingeleseko jardura horietan ikasleen ehuneko txikiena, distantzia handi samarrera, % 24,5, hain zuzen ere.


Hala ere, ez da ikusten talde esperimentalek dituztenik ikasleen ehuneko handienak; izan ere, ingeleseko nahitaezko ordutegia ematen duen II. HMMko kontrol-taldeak talde esperimentalek baino ehuneko altuagoa du eta ia I. HMMko kontrol-taldeak baino % 15 gehiago.



Edonola ere, normalean gertatzen den moduan, eskolaz kanpoko jardueretara joaten den ikasleak ingeleseko emaitza nabarmen altuagoak ditu joaten ez direnekin alderatuta. Maila horretan distantzia 32,3 puntukoa da, ebaluatutako konpetentzia guztien artean handiena, II.3.2.e grafikoan ikus daitekeen moduan.


Lehen Hezkuntzan gertatzen zen moduan, ingeleseko eskolaz kanpoko jardueretara joaten diren ikasleek ere errendimendu orokor handiagoa erakusten dute konpetentzia guztietan, bi taldeen arteko aldea estatistikoki adierazgarria baita kasu guztietan. Gogoan izan behar dugu HMMn ebaluatutako eskola-populazioaren erdiaz baino gehiagoz ari garela.

II.3.2.e. grafikoa. HMM. DBHko 3. maila. Konpetentzietako emaitzak ingelesezko eskolaz kanpoko jarduerak egitearen arabera.



Azkenik, II.3.2.f grafikoan HMM ikastetxe moten arabera emaitzak ageri dira, aldagai honetako bi taldeetan. Grafikoak, ikus daitekeen moduan, Lehen Hezkuntzako II.3.2.c grafikoan ikusitakoarekin alderatuta, oso irudi desberdina ematen du, eta ondorioz, atera daitekeen ondorioa desberdina da.

II.3.2.f. grafikoa. HMM. DBHko 3.maila. Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetenziako emaitzak ikastetxe mota bakoitzean, ingelesezko eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzearen arabera.



Bigarren Hezkuntzan badirudi emaitzetan eragin handiena duen aldagaia curriculumean ingeles-ordutegia zabaltzen duena dela, aldiz, ingeleseko eskolaz kanpoko jardueretara joateak Lehen Hezkuntzan ikusitakoa baino eragin txikiagoa du, baina, noski, badu eragina, ikasleen konpetentzia orokor hobe izatearekin lotuta dago gainera.

DBHn talde esperimental eta kontrol-talde guztiek, curriculumean ingeleseko ordutegia zabaltzen dutenek, puntuazio nabarmen altuagoak lortzen dituzte kontrol-taldekoenak baino, bai ingeleseko eskolaz kanpoko jardueretara joaten direnen artean, bai joaten ez direnen artean ere. Baina Lehen Hezkuntzan ikusitakotik datu bat desberdina da: Kontrol-taldeetan ingelesezko eskolaz kanpoko jardueretara joaten direnek puntuazioa nabarmen hobetzen duten arren, Lehen Hezkuntzan gertatzen ez zen bezala, ez dute gainditzen ingeleseko eskolaz kanpoko jardueretara joaten ez diren talde esperimentaleko ikasleen emaitza (ingeleseko eskolaz kanpoko jardueretara joaten diren I. HMMko kontrol-taldeko ikasleek 443,7 puntu lortzen dituzte, aldiz, jarduera horietara joaten ez diren I. HMMko talde esperimentaleko ikasleek 506,2 puntu, eta aldea adierazgarria da; dena den, ez dago alde adierazgarririk ingeleseko eskolaz kanpoko jardueretara joaten ez den II. HMMko talde esperimentaleko ikasleen 505,1 puntuko emaitzaren eta ingeleseko eskolaz kanpoko jardueretara joaten den II. HMMko nahitaezko ingelesa duen kontrol-taldeko ikasleen 491,8 puntuko emaitzaren artean).

II.3.3. EUSKARAREN ERABILERA OROKORRAREN ARABERAKO EMAITZAK

Testuinguruko galdetegian jasotako informazioa oinarritzat hartuta, ikasleek beren ikastetxean egiten duten euskararen erabilera orokorraren inguruko azterketa egingo dugu aldagai honetan. Hauek dira indizea eraikitzeke erabili ditugun galderak:

- *Adierazi kasu hauetan zer hizkuntza erabiltzen duzun...*
 - *ikasgelako lagunekin atsedendiko eta jolastokiko uneetan*
 - *ikasgelako ikaskideekin gela barruan*
- *Zehaztu oro har zer hizkuntzatan...*
 - *hitz egiten diezun irakasleei ikasgela barruan*
 - *hitz egiten diezun irakasleei ikasgelatik kanpo*
 - *hitz egiten duten zuen irakasleek elkarren artean.*

Eskalan sei hizkuntza-aukera proposatzen ziren: *Beti euskaraz – Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago – Bi hizkuntzetan berdin – Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago – Beti gaztelaniaz – Beste hizkuntza batean.*

Indize hori Hezkuntza Sailaren Euskara Zerbitzuaren, Soziolinguistika Klusterraren eta ISEI-IVEIren arteko lankidetzari esker sortu zen ebaluazio diagnostikoen baitan. Indizea I eta I,5 artekoa da. I zenbakiak euskara ez dela batere erabiltzen adierazten du eta 5 zenbakia da hizkuntza horren erabilerari dagokion gehieneko maila.


A) Lehen Hezkuntzako 6. maila

Lehen Hezkuntzako 6. mailan, indize horren batez besteko orokorra 3,02koa da. Datu hori 2013ko ebaluazio diagnostikoan Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleekin lortutakoaren oso antzekoa da, ikasle guztiena 3,08koa izan baitzen. *II.3.3.a grafikoan*, HMM lagin osoaren datu orokorraz gain, HMM ikastetxe mota bakoitzaren araberako indizea ikus daiteke.

Ez dago alde handirik HMM ikastetxe mota ugarien artean, baina aipagarriak dira I. HMM6 kontrol-indize handia eta I. HMM esperimentalaren maila baxua. Kasu honetan, gogorarazi beharreako da *II.1.1.a grafikoan* ikus daitekeen moduan, alde hori euskarazko emaitzetan islatuta dagoela. Izan ere, kontrol-taldeak 403,1 puntu lortu ditu, eta I. HMMko esperimentalak 387,4. Dena den, ez da gauza bera gertatzen gainerako HMM ikastetxe motetan; izan ere, nahiz eta I. HMM kontrol-taldeak baino euskararen erabilera-indize txikiagoa izan, emaitzak nabarmen hobek dira.


6 I. HMMko kontrol-taldea hiru hizkuntza-ereduetako ikastetxeek osatzen dute, baina eredu bakoitzeko ikasle kopurua ez da proportzionala. Hain zuzen ere, talde horretako 259 ikasleetatik 146 D ereduaren eskolatuta zeuden, eta 190 Gipuzkoako ikastetxeetan ari ziren ikasten. Ikastetxeetako batzuek euskararen erabilera-indize oso altua zuten, esaterako 4,88 edo 4,81. Datu horiek neurri batean lagun dezakete talde horretako euskararen erabileran indize altua ulertzen.

II.3.3.a. grafikoa. HMM. Lehen Hezkuntzako 6. maila. Euskararen erabilera orokorraren indizea ikastetxe motaren arabera.



II.3.3.b grafikoa ikus daitezke ikastetxeko euskararen erabilerearen arabera ebaluatutako hiru hizkuntza-kompetentziarako puntuazioak. Indize hori euskararen erabilerearen arabera 6 azpitaldetan antolatu eta puntuazioak kalkulatu ditugu.

II.3.3.b. grafikoa. HMM. Lehen Hezkuntzako 6. maila. Hizkuntza-kompetentziarako emaitzak ikastetxeko ikasleen euskara-erabilera mailaren arabera.



Euskarari dagokionez, alde adierazgarriak daude indizeko talde guztien artean. Izan ere, 140 puntuko alde dago “guztia gaztelaniaz” eta “guztia euskaraz” diotenen artean. Hau da, ikastetxean euskararen erabilera handiagoa izateak, itxuraz, hizkuntza horretako emaitzetan oso eragin positiboa du.

Ebaluatutako beste bi hizkuntzetan, gaztelanian eta ingelesean, eragin hori txikiagoa edo hutsala da itxuraz. Gaztelaniaz, puntuazioa jaitsi egiten da ikastetxeko euskararen erabilera-indizea handitzen den neurri berean. Baina ez dago talde baten eta hurrengoaren edo aurrekoaren arteko alde adierazgarririk, eta estatistikoki adierazgarriak diren aldeak muturretan bakarrik daude: guztia gaztelaniaz eta ia guztia edo guztia euskaraz. Hori dela eta, aldagai horren eragina gaztelaniaz oso txikia dela edo familia-hizkuntzari eta testuinguru soziolinguistikoari lotuta dagoela esan dezakegu.


Ingeleseko hizkuntza-komunikazioan indize horrek eragin txikia duela dirudi; izan ere, emaitza altuenak linguistikoki muturrekoak diren taldeetan ikusi ditugu eta puntuazioetan erregulartasun txikia dago. Muturreko puntuazioak dituzten taldeetan (“batez ere gaztelaniaz” eta “euskaraz gaztelaniaz baino gehiago”) 43,8 puntuko aldea dago (estatistikoki esanguratsua).

B) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila

DBHko 3. mailan, HMHren lagin orokorrak, deialdi bakoitzeko azken neurketan parte hartu duten ikasle guztiak biltzen dituenak, ikastetxeko euskararen 2,37ko erabilera-indizea du. Erdi mailako egoera horrek euskaraz baino gaztelaniaz gehiago hitz egiten dutela adierazten digu. 2013ko Ebaluazio diagnostikoan, DBHko 2. mailako ikasleen indizea oso antzekoa zen: 2,27koa.


II.3.3.c grafikoan ikus dezakegun moduan, HMH ikastetxe mota guztiak daude indize horren tarte berean eta ez dago alde numeriko handirik.

II.3.3.c. grafikoa. HMH. DBHko 3.maila. Euskararen erabilera orokorraren indizea ikastetxe motaren arabera.



II.3.3.d grafikoan azaltzen dira DBHko 3. mailako ikasleen euskararen, gaztelaniaren eta ingelesaren inguruko emaitzak ikastetxeko euskararen erabilera aintzat hartuta. Lehen Hezkuntzan bezalaxe, euskararen erabilerearen arabera 6 azpitaldetan antolatu eta puntuazioak kalkulatu ditugu.

II.3.3.d. grafikoa. HMM. DBHko 3. maila. Hizkuntza-kompetentzietako emaitzak ikastetxeko ikasleen euskara-erabilera mailaren arabera.



Euskarazko irakurmena atalean, lehen hiru taldeen artean bakarrik daude alde adierazgarriak (gaztelaniaz hitz egiten duten gehiago), baina ez dago alde handirik gainerako taldeetan, euskararen erabilera handiagoa dutenetan, hain zuzen ere. Hau da, HMM taldeen (esperimentalak eta kontrolak) datuek agerian utzi digute ikastetxeko euskararen erabilera jakin batetik aurrera, emaitzak ez direla nabarmen hobetzen eta, horrenbestez, hizkuntza horretan ez dutela mendekotasun eskusiboa ikastetxeko euskararen erabilerarekiko, baina bai beste aldagai batzuekiko. Baina, era berean, bistakoa da euskararen presentzia argirik eta ikasleek horren inguruko erabilerarik egin gabe, emaitzek eragin handia jasaten dutela.

Gaztelaniazko irakurmenean, aldagai horrek ez du eraginik itxuraz. Gainerakoekiko alde adierazgarriak dituen eta emaitza onenak lortu dituen taldea gaztelania zein euskara erabiltzen dutenen artean dago, baina muturreko taldeen artean ere ez dago alde handirik.

Azkenik, Ingeleseko hizkuntza-komunikazioan Lehen Hezkuntzan ikusitakoaren antzeko zerbait gertatzen da; ez dago emaitzetan joera argirik.

Datu aipagarri bakarra honako hau da: euskararen presentzia handiena duten taldeek bakarrik lortu dituzte gainerako guztiek baino nabarmen txikiagoak diren emaitzak (gainerakoen artean ez dago alde handirik).

Hitz gutxitan esanda, aldagai horrek, itxuraz, eragin garbia du Lehen Hezkuntzako euskararen kasuan, eta txikiagoa DBHn. Gaztelaniaz, eragina oso txikia da bi etapetan; aldiz, ingelesaren kasuan, portaera ez da horren koherentea eta, horrenbestez, beste aldagai batzuei lotuta dago.

II.3.4. HIZKUNTZA BAKOITZEAN EMANDAKO ORDUEN EHUNEKOAREN ARABERAKO EMAITZAK

HMMren esperimentazioaren funtsezko alderdietako bat zen parte hartzen duten ikastetxe guztiek, curriculum antolatzean, esperimentazioaren xede diren hizkuntzei gutxieneko ordu kopuru bat eskaini beharra zutela, orduen % 20, hain zuzen. Deialdiak berak ezarritako betebeharrak hori esperimentazio-prozesuan ikastetxe guztiek gutxieneko marko bateratu bat izateko nahiari lotuta zegoen, baina batez ere bigarren hizkuntza ikasten ari den pertsona baten kompetentziak handitzeko abiapuntu den denbora-tartea zein den jakitea bigarren hizkuntzak ikastearekin lotutako azterlanek betidanik planteatu izan duten gaietako bat delako.

Pertsona bakoitzaren ezaugarriez gain, badira ikasleen artean taldeari dagozkion aldeak ere; hala nola hizkuntza ikasten duten eskola-testuinguruari lotutako desberdintasunak; hau da, ikasleei eskolatzearen aldi baterako prozesuan murgilduta daudenean talde-maila bateko kide diren aldetik eragiten dieten faktoreak.

Adinaz eta garaiz hasteak epe laburrean edo luzean dituen abantailez gain, beste bi dimentsio garrantzitsu ditu ikaskuntzak denborari lotuta. Hona hemen dimentsio horiek: eskolan atzerriko hizkuntza ikasteko ordu kopurua eta curriculumaz kanpo xede-hizkuntzarekiko esposizio maila.

Hizkuntzarekiko esposizio mailaren eta ikaskuntzaren emaitzen arteko korrelazioaren inguruan badirudi ez dagoela zalantzarik eta horretan dago oinarrituta eskolako mailaz mailako progresioa. Dena den, bigarren hizkuntza ondo ikasteko zenbat ordu behar diren kalkulatu oso kopuru ezberdinak ateratzen dira hainbat faktore aintzat hartuta; adibidez, xede-hizkuntzaren edo ikasi nahi den hizkuntzaren ezaugarriak, ama-hizkuntzarekiko hurbiltasuna, testuinguru soziolinguistikoa edo, besteak beste, ikasi nahi den hizkuntzari lotutako jarrerak, prestigioa eta garrantzia.

Zenbait ikerlarik zalantzan jarri dute lotura hori erabat lineala ote den, batez ere irakaskuntza intentsiboan izandako esperientzietan oinarrituta. Esperientzia horiek erakutsi dute irakaskuntza intentsiboa eraginkorragoa dela eskola-testuinguruan atzerriko hizkuntzak ikasteko ohikoa den 'pixkanaka-pixkanaka' ikasteko modua baino. Ohikoa den modu horrek ematen dituen emaitzak desegokiak izaten dira gehienez eta horixe da, nolabait, esperimentazio-prozesu honen jatorria atzerriko hizkuntzaren kasuan. Badirudi badagoela nolabaiteko adostasuna irakaskuntzaren intentsitatea eta esposizioa handia izateak aldi luzeetan ikasteak baino emaitza hobekak eman ditzakeela esateko.

Ez dago zalantzarik curriculumean hizkuntza batekiko esposizio-denborak askotariko mailak izan ditzakeela eta, beraz, kompetentzia hobetzeko ere mailak daudela, hasi gutxieneko mailatik edo araututako eskolen mailatik eta esposizio handiagoko mailetara, curriculumetik kanpoko kontaktu edo ikastaroen bidez.

Jarraian, bi HMM deialdien azterketa osoa eta bateratua azaltzen da. Azterketan korrelazio bat ezarri dugu hiru hizkuntzetako bakoitzean (euskara, gaztelania eta ingelesa) jasotako orduen ehunekoaren eta ebaluazio-prozesuan parte hartu duten ikasleek eta ikastetxeek eskuratutako emaitzen artean.

Hizkuntza bakoitzerako grafiko batzuk egin ditugu. Guztiek erlazio mota berdina erakusten dute (zuzeneko puntuazioa hizkuntza horretan eta hizkuntza horrek curriculumean ordutan duen presentziaren ehunekoa), baina lagin ezberdina erabilia egin ditugu:

- lehen hirugarren neurketan ebaluatutako ikasle guztien lagin osoarena da. HMM taldeko ikasleak eta kontrol-taldekoak biltzen ditu.
- bigarrenak HMM talde esperimentaleko ikasleak bakarrik jasotzen ditu.
- hirugarren grafikoa kontrol-taldeetako ikasleei dagokiena bakarrik da.

Erregresio-lerro baten bidez ikus daiteke erlazioa grafiko horietan eta lerro horrek adierazten du bi aldagaien arteko erlazioen intentsitatea. Erregresio-lerroak goranzko inklinazioa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta intentsitate handiagoa izango da loturan eta lerroa laua edo beheranzkoa bada, erlazioa oso moderatua dela edo ez dagoela loturarik ulertu behar dugu.

Hizkuntza bakoitzeko presentzia-ordu kopuruari buruzko datuak parte hartu zuten ikastetxeetako zuzendaritzek erantzundako galdera-sortatik atera ditugu. Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta DBHko 3. mailako ikasleek hartu zuten parte neurketan.

II.3.4.1. EUSKARAZKO IRAKURMENA


A) Lehen Hezkuntzako 6. maila

Euskararen kasuan, *II.3.4.1.a grafikoa* ikus daitekeen moduan, bi aldagaien arteko korrelazioa oso handia da: zenbat eta handiagoa izan euskarazko orduen ehunekoa, orduan eta handiagoa da konpetentzia horretako puntuazioa eta korrelazioa kasu guztietan errepikatzen da. Hau da, ebaluatutako ikasle guztien puntuazioak kontuan hartzen ditugunean eta talde esperimentalen eta kontrol-taldeen korrelazioa bereizita aztertzen ditugunean, korrelazioa mantendu egiten da.


Hurrengo hiru grafikoak alderatzen baditugu, HMM lagina bakarrik ($R^2 = 0,427$) edo ikasle guztien lagina ($R^2 = 0,511$) kontuan hartuta baino kontrol-taldeen laginarekiko korrelazio handiagoa dagoela ikusiko dugu ($R^2 = 0,627$). Dena den, korrelazio guztiak dira handiak eta aurreko paragrafoan aipatu duguna baieztatzen dute.

II.3.4.1.b grafikoa ikus daitekeen moduan, euskararen kasuan, ikastetxe esperimental guztiek, bik izan ezik, bete dute curriculumean hizkuntza horrek gutxienez % 20ko presentzia izan behar duela dioen baldintza.


II.3.4.1.a. grafikoa. HMM. Lehen Hezkuntzako 6. maila. Euskarazko irakurmeneko emaitzen eta euskaraz emandako orduen ehunekoaren arteko lotura. Ikasle guztiak.



II.3.4.1.b. grafikoa. HMM. Lehen Hezkuntzako 6. maila. *Euskarazko irakurmeneko* emaitzen eta euskaraz emandako orduen ehunekoaren arteko lotura. Talde esperimentaletako ikasleak.



II.3.4.1.c. grafikoa. HMM. Lehen Hezkuntzako 6. maila. *Euskarazko irakurmeneko* emaitzen eta euskaraz emandako orduen ehunekoaren arteko lotura. Kontrol-taldeetako ikasleak .




B) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila

Aurreko atalen ikusi dugu Lehen Hezkuntzan korrelazio handia dagoela aintzat hartutako bi aldagaien artean. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, ordea, korrelazioa txikiagoa da, baina positiboa kasu guztietan. Horrenbestez, ondorio bera atera dezakegu: zenbat eta ordu gehiago eskaini euskarari, orduan eta puntuazio handiagoa da konpetentzia horretan.


Korrelazio handiena talde esperimentalen artean dago ($R^2 = 0,490$), aldiz, korrelazio txikiena kontrol-taldeetako da.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe esperimentalen artean hizkuntza honek curriculumean gutxienez % 20ko presentzia izan behar duela dioen baldintza betetzen ez duen ikastetxe bakarra dago. Gehienek curriculumean euskararen presentziaren % 40ko ehuneko gaitzen dute.


II.3.4.1.d. grafikoa. HMM. DBHko 3. maila. *Euskarazko irakurmeneko emaitzen eta euskaraz emandako orduen ehunekoaren arteko lotura. Ikasle guztiak.*



II. 3.4.1.e grafikoa HMM. DBHko 3. maila. *Euskarazko irakurmeneko emaitzen eta euskaraz emandako orduen ehunekoaren arteko lotura. Talde esperimentaletako ikasleak.*



II.3.4.1.f. grafikoa. HMM. DBHko 3. maila. *Euskarazko irakurmeneko emaitzak eta euskaraz emandako orduen ehunekoak. Kontrol-taldeetako ikasleak.*



II.3.4.2. GAZTELANIAZKO IRAKURMENA


A) Lehen Hezkuntzako 6. maila

Euskararekin ez bezala, gaztelaniaren kasuan ez dago gaztelanian eskuratutako puntuazioaren eta curriculumean hizkuntza horri eskainitako ordu kopuruaren arteko korrelazio handirik; hau da, gaztelaniaz emandako ordu kopuruak ez du eraginik konpetentzia horretan eskuratutako puntuazioan. Aztertutako kasu guztietan gertatzen da hori.


Hiru grafikoetan ikus daiteke ez dagoela korrelaziorik HMMn ebaluatutako ikasle guztien emaitzak hartzen direnean. Talde esperimentalen ($R^2 = 0,019$) zein kontrol-taldean ($R^2 = 0,071$) korrelazioa ia hutsala da.

II.3.5.2.b grafikoan ikus dezakegun moduan, Lehen Hezkuntzako HMM ikastetxeen artean dezente dira curriculumean hizkuntza horrek gutxienez % 20ko presentzia izan behar duela dioen baldintza bete ez dutenak.


II.3.4.2.a. grafikoa. HMM. Lehen Hezkuntzako 6. maila. *Gaztelaniazko irakurmeneko emaitzen eta gaztelaniaz emandako orduen ehunekoaren arteko lotura. Ikasle guztiak.*



II.3.4.2.b. grafikoa. HMM. Lehen Hezkuntzako 6. maila. *Gaztelaniazko irakurmeneko emaitzen eta gaztelaniaz emandako orduen ehunekoaren arteko lotura. Talde esperimentaletako ikasleak.*



II.3.4.2.c. grafikoa. HMM. Lehen Hezkuntzako 6. maila. Gaztelaniazko irakurmeneko emaitzen eta gaztelaniaz emandako orduen ehunekoaren arteko lotura. Kontrol-taldeetako ikasleak.




B) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila


Lehen Hezkuntzan bezala, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ere ez dago inolako korrelaziorik gaztelanian eskuratutako puntuazioaren eta curriculumean hizkuntza horretan eman diren orduen ehunekoaren artean: horrenbestez, gaztelanian emandako ordu kopuruak kompetentzia horretan lortutako puntuazioan eraginik ez duela esan dezakegu.

Lehen Hezkuntzan ikusi dugun moduan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe esperimentalen ia erdiek ez dute bete hizkuntza honek curriculumean gutxienez % 20ko presentzia izan behar duela dioen baldintza.


II.3.4.2.d. grafikoa. HMM. DBHko 3. maila. Gaztelaniazko irakurmeneko emaitzen eta gaztelaniaz emandako orduen ehunekoaren arteko lotura. Ikasle guztiak.



II.3.4.2.e. grafikoa. HMM. DBHko 3. maila. *Gaztelaniazko irakurmeneko emaitzen eta gaztelaniaz emandako orduen ehunekoaren arteko lotura.*



II.3.4.2.f. grafikoa. HMM. DBHko 3. maila. *Gaztelaniazko irakurmeneko emaitzen eta gaztelaniaz emandako orduen ehunekoaren arteko lotura.*




II.3.4.3. INGELESEZKO HIZKUNTZA KOMUNIKAZIOA

A) Lehen Hezkuntzako 6. maila


II.3.4.3.a grafikoa erakusten du Lehen Hezkuntzako 6. mailan korrelazio positiboa dagoela ingelesean lortutako puntuazioaren eta hizkuntza horretan eskolan emandako curriculum-orduen ehunekoaren artean; hau da, zenbat eta ordu gehiago eskaini ingelesari, orduan eta puntuazio altuagoa. Dena den, korrelazio hori ez da euskaran ikusitakoa bezain handia. Jarraian azaltzen diren grafiko batzuetan ikus daiteke korrelazioa nahiko ahula dela (ingeleseko nahitaezko orduak bakarrik ematen dituzten ikastetxeetan, adibidez).

Talde esperimentalen artean ere korrelazioa txikia da, baina positiboa. Uste izatekoa da ingelesean egindako aurrerapen handia, lehen ere nabarmendu duguna, are handiagoa izango zela, baldin eta ikastetxe partaide guztiek hizkuntza bakoitzean gutxieneko % 20 hori bete izan balute, esperimentazioan parte hartzeko baldintza zen aldetik. Ikastetxe askok ez dute baldintza hori betetzen, nahiz eta guztiek handitu duten indarrean dagoen araudiaren arabera nahitaezko ordu kopurua eta % 15 edo gehiago betetzen duten *II.3.5.3.b grafikoa* ikus daitekeen moduan.


II.3.4.3.a. grafikoa. HMM. Lehen Hezkuntzako 6. maila. Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzen eta ingelesez emandako orduen ehunekoaren arteko lotura. Ikasle guztiak.




II.3.4.3.b. grafikoa. HMM. Lehen Hezkuntzako 6. maila. Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzen eta ingelesez emandako orduen ehunekoaren arteko lotura. Talde esperimentaletako ikasleak.



II.3.4.3.c. grafikoa. HMM. Lehen Hezkuntzako 6. maila. Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzen eta ingelesez emandako orduen ehunekoaren arteko lotura. Nahitaezko ingelesta duten kontrol-taldeetako ikasleak.



II.3.4.3.d. grafikoa. HMM. Lehen Hezkuntzako 6. maila. Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzen eta ingelesez emandako orduen ehunekoaren arteko lotura. II. HMMko kontrola+ingelese duen taldeko ikasleak.




B) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila


Bigarren Hezkuntzan ere, *II.3.4.3.e grafikoa*n ikus daitekeen moduan, korrelazio positiboa, baina txikia dago ingelesean eskuratutako puntuazioaren eta hizkuntza horretan emandako curriculum-orduen ehunekoaren artean: Talde esperimentalen arteko korrelazioa guztizko laginaren ia berdina da. Kontrol-taldearen artean, aldiz, oso txikia da korrelazioa.

Ikusi dugun moduan HMM taldeak konpetentzia honetan lortu dituen emaitzak Kontrol-taldearenak baino askoz hobekak diren arren, Lehen Hezkuntzari buruz lehen esan dugun moduan, oso litekeena da HMM taldearen emaitzak are hobekak izatea baldin eta ikastetxe partaide guztiek hizkuntza bakoitzean gutxienezko % 20 hori bete izan balute, esperimentazioan parte hartzeko baldintza zen aldetik. Eskuragarri dauden datuak kontuan hartuta (*II.3.4.3.f grafikoa*n daude ikusgai), baldintza hori bete ez duen eta ingeleseko orduak % 15 eta % 20 artekoak dituzten ikastetxe kopurua handia da.


II.3.4.3.e. grafikoa. HMM. DBHko 3. maila. Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzen eta ingelesez emandako orduen ehunekoaren arteko lotura. Ikasle guztiak.




II.3.4.3.f. grafikoa. HMM. DBHko 3. maila. Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzen eta ingelesez emandako orduen ehunekoaren arteko lotura. Talde esperimentaletako ikasleak.



II.3.4.3.g. grafikoa. HMM. DBHko 3. maila. Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzen eta ingelesez emandako orduen ehunekoaren arteko lotura. II. HMMko nahitaezko ingelese duten kontrol-taldeko ikasleak.



II.3.4.3.h. grafikoa. HMM. DBHko 3. maila. Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzen eta ingelesez emandako orduen ehunekoaren arteko lotura. II. HMMko kontrola+ingelese taldeko ikasleak.



II.3.5.4. HIRU HIZKUNTZEN LABURPENA


Jarraian, laburpen moduan, etapa bakoitzerako grafikoa ageri da. Bertan daude bilduta ebaluatutako ikastetxe guztien puntuazioak (esperimentalenak zein kontrolekoenak) hiru hizkuntza-kompetentzietan, baina korrelazioa (R^2) eta joera-lerroa ere ikus daitezke. Datu horiek atal honetan txertatu ditugu, baina haien baterako ikuspegiak hiru hizkuntzen arteko egoera ezberdinak erakusten ditu emaitzen eta hizkuntza bakoitzaren orduen ehunekoaren arteko korrelazioari dagokionez.

A) Lehen Hezkuntzako 6. maila


Lehen Hezkuntzako 6. mailan, II.3.4.4.a grafikoa ikusten diren datuek agerian uzten dute korrelazio positiboa dagoela emandako orduen ehunekoaren eta emaitzen artean *Euskarazko irakurmenean* eta *Ingeleseko hizkuntza-komunikazioan*. Aldiz, korrelaziorik ez dago *Gaztelaniazko irakurmenean* kompetentzia horretako emaitzen joera erakusten duen zuzen lauan ikus dezakegun moduan.

II.3.4.4.b grafikoa korrelazio horiek berak ikus daitezke, baina esperimentazio-prozesuan parte hartu duten ikasleak dituzten ikastetxeak bakarrik oinarritzat hartuta. Lehen aipatu dugun moduan, korrelazioak ebaluatutako lagin osoan ikusitako joera bereberekin mantendu dira, baina korrelazioen intentsitatea apur bat txikiagoa da.

II.3.4.4.a. grafikoa. HMM. Lehen Hezkuntzako 6. maila. Hizkuntza bakoitzeko emaitzen eta emandako orduen ehunekoaren araberrako lotura. Ikasle guztiak.



II.3.4.4.b. grafikoa. HMM. Lehen Hezkuntzako 6. maila. Hizkuntza bakoitzeko emaitzen eta emandako orduen ehunekoaren arabera lotura. Talde esperimentaletako ikasleak.




B) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila


Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailan, *II.3.4.4.c grafikoa* Lehen Hezkuntzakoaren ondorio bera erakusten digu: emaitzak hobetu egiten dira *Euskarazko irakurmeneko* eta *Ingelesezko hizkuntza-komunikazioko* orduen ehunekoa handitzen den neurrian, baina bi kasuetan, Lehen Hezkuntzan baino gutxiago. *Gaztelaniazko irakurmenean*, aldiz, aldagai horren eragina ia hutsala da.

Esperimentazioan parte hartu duten ikasleak eskolatzen dituzten ikastetxeei dagokienez, *II.3.4.4.d grafikoa* ikus dezakegun moduan, lagin osoaren joerak errepikatu egiten dira. Dena den, Lehen Hezkuntzan gertatzen den moduan, etapa horretan ere korrelazioaren intentsitatea txikiagoa da talde esperimentaletan.

II.3.4.4.c. grafikoa. HMM. DBHko 3. maila. Hizkuntza bakoitzeko emaitzen eta emandako orduen ehunekoaren araberako lotura. Ikasle guztiak.



II.3.4.4.d. grafikoa. HMM. DBHko 3. maila. Hizkuntza bakoitzeko emaitzen eta emandako orduen ehunekoaren araberako lotura. Talde esperimentaletako ikasleak.



II.3.5. HIZKUNTZEKIKO JARRERAREN ARABERAKO EMAITZAK

Hizkuntza bereganatzeko prozesuan (batez ere bigarren edo hirugarren hizkuntza bat), era askotako aldagaiak izaten dute eragina:

- Alde batetik, aldagai pedagogikoak (irakasleak, metodologia, ikasteko testuingurua...).
- Bestetik, ikasten ari den subjektuarekiko lotura handiagoa duten aldagaiak daude. Bi eratakoak dira: banakakoak (ikaskuntzako gaitasunak eta nortasuna) eta psikosozialak edo sozio-afektiboak. Banakoa gizartearekin lotzen dutenak dira (nortasun soziala, ikaskuntzarekiko motibazioa eta hizkuntzarekiko eta hiztunekiko jarrerak).
- Era berean, garrantzitsuak dira izaera soziodemografikoko aldagaiak, testuinguru sozialarekin eta hizkuntzek gizartean betetzen duten estatusarekin lotuta dauden ingurune soziopolitikoarekin lotuta daudenak.
- Azkenik, ikaslearen ama-hizkuntzarekin eta ikasitako bigarren edo hirugarren hizkuntzarekin lotutako hizkuntza-aldagaiak hartu behar dira kontuan (hizkuntza arloko gertutasuna, ikaskuntzan egon diren interferentziak eta transferentziak eta abar).

Jarrerekin lotutako aldagai hori aztertzean, batez ere jarrera psikosozialak edo sozio-afektiboak hartzen ditugu kontuan, baina ez dugu ahaztu behar hizkuntza bat bereganatzea fenomeno konplexua dela eta beste aldagai batzuek ere eragina dutela.

Gure testuinguruan, lotuta dauden hiru hizkuntzekiko jarrerak landu dituzten ikerketak gutxi dira. Izan ere, ohikoenak egoera elebidunekin lotutako ikerketak dira. Eleaniztasuneko ikerketa horiek, batez ere, gutxiengoaren hizkuntzarekiko, gehiengoaren hizkuntzarekiko eta atzerriko hizkuntzarekiko jarrerak aztertzen dituzte beren hizkuntza duten komunitateetan.

Ikerketa guztietan aitortzen dute motibazioa eta hizkuntzekiko jarrerak oinarrizko faktoreak direla oro har ikaskuntza efektiborako eta zehazki hizkuntzen ikaskuntzarako. Motibaziorik gabe ez dago ikaskuntzarik eta jarrerak motibazio hori bultzatzen dute. Baina, era berean, badakigu motibazioa aldagai konplexua dela aniztasuna dela eta. Gainera, testuinguru sozialak neurri handian eragiten du ikasleen jarreretan. Edonola ere, gai horiek landu dituzten egile guztiek aipatu dute jarrerak garrantzitsuak direla hizkuntza bat bereganatzeko garaian; lorpenean eragin zuzena izateagatik baino, motibaziorako euskarri direlako.

Hizkuntzekiko jarrerak neurtu ahal izateko era askotako galdera-sortak eta bateriak daude. Horien erabilera oinarriztat hartuta, testuinguru elebidunetako eta eleaniztunetako ondorio interesgarriak lortu dira. Aldagai horren azterketa zehatza ez da hain handinahia, bi galdera soilik erabili ahal izan baitira:

- a) *Gustatzen al zaizu... (euskara, gaztelania eta ingelesa)?* Erantzunen eskala honako hau zen: Batere ez; Gutxi; Ez asko, ez gutxi; Dezente edo Asko.

Galdera horrekin HMM proiektuan ebaluatutako hiru hizkuntzetako bakoitzarekiko zegoen sentimendu positibo edo negatiboa ezagutu nahi zen. Besteak beste, hizkuntza jakin batekiko pertsona bakoitzak duen balorazio pertsonalarekin oso lotuta dago, eta horrek, normalean, testuinguru sozialaren eragin handia izan ohi du, edo irakasleak ikasleei esperientzia positiboak ematearen ondoriozkoa izan daiteke, edo are gehiago, hizkuntza jakin batekin lotuta esperientzia akademiko positiboak izatearen ondorioz sor daiteke; hain

zuzen ere, hizkuntza menderatzen joan hala, jarreretan aldaketa positiboa izan ohi da normalean.

- b) *Nolakoa iruditzen zaizu... (euskara, gaztelania eta ingelesa)?* Erantzunen eskala honako hau zen: Oso zaila; Zaila; Ez erraza, Ez zaila; Erraza edo Oso erraza.


Galdera horrekin, ikasleek hiru hizkuntzetako bakoitzarekiko duten zailtasunaren pertzepzioa aztertu nahi da, eta hala, hizkuntza bakoitzean lortutako emaitzarekin zuzeneko harremanik baduen egiaztatu.

Jarraian, hiru hizkuntzetako bakoitzerako eta erreferentziako bi etapetarako bereizitako analisia dator.

II.3.5.1. EUSKARAZKO IRAKURMENA

A) Lehen Hezkuntzako 6. maila


II.3.5.1.a grafikoan euskararekiko balorazio-eskalako puntu bakoitzean dauden ikasleen ehunekoa eta maila bakoitzean dauden ikasleek lortutako batez besteko emaitzak ikus daitezke.



Ikasleen % 15,4k adierazi du euskara ez zaiola *batere* gustatzen edo *gutxi* gustatzen zaiola; aldiz, % 53k *dezente* eta *asko* gustatzen zaiola adierazi du. % 31, berriz, tarteko egoeran dago. Grafikoan ikus daitekeen moduan, bi aldagaien artean erlazio estua dago; hala, euskararekiko zenbat eta euskararekiko zaletasun handiagoa izan, orduan eta hobeak dira kompetentzia horretako emaitzak. Euskararekiko jarreraren muturren arteko distantzia izugarria da eta 98 puntutara iristen da, eta erantzun guztien artean, puntuazio-aldeak adierazgarriak dira.

II.3.5.1.b grafikoan, eskalako maila bakoitzeko ehunekoak eta euskararen zailtasunarekiko duten pertzepzioari dagokionez Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen erantzunetan oinarritutako puntuazioak ikus daitezke.

II.3.5.1.b. grafikoa. HMM. Lehen Hezkuntzako 6. maila. *Euskarazko irakurmeneko* emaitzak euskararen zailtasunari buruzko pertzepzioaren arabera.




Ikasleen erdiek baino gehiagok uste dute euskara hizkuntza erraza edo oso erraza dela, eta % 16 soilik dago beste muturrean. Hizkuntzarekiko zailtasunarekin gertatzen zen moduan, zailtasunari buruzko pertzepzioa ere argi eta garbi lotuta dago emaitzekin; hala, muturreko puntuaren artean 112 puntuko aldea dago hemen ere, aurreko aldagaian bezala. Eskalako puntu guztien artean, aldeak adierazgarriak dira.

B) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila


Bigarren Hezkuntzan joera antzekoa da, eskalako puntuazioen arteko aldeak Lehen Hezkuntzan baino txikiagoak diren arren, hurrengo grafikoa ikus daitekeen moduan.

II.3.5.1.c. grafikoa. HMM. Lehen Hezkuntzako 6. maila. *Euskarazko irakurmeneko* emaitzak euskararekiko zailtasunaren arabera.



Ikasleen % 20ri euskara ez zaie *batere* gustatzen edo *gutxi* gustatzen zaie; aldiz, % 50 inguruk *asko* edo *dezente* baloratzen du. Heren bat inguru da egoera neutralean dagoena. Lehen Hezkuntzan bezala, emaitzak nabarmen areagotzen dira euskararekiko jarrera positiboak gora egiten duen heinean. Muturreko posizioen artean 76,3 puntuko aldea izatera irits daiteke, Lehen Hezkuntzan ikusitakoa baino zertxobait baxuagoa, han aldagai horrek eragin handiagoa duela baitirudi.

II.3.5.1.d grafikoan ikasleek adierazitako euskararen zailtasunaren pertzepzioaren arabera ehunekoak eta emaitzak daude adierazita. Maila honetan, hizkuntza honen zailtasun altuaren pertzepzioa (% 21,4koa da *zaila* eta *oso zaila* ikusten dutenen ehunekoa) Lehen Hezkuntzan baino handixeagoa da, nahiz eta muturreko erantzunen arteko puntuazioen aldea, 78,5 puntukoa, etapa honetan txikiagoa den. Eskalako maila guztien artean alde adierazgarria dago, eta ikus daiteke euskararen zailtasunaren pertzepzioa zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta handiagoa dela ikasleek lortutako puntuazioa.




II.3.5.2. GAZTELANIAZKO IRAKURMENA

A) Lehen Hezkuntzako 6. maila

Gaztelaniazko irakurmenean oso egoera desberdina dugu. Erantzunen eskalako maila bakoitzeko ehunekoak nabarmen aldatzen dira, baina horrez gain, gaztelaniako emaitzek ez dute berresten euskarazkoek adierazten dutena. *II.3.5.2.a grafikoan* eskalako puntu bakoitzaren puntuazioak eta erantzunen ehunekoak jaso ditugu.

II.3.5.2.a. grafikoa. HMM. Lehen Hezkuntzako 6. maila. Gaztelaniazko irakurmeneko emaitzak gaztelaniarekiko zaletasunaren arabera.




Balorazioa hain handia izanik, erantzun-aukeretako batzuek ikasle kopuru oso murrizta dute, eta beraz, ez dira kontuan hartu ere egin behar. Gaztelaniarekiko inolako zaletasunik ez dutela adierazi duten ikasleen kasua da hori. Aukera hori 9 ikaslek soilik adierazi dute; beraz, grafikoa gorri adierazi dugu datua. Hizkuntza hori *gutxi* gustatzen zaiela ere 59 ikaslek soilik adierazi dute. Ikasleen % 81ek inguruk adierazi du gaztelania *dezente* edo *asko* gustatzen zaiola, eta % 2 soilik dago beste muturrean. Tarteko egoeran daudenen ehunekoa % 17koa da.

Emaitzei dagokienez, eskalako posizioen arteko aldeak txikiak dira, *gutxi* eta *asko* aukeren artean 22,3 puntuko aldea dago, baina ez *asko*, ez *gutxi* eta *asko* aukeren artean 9 puntukooa besterik ez. Beraz, gaztelanian Lehen Hezkuntzan aldagai horrek eragin ahula du, batez ere ikasleak elkarren artean gutxi bereizten dituelako, oro har, ikasleek hizkuntza horrekiko balorazio altua dutelako.

II.3.5.2.b grafikoa jasotako zailtasunaren pertzepzioari dagokionez, aurrez adierazitakoaren antzeko zerbait gertatzen da. Ikasleen % 84 inguruk uste du gaztelania *erraza* edo *oso erraza* dela, eta % 2k soilik uste du zailtasunen bat duela.

Aldagai horretan ere bi erantzun-talde daude kopuru oso baxuekin (5 ikasle *oso zaila* erantzunean, eta 45, *zaila* erantzunean), eta horregatik adierazi ditugu gorri. Gainerako erantzunetako aldeak txikiak dira eta gaztelania ez *erraza*, ez *zaila* ez dela diotenen eta *oso erraza* dela diotenen artean soilik dira adierazgarriak.

II.3.5.2.b. grafikoa. HMM. Lehen Hezkuntzako 6. maila. Gaztelaniazko irakurmeneko emaitzak gaztelaniaren zailtasunari buruzko pertzepzioaren arabera.




B) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila

DBHko 3. mailan joera Lehen Hezkuntzakoaren oso antzekoa da, II.3.5.2.c grafikoa ikus daitekeen moduan. Ikasleen % 70ek dio gaztelania asko edo dezente gustatzen zaiola eta % 4,2 soilik da kontrako jarrera duena (18 ikaslek diote batere ez zaiela gustatzen eta 51 ikaslek gutxi gustatzen zaiela). Tarteko adierazpena egin duten ikasleak % 26 dira.


Emaitzek argi eta garbi adierazten dute, euskaraz ez bezala, aldagai honek gaztelaniaren kasuan eraginik ez duela. Hain zuzen ere, ez dago alde adierazgarririk eskalako erantzunetako puntuazioen artean.

II.3.5.2.c. grafikoa. HMM. DBHko 3. maila. Gaztelaniazko irakurmeneko emaitzak gaztelaniarekiko zaletasunaren arabera.



DBHko 3. mailako ikasleen artean gaztelaniaren zailtasunaren inguruan duten pertzepzioari dagokionez, II.3.5.2.d grafikoa ematen dizkigun datuek hizkuntza horrekiko zaletasunarekin

lotuta ikusitakoaren oso antzeko ehunekoak adierazten dizkigute. % 73k uste du gaztelania erraza edo oso erraza dela; aldiz % 3,7k kontrako jarrera du (9 ikaslek uste dute oso zaila dela, eta 50ek, zaila dela).



Puntuazioen arteko aldeak txikiak dira: kopuru txikia duelako oso zaila taldea kontuan hartzen ez badugu, 14 puntu besterik ez daude muturreko jarreraren artean (zaila eta oso zaila). Zaila eta ez erraza, ez zaila aukeren eta oso erraza aukeraren arteko aldeak soilik dira adierazgarriak Beraz, aldagai horrek badirudi garrantzi txikiagoa duela konpetentzia honetako emaitzetan beste hizkuntzetan baino.


II.3.5.3. INGELESEZKO HIZKUNTZA KOMUNIKAZIOA

A) Lehen Hezkuntzako 6. maila

Hurrengo datuetan ikusiko dugun moduan, konpetentzia honek profil desberdinak ditu aldagai hauetan aurreko bi hizkuntza-konpetentziekin alderatuta. II.3.6.3.a grafikoa ikus dezakegun moduan, konpetentzia hau asko edo dezente gustatzen zaio ikasleen % 16ri; aldiz, % 12,5 dago kontrako jarreraren. Tarteko jarrera % 27 inguruk adierazi du.

Grafikoak erakusten duenez, aldagai horrek emaitzetan eragin argia duela dirudi. Muturreko jarreraren artean 120 puntuko aldea dago; aztertutako hiru hizkuntzen artean ikusitako alde handiena da hori. Eskalako posizio guztien arteko aldeak estatistikoki adierazgarriak dira (batere ez eta gutxi taldeen artean izan ezik).


II.3.5.3.a. grafikoa. HMM. Lehen Hezkuntzako 6. maila. Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako emaitzak ingelesarekiko zailtasunaren arabera.



Kompetentzia horretako zailtasunaren pertzepzioarekin lotuta, *II.3.5.3.b grafikoa*n ikus daitekeen moduan, ehunekoak zertxobait aldatzen dira beste bi hizkuntzetan ikusitakoetatik. Ingelesa da ikasleei zailena egiten zaien hizkuntza, % 23,3k esan du hori. Era berean, *erraza* edo *oso erraza* uste duten ikasleen kopuru txikiena biltzen du, % 38,3. Tarteko jarrera duten ikasleen ehunekoa % 40 baino gehiagokoa da.

Aldagai hori oinarri hartuta emaitzak aztertuta, badirudi eragin argia duela; hala, zailtasunaren pertzepzioa zenbat eta gehiago jaitsi, orduan eta gehiago igotzen dira kompetentzia horretako emaitzak. Muturren artean puntuazioaren aldea izugarria da, 150,5 puntukoa, hizkuntza guztien artean handiena. Hala, eskalako posizio guztien arteko aldeak dira adierazgarriak.

II.3.5.3.b. grafikoa. HMM. Lehen Hezkuntzako 6. maila. Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako emaitzak ingelesaren zailtasunari buruzko pertzepzioaren arabera.




B) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila

Bigarren Hezkuntzako maila honetan, ikasleen % 70 ingururi gustatzen zaie *asko* edo *dezente* ingelesa; eta % 10ek soilik du interes txikia edo batere ez (48 ikaslek diote ez zaiela batere gustatzen ingelesa). % 22 tarteko jarreran dago.

Aldagai horri lotutako emaitzei dagokienez, puntuazio altuenaren eta baxuenaren artean 118 puntu baino gehiagoko aldea dago. *Batere ez* eta *gutxi* taldeen kasuan izan ezik, puntuazioen arteko alde guztiak estatistikoki adierazgarriak dira.


II.3.5.3.c. grafikoa. HMM. DBHko 3. maila. Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako emaitzak ingelesarekiko zaletasunaren arabera.



II.3.5.3.d grafikoa bidez ikus daitekeen moduan, eta Lehen Hezkuntzan gertatzen zela ikusten genuen moduan, Bigarren Hezkuntzan ere askoz gehiago dira ingelesaren balorazio altua egiten duten ikasleak (% 68,6) hizkuntza hori *erraza* edo *oso erraza* den pertzepzioa dutenak baino (% 46,2). DBHko ikasleen % 15ek uste du hizkuntza hori *zaila* edo *oso zaila* dela (azken aukera hori 45 ikasleek soilik aukeratu dute).

Zailtasun eskalako aukera guztietako emaitzen arteko aldeak estatistikoki adierazgarriak dira. Eskalaren muturren arteko puntuazio-aldea 161,2 puntutara iristen da. Beraz, badirudi aldagai horrek eragin handia duela kompetentzia honetan.

II.3.5.3.d. grafikoa. HMM. DBHko 3. maila. Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako emaitzak ingelesaren zailtasunari buruzko pertzepzioaren arabera.



III. ATALA.

5. HELBURUA: EEMB MAILAK IDENTIFIKATZEA DERRIGORREZKO ETAPEN AMAIERARAKO.

III.1. HMM ESPERIENTZIAREN EMAITZA OROKORRAK

Hirugarren atal honen helburua derrigorrezko bi etapen amaierarako proposatzen diren hizkuntza mailak identifikatzea da, erreferentzia gisa EEMB hartuta. Lan honetarako, HMM proiektuaren ebaluazioaren hirugarren neurketan parte hartu duten ikasle guztiak hartuko ditugu kontuan, oro har, talde esperimentaleko ikasleen puntuazioa eta kontrol-taldeetako ikasleena bateratuta. Beraz, puntuazioen erreferentzia Txosten honetako beste atal batzuetan adierazitakoetatik desberdina da.

Gogoan izan behar da Txosten honetako I. eta II. ataletan bi laginetatik abiatuta HMM esperimentazio-prozesuan ebaluatutako ikasleen emaitzak aurkeztu ditugula, eta ondorioz, emaitza desberdinak dituzte, baina inolaz ere ez dira aldatzen konpetentzia bakoitzean ikusitako joera orokorrak.


Lehen atalean emaitzak bi etapetako ikasleak soilik kontuan hartuta aurkeztu ditugu, konpetentzia bakoitzean egindako aurrerapeneko hiru neurketetan lortutako puntuazioekin. Horri esker, hiru talde mota bakarrik bereizi ahal izan ditugu: I. HMM esperimentala eta kontrol-taldea eta II. HMM esperimentala. Bigarren atalean, aldagaien analisisian oinarrituta, HMMren lehen eta bigarren deialdian esperimentazioaren amaieran egindako azken neurketan parte hartu duten ikasle guztiak izan dira erabilitako lagina. Lagin horrek bost ikastetxe motaren emaitzak bereiztea ahalbidetu digu: bi esperimental eta hiru kontrol-talde.

Azkenik, Txostenaren hirugarren atal honetan, jarraian azaldutako emaitzak hirugarren neurketan parte hartu duten ikasle guztien laginari dagozkio; hau da, Txostenaren bigarren atalean erreferentzia gisa hartu diren ikasle berak, baina kasu honetan emaitzak orokorrak dira, ikastetxe moten artean bereizketarik egin gabe. Hirugarren atal honetan egin beharreko azterketetarako, HMM lagin osoa kontuan hartzea egokiagoa zela uste izan dugu; izan ere, duen neurria dela eta, euskal hezkuntza-sistema osoa ordezkatzera iritsi gabe ere, ikasle kopuru handiagoaren emaitzak izatea ahalbidetzen du, eta horri esker, aztertutako hizkuntza bakoitzerako planteatutako ondorioak fidagarritasun handiagoz eman ahal izan ditugu.

Hurrengo grafikoetan Lehen Hezkuntzako 6. Mailan eta DBHko 3. Mailan neurtutako ikasle guztien puntuazio orokorra dator, eta PISA 2012ko Euskadiko batez besteko puntuazioa jasotzen du, ELGAkoaz eta Espainiakoaz gain. Hala, HMM ebaluazio-prozesuan neurtutako ikasleek ISA/PISA eskalan lortutako puntuazioen balorazioa egiteko erreferentzia gisa erabil daiteke.


III.1.1. LEHEN HEZKUNTZAKO 6. MAILAKO ETA DBHKO 3. MAILAKO EUSKARAZKO IRAKURMENEKO EMAITZA OROKORRAK.

III.1.1.a. grafikoa. HMM. Euskarazko irakurmeneko hirugarren neurketan parte hartu duten ikasle guztien emaitzak ISA/PISA eskalan.




III.1.2. LEHEN HEZKUNTZAKO 6. MAILAKO ETA DBHKO 3. MAILAKO GAZTELANIAZKO IRAKURMENEKO EMAITZA OROKORRAK.

III.1.2.a. grafikoa. HMM. Gaztelaniazko irakurmeneko hirugarren neurketan parte hartu duten ikasle guztien emaitzak ISA/PISA eskalan.




III.1.3. LEHEN HEZKUNTZAKO 6. MAILAKO ETA DBHKO 3. MAILAKO INGELESEZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIAKO EMAITZA OROKORRAK.

III.1.3.a. grafikoa. HMM. Ingeleseko Hizluntza-Komunikazioan hirugarren neurketan parte hartu duten ikasle guztien emaitzak (Reading).



III.1.4. LEHEN HEZKUNTZAKO 6. MAILAKO ETA DBHKO 3. MAILAKO MATEMATIKARAKO KONPETENTZIAKO EMAITZA OROKORRAK.

III.1.4.a. grafikoa. HMM. Matematikarako konpetentziako hirugarren neurketan parte hartu duten ikasle guztien emaitzak ISA/PISA eskalan.



III.2 HIZKUNTZA KONPETENTZIETAKO TALDEEK GARATUTAKO LANEKO PROZESUA

2010eko maiatzaren 18ko Aginduak funts publikoak dituzten Euskadiko ikastetxe guztiei deialdia egin zien Hezkuntza Marko Hirueledunaren (HMH) esperimentazio-proiektuen garapenean parte har zezaten. Agindu horretako 18. artikuluan honako hau ezartzen zen.

*"Proiektuaren emaitzak ebaluatu eta, dagokionean, Hezkuntza Marko Hirueleduna orokor bihurtzeko aukerak aztertu ahal izateko, ikasle parte-hartzaileek amaierako ebaluazioa egingo dute helburu horretarako ISEI-IVEIk ezarritako ereduaren arabera. Horri esker, hizkuntza arloko gaitan, **ikasleen konpetentziak Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratutako maila edo azpimailetan modu erreferentzialean kokatu ahal izango ditugu.***

Beraz, Agindu horren arabera, ISEI-IVEIri dagokio, alde batetik, proiektu horren garapena ebaluatzea (horren emaitzak aurkeztu ditugu aurreko ataletan), eta beste alde batetik, esperimentazio-prozesuan sartutako hiru hizkuntzetako bakoitza erreferentzien arabera kokatzea (euskara, gaztelania eta ingelesa), Europako Kontseiluaren Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuan (EEMB) ezarritako mailen arabera.

Lehen esan dugun moduan, esperimentazio-prozesuaren hasieran, Hezkuntza Sailak, ISEI-IVEIren bidez, konpetentzietan oinarritutako ebaluazio-eredua definitu zuen; izan ere, ikastetxe bakoitzaren curriculum-garapen espezifikoeekin lotura gutxien duen eredia da eta gure komunitateko Ebaluazio Diagnostikoan eta nazioarteko ebaluazio garrantzitsuetan (ELGAren PISA edo IAEn PIRLS, esaterako) garatutako eta ezarritako ereduarekin koherentea da.

Ebaluazio-prozesu hori lau ikasturtetan garatu da Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko zerbitzu ugariarekin lankidetzan, hala nola Hezkuntza Ikuskaritzarekin, Berritzegune laguntza-zerbitzuarekin, bi esperimentazio-deialdietan inplikaturako ikastetxeekin eta proiektuaren Aholkularitza Batzordearekin.

Lehen deialdian (HMH I) parte hartu duten ikastetxeek egindako esperimentazioa amaitutakoan, eta bigarren deialdiko (HMH II) ikastetxeen aurrerapenaren amaierako ebaluazioari dagokion azken aplikazioa amaituta, ekintza berria jarri zen martxan esperimentazio-prozesu osoari informazio estrategikoa emateko eta esperimentazio honetatik ateratako ondorioen inguruan etorkizuneko hezkuntza arloko eztabaida egiteko irizpideak zehazten laguntzeko.

Euskal hezkuntza-sisteman eta esperimentazio-prozesuan bertan hiru hizkuntzetako bakoitzaren egoera, ezaugarriak, helburuak eta emaitzak desberdinak izanik, bakoitza bere aldetik bereizita aztertzea eta lantzea erabaki genuen. Hala, hiru laneko talde antolatu genituen, azterketaren helburu genuen hizkuntza bakoitzeko bat. Hala ere, ekintza horren azken helburua eta garapen-prozesua bera antzekoa denez, hiru laneko taldeek azterketa eta gogoeta batera egiteko aukera izan dute, bereziki euskarazko eta gaztelaniazko taldeek, prozesua erabat paraleloa izan baita bi horietan eta azterketarako tresna berberak erabili baitituzte.

Ingeleseko taldeak egoera desberdina zuen, hizkuntza hori ebaluatzeko erabilitako probak *Cambridge English Language Assessment* erakundeak egin baititu, eta proba bakoitza EEMBko maila jakin batzuk neurtzeko aukeratutakoa baitzen (A1etik B1era Lehen Hezkuntzan eta A2tik B2ra DBHn).

EEMBko mailetan hizkuntza-konpetentziak erreferentzien arabera kokatzeko kontuan izan behar dira, gutxienez, bi elementu: alde batetik, esperimendazio-prozesuan hizkuntza-konpetentzien ebaluazioa egiteko erabili diren errendimendu-eskalak, eta beste alde batetik, EAEn gaur egun indarrean den curriculum-garapeneko Dekretua eta uneotan Saila Heziberri 2020 programaren bidez garatzen ari dena. Bi tresna horiek izan dira, besteak beste, erreferentziatzat hartu direnak lan honetan curriculum- eta konpetentzia-elementu gisa, HMMHren esperimendazioaren jarraipenean eta ebaluazio-prozesuan lortutako ondorioekin eta emaitzekin batera.

III.2.I. TALDEEK EGINDAKO LANAREN HELBURUAK ETA EZAUGARRIAK

Laneko proposamen honen helburu nagusia honako hau da:

ikasleen euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko konpetentziak Hizkuntzetarako Erreferentziako Europako Marko Komunean mailetan erreferentzien arabera kokatzea, Lehen Hezkuntzaren amaierarako eta Derrigorrezko Bigarren hezkuntzaren amaierarako egokiak izan litezkeen mailak modu espezifikoa identifikatuta.

Helburu hori garatzeko, beharrezkoa izan da:

- Esperimendazioaren ebaluazioan erabilitako errendimendu-eskalak EEMBko erreferentziatzko mailekin lotzea.
- EEMB aztertzea eta Euskadiko hezkuntza-sisteman hizkuntzen egoerarekin, esperimendazioan lortutako emaitzekin eta Euskadiko gizartearen beharrek in erlazioatzea.
- Hiru hizkuntzetarako mailen proposamena egitea, arazoituta, derrigorrezko oinarritzko hezkuntzaren bi etapetako bakoitzean.
- Hezkuntza-etapa bakoitzean ebaketa-puntu batzuk jartzea, EEMBko maila jakin batean ebaluatutako ikasleak kokatu ahal izateko.

Lan hau egiteko hiru lantalde egin dira, hizkuntza-konpetentzia bakoitzerako bat, eta beste koordinazio-talde bat koordinatzaile nagusiarekin eta talde bakoitzeko koordinatzaileekin (ISEI-IVEIkoak).

Lantalde horietan parte hartzera gonbidatutako pertsonen jatorria eta ezaugarriak honako hauek izan dira:

- Hizkuntza-konpetentzia bakoitzean curriculum-garapenaren arduradunak (Heziberri 2020).
- Duten esperientzia eta ibilbide profesionala dela eta EEMBren ezagutza zabala duten pertsonak.
- ISEI-IVEIrekin lankidetzan aritu diren eta Hezkuntza Sailak garatutako berrikuntza- edo ebaluazio-prozesuetan parte hartu duten pertsonak.
- Berritzeguneetako eta Hezkuntzako Ikuskaritzako ordezkariak.
- Prozesuan parte hartu duten beste erakunde batzuk: Cambridge English Language Assessment, HABE, EHU, Urrats Euskaltegia eta IRALE.

III.3. EUSKARAZKO ETA GAZTELANIAZKO TALDEEK EGINDAKO LANEKO PROZESUA

Proposatutako helburua lortzeko, hiru prozedura mota diseinatu ziren. Aurreago deskribatuko ditugu xehetasun gehiagorekin.

- Lehenik eta behin, HMMren ebaluazioan erabilitako probek -PAT probak izenekoak (*Progressive Achievement Test*) eta ISA (*International School's Assessment*) probak, ACER (*Australian Council for Educational Research*) erakundeak egindakoak- oinarri hartzen dituzten irakurmeneko errendimendu-eskala ugarietako deskribatzaileen azterketa zorrotza egin zen Gero, maila bakoitzean EEMBek planteatzen dituenekin lotu ziren deskribatzaile horiek.
- Bigarrenik, PAT eta ISA proben azterketa egin zen. Probak Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta DBHko 3. mailako ikasleek egin zituzten. Azterketa horretan proba guztiak eta item bakoitza EEMBko maila batean kokatu zen, proba bakoitza eta, aldi berean, item bakoitza EEMBko maila jakin bati lotu ahal izateko.
- Azkenik, *Euskarazko eta gaztelaniazko irakurmeneko emaitzak* egindako hiru ebaluazioetan (I. eta II. HMM) parte hartu duten Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta DBHko 3. mailako ikasleen ISA eskala oinarri hartuta aztertu ziren. Azterketa horretatik abiatuta, EEMBko mailak berezi ahal izateko ebaketa-puntuak zehaztu ziren, A2 mailatik C1 mailara.

I. fasea. Eskalak aztertzea eta parekatzea: PAT, ISA, PISA

Lehen fase honetarako, ebaluazioan erabilitako proba desberdinen errendimendu-eskalak aztertu dira:

- Irakurmena ebaluatzeko PAT probak. Proba horiek esperimentazioak iraun duen hiru ikasturteetan egin dira (Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailan eta DBHko 1., 2. eta 3. mailan)
- Irakurmena ebaluatzeko ISA probak. Proba hauek LHko 6. mailan eta DBHko 3. mailan egin dira eta ikasleak nazioarteko PISA eskalaren maila jakin batean kokatzea ahalbidetzen du.
- Gainera, ISA probak PISAk nazioarteko eskalan irakurmenerako proposatzen duen errendimendu maila lotuta daudenez, maila horiek ere aztertu eta alderatu egin genituen gainerako eskalekin.

Laneko lehen fase horren helburua izan zen aztertutako hiru eskalak (PAT, ISA eta PISA) planteatzen dituzten mailak erlazionatzea. Azterketa honetan honako hau ikusi zen:

- DBHko 3. mailako PAT probetako deskribatzaileak, testuinguru gutxiago bazuten ere, eta EEMBkoek baino lanaren zehaztapen maila altuagoa izanik ere, oro har, EEMBko B2 mailarekin pareka daitezke, ISA eskalako 6. mailarekin, eta PISA eskalako 3. mailarekin.
- Lehen Hezkuntzako 6. Mailako PAT proben deskribatzaileak, oro har, EEMBko B1 mailarekin pareka daitezke, ISA eskalako 5. mailarekin eta PISA eskalako 2. mailarekin.

2. fasea. Proben azterketa osotasunean, eta item bakoitzarena

Hurrengo laneko saioak PAT eta ISA probak berrikusteko izan ziren. Proba horiek LHko 6. mailako eta DBHko 3. mailako ikasleek egin zituzten. Horretarako, item bakoitzaren eta probaren beraren azterketa zorrotza egin zen. Lan horri esker, item bakoitzean inplikaturako gaitasunak identifikatu ahal izan genituen, baita haien zailtasun maila eta EEMBko maila jakin batean duten kokapena ere. Honako hauek izan ziren laneko taldeen ondorioak:

Gaztelaniazko taldea:

- Lehen Hezkuntzako 6. mailako Gaztelaniazko irakurmeneko PAT proben azterketak ahalbidetzen du haren zailtasun maila EEMBko B1 mailarekin parekatzea.
- Lehen Hezkuntzako 6. mailako Gaztelaniazko irakurmeneko ISA proben azterketak ahalbidetzen du haren zailtasun maila EEMBko B1/B2 mailarekin parekatzea.
- DBHko 3. mailako Gaztelaniazko irakurmeneko PAT proben azterketak ahalbidetzen du haren zailtasun maila EEMBko B2 mailarekin parekatzea.
- DBHko 3. mailako Gaztelaniazko irakurmeneko ISA proben azterketak ahalbidetzen du haren zailtasun maila EEMBko B2 mailarekin parekatzea.

Euskarazko taldea

- Lehen Hezkuntzako 6. mailako Euskarazko irakurmeneko PAT proben azterketak ahalbidetzen du haren zailtasun maila EEMBko B1 mailarekin parekatzea.
- Lehen Hezkuntzako 6. mailako Euskarazko irakurmeneko ISA proben azterketak ahalbidetzen du haren zailtasun maila EEMBko B1 mailarekin parekatzea.
- DBHko 3. mailako Euskarazko irakurmeneko PAT proben azterketak ahalbidetzen du haren zailtasun maila EEMBko B2 mailarekin parekatzea.
- DBHko 3. mailako Euskarazko irakurmeneko ISA proben azterketak ahalbidetzen du haren zailtasun maila EEMBko B2 mailarekin parekatzea.

PAT eta ISA proben azterketa eta EEMB mailekin duten erlazioa


	Gaztelania		Euskara	
	PAT probak	ISA probak	PAT probak	ISA probak
LHko 6. maila	B1	B1/B2	B1	B1
DBHko. 3. maila	B2	B2	B2	B2

Ikus daitekeen moduan, euskarazko eta gaztelaniazko taldeen ondorioak ia berberak dira, prozesu osoan zehar, gehienetan, bakoitzak bere aldetik lan eginda ere, eta hori azterketen sendotasunen adierazle da.

Hala ere, adierazi behar da euskarazko taldeak nabarmendu nahi izan zuela probetako batzuetan testu batzuetan itzulpen-arazo batzuk topatu zituztela, eta horrek zailtasun gehigarria jarri zien proba egin zuten ikasleei.

III.2.2.a grafikoan ikus daitezke esperimentazioaren azken urtean probak egin dituzten ikasleen Euskarazko eta Gaztelaniazko irakurmeneko emaitzak, familia-hizkuntzaren arabera. Grafiko honetan ere aztertutako eskalen eta EEMB mailen arteko elkarrekikotasuna ageri da.

III.1.2.a. grafikoa. HMM. Euskara eta gaztelaniako irakurmenaren puntuazioak ISAn eskala.



Ikus daitekeen moduan, familia-hizkuntza euskara denean, euskal hiztunen 7 Irakurmeneko errendimendua handiagoa da, 43 puntuko aldea ere izan dezake LHko 6. mailan, eta 29 puntukoa DBHko 3. mailan. *Gaztelaniazko irakurmeneko* emaitzen kasuan, ikus daiteke etxean hitz egindako hizkuntzak emaitzetan ez duela eraginik, lerro gorriak (jarraitua eta etena) elkarren gainean jarri eta emaitzak ia berdinak baitira.

Lortutako puntuazioekin, LHko 6. mailako ikasleak EEMBko B1 mailan koka ditzakegu, eta DBHko 3. mailakoak, B2 mailan, edozein izanik ere familia-hizkuntza.

3. fasea. Ebaketa-puntuak ezartzea

Laneko prozesuaren azken fasea LHko 6. mailako eta DBHko 3. mailako ISA proben itemak berrikustea izan zen, itemetan ebaketa-puntuak ezarri ahal izateko. Garatutako prozedura itemen lehenengo banakako azterketa izan zen; aurrez probak zailtasun mailaren arabera ordenatu ziren, bi hizkuntzetan A2 maila B1 mailatik eta B2 maila C1 mailatik bereizi ahal izateko bi ebaketa-puntuak zein ziren erabaki ahal izateko. Hau da, galdera ondo erantzun duen ikasle batek itemak zehazten duen irakurmeneko EEMBko maila zein itemetatik aurrera duela gaindituta esan litekeen zehaztea.

Gerora, eta aukeratutako itemak sakon aztertu ostean, bi ebaketa-puntuak ezartzeko akordioa lortu genuen, bai euskaraz, bai gaztelaniaz. Nabarmendu behar da aukeratutako itemak, bai euskarazko taldean, bai gaztelaniazkoan, berberak izan zirela, lehen esan dugun moduan, gehienetan bakoitzak bere aldetik lan egin arren.

7 Familia-hizkuntza euskara duen ikasletzat hartzen da aitak eta amak euskaraz hitz egiten badute eta etxean beti edo ia beti euskaraz hitz egiten bada.

III.3.1. EUSKARARAKO ETA GAZTELANIARAKO EEMB MAILAK IDENTIFIKATZEA DERRIGORREZKO ETAPEN AMAIERAN.

Azken lan gisa, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako amaierarako egokiak izan litezkeen EEMBko mailetan hiru hizkuntzetako ikasleak erreferentzia gisa kokatzeko proposamena egiteko eskatu zitzaizen laneko taldeei.

Taldeen ondorioak datoz jarraian, baina salbuespena egin behar da; izan ere, egindako proposamena oso baldintzatuta dago, irakurmenari soilik dagozkion datuak erabiliz egin baita. Hori hala izanik, nabarmendu behar da ikasleen hizkuntza-gaitasunen garapenean eragiten duten aldagaiak asko direla (ikaskuntzako testuingurua, erabilera-aukerak, ikaskuntzako/irakaskuntzako prozesua bera...), eta horiek kontuan hartu beharko lirateke proposatutako maila balioesteko orduan.


III.3.1.1. EUSKARAZKO IRAKURMENA

Aurreko ohartarazpenak kontuan hartuta, *Euskarazko irakurmena* datuak eta emaitzak aztertu zituen taldearen ondorioa honela zehaztu zen aztertutako etapa bakoitzerako.

A) Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleak

HMH esperimentazioan parte hartu duten B eta D ereduak LHko 6. mailako ikasleak *Irakurmenean EEMBko BI maila lortzeko moduan egongo lirateke*. Aldiz, A ereduak ikasleak A2 maila lortzeko moduan egongo lirateke.

III.3.1.1.a grafikoa, *Euskarazko irakurmenean* Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasle guztien ehuneko orokorrak ageri dira EEMB mailen arabera.




BI mailan kokatzen da ikasle gehien, % 55,3 zehazki; A2 mailan, % 33,1, eta B2 mailan, % 11,7.

Orotara, berrets daiteke Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen bi herenek *Euskarazko irakurmenean* BI maila edo goragoko maila lortu dutela, eta heren batek A2 edo beheagokoa lortu duela. Euskarako taldeak etapa honen amaierarako lor zitekeen maila gisa BI erabiltzaile independentearen maila ezarri duela kontuan hartuta, lortutako emaitza orokorrekin proposamen hori berresten dute.

Hizkuntza-ereduen arabera ehuneko banaketa

Euskarazko irakurmenean Markoaren mailen eta hizkuntza-ereduen arabera ehunekoak ageri dira III.3.1.1.b grafikoan.

III.3.1.1.b. grafikoa. Lehen Hezkuntzako 6. maila. *Euskarazko irakurmena*. EEMB mailen ehunekoak hizkuntza-ereduen arabera.




Bistakoak dira B eta D ereduaren eta A ereduaren arteko errendimendu-aldeak. Ikasleen % 79,9 A2 mailan dago; % 32,7, B ereduaren, eta % 22,7, D ereduaren. B1 mailan, etapa amaitzean espero den mailan, egoera guztiz desberdina da. B eta D ereduaren ikasleen erdiek baino gehiagok lortu dute maila hori (% 58,3 B ereduaren eta % 61,1 D ereduaren), eta A ereduaren % 20k. B2 mailan, D ereduaren ikasle kopurua B ereduaren bikoitza da ia, eta A ereduaren ikasleek ia-ia ez dute ikaslerik maila horretan.

Familia-hizkuntzaren arabera ehuneko banaketa

III.3.1.1.c. grafikoan, Markoaren mailen ehunekoak ageri dira *Euskarazko irakurmenean*, familia-hizkuntzaren arabera.

III.3.1.1.c. grafikoa. Lehen Hezkuntzako 6. maila. Euskarazko irakurmena. EEMB mailen ehunekoa familia-hizkuntzaren arabera.



Euskal hiztunak diren eta gaztelaniaz hitz egiten duten ikasleen arteko errendimendu-aldeak bistakoak dira, eta euskal hiztunenak hobeak dira beti. Etapako erreferentzia mailan, B1 mailan, euskal hiztunak diren % 7,1 ikasle gehiago dago. B2 mailan, euskal hiztunak diren ikasle-ehuneko handiagoa topatzen dugu, % 24,5. Errendimendu hobearen joera honi jarraituz, A2 oinarriko erabiltzaile mailan, gaztelaniaz hitz egiten duten % 22,8 ikasle gehiago dago euskaraz hitz egiten dutenak baino.


B) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailako ikasleak.

DBHko 3. mailako ikasleei dagokienez, D ereduko ikasleak B2 maila lortzeko moduan egongo lirateke; B eredukoak B1 eta B2 mailen artean egongo lirateke. Azkenik, A ereduko ikasleak B1 maila lortzeko moduan egongo lirateke.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailan eskolatutako eta konpetentzia honetan aurrerapenaren azken neurketan parte hartu duen HMM ikasleen emaitzak (esperimentala eta kontrol-taldea) ondo aztertu eta balioesteko, garrantzitsua da kontuan izatea ikasle horiek oraindik beste ikasturte bat gehiago dutela etapa amaitu arte, eta hori dela eta, beste urte bat dutela euskarazko hizkuntza-konpetentzia hobetzeko. Une horretan datu horien bilakaera berretsi beharko litzateke. Hipotesirik logikoena honako hau da: B1 mailan dagoen DBHko 3. mailako ikasleen kopuru handi batek B2 mailari dagozkion gaitasunak garatu izana; hain zuzen ere, B2 maila hori da taldeak etaparen azken erreferentzia gisa iradokitzen duen maila.

III.3.1.1.d grafikoa, Euskarazko irakurmenean DBHko 3. mailako ikasle guztien ehuneko orokorrak ageri dira EEMB mailen arabera.

III.3.1.1.d. grafikoa. DBHko 3. maila. Euskarazko irakurmena. Ehunekoa EEMBren mailen arabera.




DBHko 3. mailako ikasleentzat, B1 eta B2 dira maila nagusiak eta ikasleen gehiengoak banatzen da bi mailen artean: % 43,2 B1 mailan eta % 55,2 B2 mailan. % 1,6 soilik ez da A 2 maila baino harago iristen.

Laburbilduz, datuek erakusten digute DBHko 3. mailako ikasleen erdiek baino gehiagok B2 maila edo handiagoa lortu duela Euskarazko irakurmenean, eta % 44,8 B2 baino baxuagoko mailetan dago.

Ehunekoan banaketa hizkuntza-ereduen arabera

Euskarazko irakurmenean Markoaren mailen eta hizkuntza-ereduen arabera ehunekoak ageri dira III.3.1.1.e grafikoa.


III.3.1.1.e. grafikoa. DBHko 3. maila. Euskarazko irakurmena. EEMB mailen ehunekoa hizkuntza-ereduen arabera.



Datuek adierazten dutenez, emaitzarik onenak dituen eredia, Lehen Hezkuntzako 6. mailan gertatzen zen moduan, D eredia da; izan ere, D ereduko ikasleen %70 B2 mailan dago. B ereduko ikasleak B1 (% 47,8) eta B2 (% 50,1%) mailen artean banatzen dira. A eredian ikasle gehienak B1 (% 72,1) mailan daude eta % 24 B2 mailan; % 3,8 iritsi da A2 mailara.

Ehunekoan banaketa familia-hizkuntzaren arabera

III.3.1.1.f. grafikoan, Markoaren mailen ehunekoak ageri dira *Euskarazko irakurmenean*, familia-hizkuntzaren arabera.



Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleekin gertatuko litzatekeen moduan, DBHko 3. mailako ikasle euskal hiztunek ere gaztelaniaz hitz egiten dutenek baino emaitza hobekak lortu dituzte *Euskarazko irakurmenean*. A2 mailan gaztelaniaz hitz egiten duten ikasleen % 1,9 dago eta ez dago euskaraz hitz egiten duen ikaslerik. B2 mailan, euskaraz hitz egiten duten ikasleen % 23,7 dago. Aldiz, B1 mailan, bi taldeen arteko aldea % 21,8ra iristen da gaztelaniaz hitz egiten dutenen taldea erreferentzia gisa hartzen baldin bada.


III.3.1.2. GAZTELANIAZKO IRAKURMENA

Aurrez aipatutako oharrak kontuan hartuta, *Gaztelaniazko irakurmena* datuak eta emaitzak aztertu zituen taldearen ondorioak jarraian datozen hauek izan ziren aztertutako etapa bakoitzerako.

A) Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleak

HMH esperimentazioan parte hartu duten LHko 6. mailako ikasleak *Irakurmenean* EEMBko **BI maila lortzeko moduan egongo lirateke** hiru hizkuntza-ereduetan.

III.3.1.2.a grafikoan, *Gaztelaniazko irakurmenean* Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasle guztien ehuneko orokorrak ageri dira EEMB mailen arabera.


III.3.1.2.a. grafikoa. Lehen Hezkuntzako 6. maila. Gaztelaniazko irakurmena Ehunekoa EEMBren mailen arabera.

Euskararen kasuan gertatzen zen moduan, ikasleen ehuneko handiena dagoen maila B1 maila da, % 61,2 hain zuzen ere; B2 mailan % 28, eta A2 mailan, % 10,8.

Orotara, berrets daiteke Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen % 89k *Gaztelaniazko irakurmenean* B1 maila edo goragoko maila lortu duela, eta % 11k A2 edo beheragokoa lortu duela.

Ehunekoan banaketa hizkuntza-ereduen arabera

Gaztelaniazko irakurmenean Markoaren mailen eta hizkuntza-ereduen araberako ehunekoak ageri dira III.3.1.2.b grafikoa.


III.3.1.2.b. grafikoa. Lehen Hezkuntzako 6. maila. Gaztelaniazko irakurmena EEMB mailen ehunekoa hizkuntza-ereduen arabera.

Hizkuntza-ereduen araberako errendimenduaren aldeak euskararen kasuan bezain nabarmenak ez diren arren, A eredian B eredian baino, eta bereziki D eredian baino, errendimendu hobea ikus daiteke. Eskalaren beheko mailetan (A2 eta B1) dauden ikasleen ehuneko altuena D eredukoena da, % 74,8rekin, eta jarraian B eredukoena, % 69,7rekin; A eredukoena, aldiz,

% 67,3koa da. B2 mailan egoera erabat alderantzizkoa da: A ereduak da ehuneko altuena duena, % 32,7; B ereduak, % 30,3, eta D ereduak, % 25,3.

Ehunekoan banaketa familia-hizkuntzaren arabera

III.3.1.2.c. grafikoa, Markoaren mailen ehunekoak ageri dira *Gaztelaniazko irakurmenean*, familia-hizkuntzaren arabera.



Grafikoa ikus daitekeen moduan, ez dago alde nabarmenik euskal hiztunen eta gaztelaniaz hitz egiten duten ikasleen artean, eta esan liteke ikasleen familia-hizkuntzak ez duela eragiten *Gaztelaniazko irakurmenaren* errendimenduan.


B) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailako ikasleak.

DBHko 3. mailako ikasleak gaitasun berean EEMBko B2 maila lortzeko moduan izango lirateke.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailan eskolatutako eta konpetentzia honetan aurrerapenaren azken neurketan parte hartu duen HMM ikasleen emaitzak (esperimentala eta kontrol-taldea) ondo aztertu eta balioesteko, garrantzitsua da kontuan izatea ikasle horiek oraindik beste ikasturte bat gehiago dutela etapa amaitu arte, eta hori dela eta, beste urte bat dutela gaztelaniazko hizkuntza-konpetentzia hobetzeko.

III.3.1.2.d grafikoa, *Gaztelaniazko irakurmenean* DBHko 3. mailako ikasle guztien ehuneko orokorrak ageri dira EEMB mailen arabera.

III.3.1.2.d. grafikoa. DBHko 3. maila. Gaztelaniazko irakurmena. Ehunekoa EEMBren mailen arabera.




Grafikoan ikus daitekeen moduan, DBHko 3. mailako ikasleen maila nagusia B2 da. Maila horretan kokatzen da ikasleen % 79,4; B1 ean % 20,6.

Datuak erakusten dute DBHko 3. mailako ikasleen % 80 B2 mailan edo goragoko mailan dagoela, eta % 20, B2 baino maila baxuagoetan.

Ehunekoen banaketa hizkuntza-ereduen arabera

Gaztelaniazko irakurmenean Markoaren mailen eta hizkuntza-ereduen araberako ehunekoak ageri dira III.3.1.2.e grafikoa.


III.3.1.2.e. grafikoa. DBHko 3. maila. Gaztelaniazko irakurmena. EEMB mailen ehunekoa hizkuntza-ereduen arabera.



Ereduen araberako aldeak LHko 6. mailako eredu berbera dute, baina hiru hizkuntza-ereduen artean alde txikiak dituzte. A2 eta B1 maila baxuenetan, banaketa honelakoa da: D eredian % 23,9, B eredian % 23,6 eta A eredian % 19,6. B2 maila altuenean, banaketa alderantzizkoa da: A eredian daude ikasle gehien, % 80,4, B eredian % 76,3, eta D eredian % 76.

Ehunekoen banaketa familia-hizkuntzaren arabera

III.3.1.2.f. grafikoa, Markoaren mailen ehunekoak ageri dira *Gaztelaniazko irakurmenean*, familia-hizkuntzaren arabera.



LHko 6. mailan gertatzen ez zen bezala, DBHko 3. mailan nabari dira aldeak ikasleen familia-hizkuntzaren arabera. Oro har, gaztelaniaz hitz egiten duten ikasleen errendimendua hobea da: % 8,9 ikasle gutxiago daude maila baxuenean, B1, eta % 8,9 gehiago B2 mailan.

III.4. INGELESEZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO TALDEAK EGINDAKO LANEKO PROZESUA

Ingeleseko taldeak eskatutako lanak Hizkuntza Marko Hirueledunaren (HMH) proiektuaren azken helburua zuen oinarri eta, beraz, euskarazko eta gaztelaniazko taldeek eskatutakoaren antzekoa zen, Lehen Hezkuntzako 6. mailan eta DBHko 3. mailan HMH esperimentazioa amaitzean ikasleek lortzen duten EEMBko mailaren erreferentzia eskuratzearekin lotutakoa. Gainera, erantzun hori justifikatzea eta maila bakoitza adieraziko luketen deskribatzaileak sartzea planteatzen zen.

Taldeak 2011ko Ebaluazio diagnostikoko emaitzei buruz ISEI-IVEIk egindako txostenak eta HMH esperimentazio-prozesu osoko azken emaitzak aztertu ditu, eta laneko gaiari buruz egindako azterketa testuinguruan jartzeko eta justifikatzeko egoki irizitako iturri guztietan dokumentatu da.

Lehenik eta behin, Lehen Hezkuntzako 6. mailako txostena dator erantsita, jarraian, DBHko 3. mailakoa, eta azkenik, ingelesezko ikaskuntza hobetzeko ohar batzuk datoz.

III.4.1. EMAITZAK INGELESEZKO EEMB MAILEN ARABERA.


Jarraian, Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta DBHko 3. mailako ikasleek EEMB mailen arabera lortutako ehunekoen banaketak datoz, hiru ikastetxe motaren arabera bereizita:

- **Esperimentala:** HMH esperimentazioan parte hartu (bai I. HMH deialdian, bai II. HMH deialdian) eta konpetentzia honetan azken neurketa (2013an edo 2014an) egin duten ikasle guztiak biltzen ditu. Ikasle horiek, Txostenean azaldu dugun moduan, ingelesa gutxienez curriculumaren % 20an ematen dute.
- **Kontrola +ingelese:** 2014an konpetentzia honen azken neurketan sartutako kontrol-taldeko ikasleak biltzen ditu. HMH esperientzian parte hartu ez duten ikasleak dira, baina curriculum ofizialak markatutako nahitaezko ingeles-orduak baino gehiago ematen dituzte.
- **Kontrola, nahitaezko ingelese:** I. HMH eta II. HMH kontrol-taldeetako ikasleen emaitzak biltzen ditu. Oinarrizko irakaskuntzen Dekretuak curriculumean nahitaezko gisa ezarritako ingeles-orduak dituzten ikastetxeak dira.

III.4.1.1. Ehunekoa EEMBren mailen arabera Lehen Hezkuntzan.

III.4.1.1.a grafikoan Lehen Hezkuntzako 6. mailako Markoaren mailen arabeko ehunekoen banaketa ageri da aurrez deskribatutako hiru taldeetan.

III.4.1.1.a. grafikoa. Lehen Hezkuntzako 6. maila. Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia. EEMB mailen ehunekoa ikastetxe moten arabera.




Kontrola + ingelese duen taldeko ikasleak dira ingeleseko proba honetan neurtutako goiko mailetan ehuneko altuenak dituztenak: % 42,4k A2 maila du edo gainditzen du. Talde esperimentalak ia % 34ko ehunekoa du, eta aldiz, nahitaezko ingelese duen kontrol-taldeko ikasleen % 13k soilik lortzen du edo gainditzen du A2 maila.

Aztertutako hiru taldeetan, ikasleen ehuneko altuenak A1 mailan daude eta nabarmentzekoa da nahitaezko ingelese duen kontrol-taldeko ikasleen % 40,6 edo talde esperimentaleko ikasleen % 29 A1 baino maila baxuagoan dagoela.

Hurrengo hiru grafikoetan ikus daiteke Markoko maila bakoitzeko ehunekoen banaketa kompetentzia honetan oso-osorik ebaluatutako hiru dimentsioetan: *listening*, *reading* eta *writing* (gogoan izan behar da mintzamena azpilagin batean soilik ebaluatu zela).

III.4.1.1.b. grafikoa. Lehen Hezkuntzako 6. maila. Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia: *Listening*. EEMB mailen ehunekoa ikastetxe moten arabera.




Entzumena da aztertutako hiru ikastetxe motetan emaitza altuenak dituen dimentsioa eta, batez beste, aztertutako hiru ikastetxe multzoetako bakoitzean ikasleek lortutako ehuneko orokorra % 10ean gainditzen dute. Hala, talde esperimentaleko % 42,4, kontrola+ingelese duen taldeko % 50,1 eta nahitaezko ingelese duen kontrol-taldeko % 19,7 A2 mailan edo goragoko mailan dago hizkuntza arloko gaitasun horretan.


Modu paraleloan, nabarmen murrizten da dimentsio honetan A1 maila bera ere gainditzeko gai ez den ikasleen ehunekoa.

Irakurmenean eta idazmenean, hurrengo grafiko hauetan ikus daitekeen moduan, ehunekoak oso antzekoak dira hiru ikastetxe motetan eta *III.4.1.1.a grafikoan* ikusi dugun emaitza orokorren ingurukoak dira.

III.4.1.1.c. grafikoa. Lehen Hezkuntzako 6. maila. Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia: Reading. EEMB mailen ehunekoa ikastetxe moten arabera.



III.4.1.1.d. grafikoa. Lehen Hezkuntzako 6. maila. Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia: Writing. EEMB mailen ehunekoa ikastetxe moten arabera.




III.4.1.2. Ehunekoa EEMB mailen arabera Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailan.

Lehen Hezkuntzan ikusitakoaren antzera, deskribatutako hiru ikastetxe motetako bakoitzean sartutako DBHko 3. mailako ikasleen EEMB mailen araberrako ehuneko banaketa dator jasota hurrengo grafikoetan.

III.4.1.2.a grafikoan Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat proban neurtutako maila bakoitzerako ehuneko orokorra jasotzen da. Nahitaezko ingelesa duen kontrol-taldean ikasleen erdiak inguruk BI maila baino ingeles maila baxuagoa du konpetentzia orokorrean. Baina salbuespen hori kenduta, aztertutako beste bi ikastetxeko multzoetan DBHko 3. mailan aplikatutako proban neurtutako ehuneko altuenak daude goiko mailetan.


Talde esperimentaleko ikasleen % 75,1 eta kontrola+ingelesa duen taldeko ikasleen % 91 dago BI edo goragoko mailan ingeleseko konpetentzian, eta kontrola+ingelesa duen taldeko ikasleen erdiak baino gehiagok lortu dute B2. Nabarmenezkoa da, horrez gain, nahitaezko ingelesa duen kontrol-taldeko ikasleen % 41,2k ere ingelesez BI maila lortzea edo gainditzea. Emaitza horiek oso ontzat har litezke, bereziki ingeleseko orduak zabaltzen diren taldeetan, neurketa etapa amaitu baino ikasmila bat lehenago egin dela kontuan hartzen badugu.

III.4.1.2.a. grafikoa. DBHko 3. maila. Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia. EEMB mailen ehunekoa ikastetxe moten arabera.



Lehen Hezkuntzan gertatzen zen moduan, DBHn ere entzumeneko emaitzak, hurrengo grafikoan ageri direnak, ikasle guztiei neurtutako hiru dimentsioetatik altuenak dira: Kontrola + ingelesa duen taldeko ikasle ia guztiak eta talde esperimentaleko ikasleen % 86,4k dute BI maila edo goragokoa (are gehiago, kontrola + ingelesa duen taldeko ikasleen % 56,1ek eta talde esperimentaleko % 37,4k du dagoeneko B2 maila dimentsio horretan).


III.4.1.2.b. grafikoa. DBHko 3. maila. Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia: Listening. EEMB mailen ehunekoa ikastetxe moten arabera.



Entzumeneko emaitzak, oro har, hiru dimentsioetako baxuenak dira, hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan. B1 maila lortzen duten edo gainditzen duten talde esperimentaleko eta nahitaezko ingelesea duen kontrol-taldeko ikasleak kompetentzia horretako batez besteko orokorra baino % 8 gutxiago dira, III.4.1.2.a grafikoa ikus daitekeen moduan.


Hala ere, talde esperimentaleko ia herena eta nahitaezko ingelesea duen kontrol-taldeko % 56 inguru gaitasun horretan ez da B1 mailara iristen. Baina nabarmentzekoa da bai talde esperimentalean, bai kontrola +ingelesea duen taldean, ikasleen ehuneko altuenak B2 mailan daudela (% 37,7 eta % 58,3, hurrenez hurren).

III.4.1.2.c. grafikoa. DBHko 3. maila. Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia: Reading. EEMB mailen ehunekoa ikastetxe moten arabera.



Azkenik, adierazpen-kompetentzian, hurrengo grafikoak beste bi gaitasunetan ikusitakoaren bestelako irudia ematen digu: bai talde esperimentaleko ikasleek, bai nahitaezko ingelesea duen kontrol-taldeko ikasleek maila altuagoa dute dimentsio honetan irakurmenean baino; aldiz, kontrola+ingelesea duen taldeko ikasleek maila baxuagoa dute neurtutako hiru gaitasunetan.

Edonola ere, B1 maila duten edo gainditzen duten ikasleen ehunekoa altua da bai talde esperimentalean (% 69,8), bai kontrola+ingelese duen taldean (% 82,6).



III.4.2. INGELESERAKO EEMB MAILAK IDENTIFIKATZEA DERRIGORREZKO ETAPEN AMAIERAN

A) EEMB maila Lehen Hezkuntzako 6. mailarako

Taldeak uste du ikasle hauentzako EEMBko erreferentziazko maila A2 dela. Maila hori lor dezaten bultzatzea da helburua, ikusten baitugu Lehen Hezkuntzako 6. mailan ikasleak gai direla Markoaren maila horretako ariketak egiteko. Hori dela eta, A2 maila joera gomendagarri gisa planteatzen da, atal honen amaieran dauden oharrak kontuan hartuta, betiere.

HMM ebaluazioaren emaitzak apalak dira maila hau lortzeari dagokionez. Baina taldeak proposamena justifikatzen du, neurketatik harago doazen faktore-aukera zabala kontuan hartuta. Baliteke ikasleek EEMBko maila hau lortzea, baina kanpoko ebaluazio-probetan, adibidez proiektu honetan planteatutakoetan, frogatzeko gai ez izatea. Hain zuzen ere, ikasgelan honelako probak aldizka egiten ez direnez, proba mota hauei erantzuteko II urteko ikasleen gaitasuna mugatuta gera daitekeela egiaztatu ahal izan da. Taldeak funtsezko elementu honen eragina neurtzeko zailtasuna planteatzen du, baina hautematen da ikasleen jakintzak zehaztasunez zein diren frogatzeko garaian eragiten duela.

Kalkulatzen da ikasleen ehuneko zabalak egin ahal izango lituzkeela EEMBko A2 mailako deskribatzaileei dagozkien ariketak; hau da, lor daiteke maila hori. Hori dela eta, jarraian azaltzen ditugu lantaldearen ustez Lehen Hezkuntzako 6. mailarako hartutako proposamena justifikatzen duten elementuak:

- I. Antzeko ezaugarriak dituzten proiektuetan egiaztatu da % 50 baino gehiagoko ehunekoak A2 edo maila altuagoa lortzen duela *Cambridge Englishen Benchmarking*

proba egitean. Kasu honetan, *Cambridge English*ek ziurtatutako maila da, baina gure proiektuaren kasuan ez du eragiten ziurtagiriaren elementu honek.

2. Elebitasuneko/hirueletasuneko proiektuak dituzten estatuko hainbat komunitate autonomok planteatzen dute A2 maila hori lorpenerako erreferentzia gisa.
3. 4 urtetatik Lehen Hezkuntzako 6. mailara arte, konpetentzia honetan ordutegi arloko indartze-proiekturik ez duten ikasleek Ingeleseko ikaskuntzara bideratutako ordu zenbaketa ALTEk kalkulaturakoa baino handiagoa da, honako taula honetan ikus daitekeen moduan:

ETAPA	Eskola-asteak	Orduak asteko	Ikasmaila kopurua	GUZTIRA
Haur Hezkuntza: 4-5 urte	35	1.5	2	105
Lehen Hezkuntza	35	2.5	6	525
Haur Hezkuntza + Lehen Hezkuntza = 630 ordu				

Jarraian, EEMB maila bakoitza lortzeko beharrezkoak diren gidatutako ikaskuntzako ordu kopuru orokorrari buruz ALTEk⁸ egindako taula dator.

CEFR Level	Guided Learning Hours
C2	Approximately 1,000-1,200
C1	Approximately 700-800
B2	Approximately 500-600
B1	Approximately 350-400
A2	Approximately 180-200
A1	Approximately 90-100

Ingelesean emandako ordu kopurua lortutako emaitzekin alderatuz gero, esposizio-denbora bera ikasleen konpetentzia lortzeko ez dela gai egiazta dezakegu. Hala, kontuan hartu behar dira irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan eragiten duten beste alderdi batzuk ere, hala nola ikaslearen bilakaera-garapena, metodologia, irakasleen gaitasuna, irakaskuntza intentsiboa edo estentsiboa den, ikasle kopurua ikasgela bakoitzeko eta abar.

11 eta 13 urte arteko ikasleen hizkuntza-garapenari buruz, badaude adin horretan hizkuntzaren garapenean erroko aldaketak gertatzen direla dioten ikerketak. Nerabezaro aurreko ikasleak arrazoitzen, abstraktuan pentsatzen eta logika aplikatzen hasten dira. Une horretan hasten dira nabarmen hizkera figuratiboaren moduko alderdiak erabiltzen, inferentzia ez hain agerikoak eta testuinguruaren arabera erabiltzen, analogiak eta gero eta konplexuagoak diren ideiak adierazten. Adin horietan, kontzientzia metalinguistikoak, hau da, hizkuntzaren erabilerari buruz pentsatzeko gaitasunak, garapen handiagoa hartzen du. Hori guztia kontuan hartuta, esan

⁸ Taula hau orientaziorako da, ikasle helduentzat eta ikaskuntzako testuinguru batzuetan.

dezakegu Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleak atzerriko hizkuntzaren jabeakuntzari dagokionez jauzi kualitatibo eta kuantitatibo handia emateko atarian daudela, eta gainera, beste bi hizkuntza ofizialetan eskuratutako ezagutzekin laguntzeko gai izango dira⁹.

B) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailarako EEMBko maila

Taldeak irizten du ikasle hauentzako EEMBko erreferentzia maila BI dela.

DBHko 3. mailako ikasleei egindako HMM probetan izandako emaitzen arabera, % 70ek baino gehiagok lortzen du BI edo maila altuagoa. Ikasle horiek oraindik ere beste urtebetez eskolatuta egongo direla kontuan hartuta, espero izatekoa da BI maila hori ikasle gehiagok lortzea.

Bestalde, Lehen Hezkuntzako ikasleek A2 maila lortzea ere gertagarri ikusten da, hala, arrazoizkoa da handik lau urtera, DBH amaitzean, BI mailara iristea. Halaber, HMM proben emaitzek agerian utzi dute % 20k gutxienez B2 maila lortzen duela. Beraz, aurrez esan dezakegu B2 maila kasu batzuetarako soilik dela erreferentziako maila.

Jarraian azaltzen ditugu lantaldearen ustez DBHko 4. mailarako hartutako proposamena justifikatzen duten elementuak:

1. Elebitasuneko/hirueletasuneko proiektuak dituzten estatuko hainbat komunitate autonomok planteatzen dute BI maila hori lorpenerako erreferentzia gisa.
2. 4 urtetatik DBH amaitu arte, konpetentzia honetan ordutegi arloko indartze-proiekturik ez duten ikasleek Ingeleseko ikaskuntzara bideratutako orduen zenbaketa ALTEk kalkulaturakoa baino handiagoa da, honako taula honetan ikusi eta aurreko orriko taularekin aldera daitekeen moduan:

ETAPA	Eskola-asteak	Orduak asteko	Ikasmaila kopurua	GUZTIRA
Haur Hezkuntza: 4-5 urte	35	1.5	2	105
Lehen Hezkuntza	35	2.5	6	525
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	35	3	4	420
Haur Hezkuntza + Lehen Hezkuntza + Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza = 1050 ordu				

9 Hemendik aterata: <http://www.scholastic.com/parents/resources/article/language-development-11-13-year-olds>

ATZERRIKO HIZKUNTZAREN IKASKUNTZA HOBETZEKO OHARRAK:

Taldeak uste du honako elementu hauek direla ikaskuntza hobetzeko baldintzatzaileak:

- Irakasleen etengabeko prestakuntza, B2 baino maila altuagoak lortzeko asmoz, nahikoa kompetentzia berma diezaien eta ikasleentzat eredu onak izan daitezten.
- Hizkuntza-eguneraketa B2 maila edo altuagoa duten irakasleentzat.
- Eskolatzean zehar eleaniztasuneko proiektuen egonkortasuna eta jarraitutasuna.
- Irakaskuntzako jardunbide egokien identifikazioa eta aplikazioa.

IV. ATALA: FAMILIEN BALORAZIOA ESPERIENTZIARI BURUZ

IV.1. IKASLEEN FAMILIEN BALORAZIOA

Ikasleei egindako galdetegiarekin batera, hainbat galdera egin zitzaizkien HMM ikasleen familiei, bai talde esperimentalekoei, bai kontrol-taldekoei. Galderak hiru arlotakoak ziren:

- HMM esperientziari buruz: balorazioa eta orokortze posiblea.
- Hirueletasunaren/eleaniztasunaren balioari buruz.
- Hizkuntzak ikastearen erabilgarritasunari buruz.

Jarraian, egindako galdera bakoitzerako familiek emandako erantzunaren ehunekoak biltzen dituzten grafiko batzuk datoz. Kasu batzuetan, berezita datoz galdetegia egindako familia guztien erantzunak eta I. HMMko taldeetako eta II. HMMko taldeetako ikasleen familiak.


IV.1.1.HMM ESPERIENTZIAREN BALORAZIOA

a) Lehen Hezkuntza

Galdetegia erantzun duten Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen familiek oso ondo baloratzen dute semeak edo alabak HMM esperientzian parte hartzea, % 90ek inguruk dio oso ados edo nahiko ados dagoela; aldiz % 10ek baino zertxobait gehiagok dio ez dagoela ados planteatutako galderarekin (esperientzia batere positiboa ez dela izan diotenak % 1,5 dira; galdera erantzun duten 3.308 familietatik 49).


Barra-grafikoaren bidez ikus daitekeen moduan, ez dira alde handiak ikusten I. HMM eta II. HMM familien iritzien artean.

IV.1.1.a. grafikoa. HMM. Lehen Hezkuntzako 6. maila. *“HMM esperientzian nire semearen/alabaren parte-hartzea uste dut positiboa izan dela”*.
Familien adostasunaren ehunekoak.



Horrez gain, esperientzia Euskadiko ikastetxe guztietara orokortzearekin ados egongo ote liratekeen ere galdetu zitzaien. *4.1.1.b grafikoa*n daude adierazita erantzunen ehunekoak.

IV.1.1.b. grafikoa. HMM. Lehen Hezkuntzako 6. maila. "Proposamena ikastetxe guztietara orokortu beharko litzateke". Familien adostasunaren ehunekoak.




Kasu honetan ere Lehen Hezkuntzako ikasleen familien gehiengoak, % 94,3k, uste du esperientzia ikastetxe guztietara orokortu beharko litzatekeela. Onarpen maila altu hori ez da aldatzen erantzunak HMMren bi deialdien arabera aztertuz gero, ia parekatu egiten dituzte ehunekoak.

b) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

DBHko 3. mailan eskolatutako ikasleen familiek ere asebetetze handia dute seme-alabek esperientzian parte hartzearen inguruan, % 85,2k hain zuzen ere, nahiz eta Lehen Hezkuntzako ikasleen familien artean baino 3 puntu baxuagoa izan. Etapa honetan ere ez da alderik nabari I. HMMko eta II. HMMko familien erantzunen artean.


IV.1.1.c. grafikoa. HMM. DBHko 3. maila. "HMM esperientzian nire semearen/alabaren parte-hartzea uste dut positiboa izan dela". Familien adostasunaren ehunekoak.



E
ii

familiaren % 2 soilik ez dago batere ados (galdera erantzun duten 1.519 familietatik 31). HMM deialdien arabera, ez da alderik antzematen hedapen posiblearen alde duten jarreraren.

IV.1.1.d. grafikoa. HMM. DBHko 3. maila. "Proposamena ikastetxe guztietara orokortu beharko litzateke". Familien adostasunaren ehunekoak.




IV.1.2.HIRUELETASUNARI EDO ELEANIZTASUNARI BURUZ DUTEN IRITZIA

Familiei egindako bi galdera hezkuntzan hirueletasunak edo eleaniztasunak duen garrantziaren inguruan duten iritzia jasotzeko izan ziren. Hurrengo grafikoetan datoz jasota Lehen Hezkuntzako eta DBHko familien erantzunen ehunekoak. Galderetan planteatutako baieztapenarekin zuten adostasun mailarekiko bi aukeratan bilduta daude lau erantzun-aukerak.

4.1.2.a grafikoa Lehen Hezkuntzako ikasleen familien ehunekoak daude adierazita. Erantzunak nahiko aldekoak dira, hala, ia familia guztiak (% 98,4) daude oso ados edo nahiko ados euskara eta gaztelania ikasteaz gain, ingelesa ikastea ere aberasgarria izan daitekeela dioen ideiarekin. % 0,3k soilik baztertzen du erabat baieztapen hori eta eskalan adostasun gehien duen jarrera familia guztien % 84,7koa da.

Egindako bigarren galderari dagokionez, kasu honetan ere maila nabarmena da, % 96,4k uste du oso garrantzitsua edo nahiko garrantzitsua dela semeak edo alabak hiru hizkuntzetan ikastea eta % 3,6 soilik ez dago ados erabat edo neurri batean (horietatik % 0,6k soilik uste dute proposamenarekin ez daudela batere ados).

IV.1.2.a. grafikoa. HMM. Lehen Hezkuntzako 6. maila. Hirueletasunari/eleaniztasunari buruz duten adostasun mailaren inguruan familiek emandako erantzunen ehunekoak.




Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ere, 4.1.2.b grafikoa ikus daitekeen moduan, familiek hirueletasunaren edo eleantiztasunaren ideiarekin adostasun maila altua dute. % 96,6k uste du positiboa dela ikasleek hiru hizkuntzak jakitea (% 76k dio erabat ados dagoela). % 3,4k du kontrako jarrera eta horietatik % 0,6k soilik dio ez dagoela batere ados.

Bigarren galderari, hiru hizkuntzetan ikastearen garrantziari, dagokionez ere gehiengoa ados dago, % 94,3 oso ados edo nahiko ados dago, eta aldiz, ados ez dagoena % 5,7 besterik ez da (% 1,2 eskalako muturreko jarreran).

Ikus daitekeen moduan, Bigarren Hezkuntzako familien ehunekoak Lehen Hezkuntzako familia bano % 2 baxuagoak dira; aldea arina da.

IV.1.2.b. grafikoa. HMM. DBHko 3. maila. Hirueletasunari/eleaniztasunari buruz duten adostasun mailaren inguruan familiek emandako erantzunen ehunekoak.




IV.1.3. HIZKUNTZAK IKASTEAREN ERABILGARRITASUNARI BURUZKO IRITZIA

Azkenik, hizkuntzak ikastearen erabilgarritasunaren inguruan familien iritzia zein den jakiteko, hizkuntzen erabilerarekin lotutako hainbat alderdiren inguruko alternatiba batzuk planteatu zitzaizkien.

Gertakari harrigarria da Lehen Hezkuntzako eta DBHko familien artean, alternatiba guztien artean, ehunekoetan antzekotan handia egotea; horrek adierazten digu grafikoetan ikusten dena, galdetegia egin zaien populazioaren artean, gehiengoaren iritzia dela, eta gainera, kasu guztietan eskalako talde handienak esan du baieztapenarekin erabateko adostasuna duela, % 75 baino gehiagoko ehunekoekin.


Lehen Hezkuntzan, 4.1.3.a grafikoaren bidez ikus daitekeen moduan, baieztapen horrekin ados egoteko maila % 97 ingurukoa da kasu guztietan, “beste bizimodu eta kultura batzuk ezagutzearen” aukeran izan ezik, kasu horretan babes txikiagoa du, baina hala ere % 92,4koa. Muturreneko desadostasun maila (batere ados ez), aukera gehienetan, % 0,2 eta % 0,3 artekoa da.

IV.1.3.a. grafikoa. HMM. LHko 6. maila. Familien erantzunen ehunekoak.
“Hizkuntzak ikastea lagungarri izango du nire semeak/alabak hauetarako:”



Bigarren Hezkuntzako familiei dagokienez, Lehen Hezkuntzan deskribatutakoaren adostasun maila antzekoa dute. Kasu guztietan % 95 baino gehiagokoa da, “beste bizimodu batzuk ezagutzea...” aukeran izan ezik, kasu horretan, Lehen Hezkuntzan bezala, % 93 arte jaisten baita. Baieztapenarekin erabateko desadostasuna duten familien ehunekoa galdetutakoen % 0,1 eta % 0,3 artekoa da.

IV.1.3.b. grafikoa. HMM. DBHko 3. maila. Familien erantzunen ehunekoak. "Hizkuntzak ikastea lagungarri izango du nire semeak/alabak hauetarako:"



V. ATALA.

AZKEN ONDORIOAK

V.I. ONDORIOAK

Hizkuntza Marko Hirueledunaren (HMH) esperimentazio-prozesuaren ebaluazioaren bidez, Txosten honen hasieran adierazitako helburuak betetzen saiatu gara, baita garatutako esperimentazio-prozesua hobeto ulertzeko eta euskal hezkuntza-sistemaren behar eta aukeretara egokituago dauden erabakiak hartzeko lagungarri izan daitezkeen alderdi eta aldagaiak aztertzen ere.

Txostenean jarraitutako egituraren antzera, ondorioen azken atal hau ere hasieran adierazitako bost helburuen arabera antolatzen da.

1. H1 eta H2 hizkuntzetan, euskaraz eta gaztelaniaz, antzeko errendimendua gertatzen da HMM talde esperimentaletan eta kontrol-taldeetan.
2. Hizkuntzakoak ez diren konpetentzietako errendimendua, kasu honetan *Matematikarako konpetentzia* eta *Zientzia-kulturarako konpetentzia*, antzekoa da HMM talde esperimentaletan eta kontrol-taldeetan.
3. H3ko errendimendua, kasu honetan ingelesekoa, HMM talde esperimentaletan kontrol-taldeetan baino nabarmen handiagoa da.
4. Esperimentazio honetako ikasleen errendimenduan testuinguruko, ikastetxeko eta banakako zer faktorek eragiten duten identifikatzea.
5. HMM esperimentazioa amaitzean, Lehen Hezkuntzako 6. mailan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailan hizkuntza bakoitzean ikasleek lortzen duten EEMB maila edo azpimaila zein den zehaztea.

- Lehen hiru helburuetan, hizkuntza arloko eta hizkuntzakoak ez diren konpetentzietako emaitzei lotutakoetan, hainbat datu eta emaitza garrantzitsu ematen dira; emaitza horiek lagun dezakete horietan planteatutako hipotesia bete den erabakitzen.
- Laugarren helburuan, emaitzetan eragina duten aldagaiak identifikatzearekin lotutakoan, puntuazioetan eragin handiagoa dutela ikusi den alderdiak nabarmentzen dira.
- Azkenik, bosgarren helburuan, ebaluatutako hiru hizkuntzetarako EEMBko mailak zehazteari lotutakoan, laneko taldeen ondorioak laburtzen dira.

I. HELBURUA: H1 ETA H2 HIZKUNTZETAN, EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ, ANTZEKO ERRENDIMENDUA GERTATZEN DA HMM TALDE ESPERIMENTALETAN ETA KONTROL TALDEETAN.

Helburu honekin egiaztatu nahi da curriculumean irakaskuntzako eta ikaskuntzako hizkuntza gisa ingelesaren presentzia-orduak ugaritzeko erabakiak H1 eta H2 hizkuntzetan, euskaraz eta gaztelaniaz, izandako emaitzetan nabarmen ez ote duen eragiten, kasu guztietan talde esperimendaleko ikasleen curriculumean bi hizkuntza koofizialetan orduen ehunekoa murriztu behar izan delako.

Euskarazko irakurmena

I. HMM eta II. HMM talde esperimendale eta I. HMMko kontrol-taldearen emaitzen bilakaerak alderatuta, antzeko joera ikus dezakegu Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren hezkuntzan aurrerapeneko hiru neurketetan. Ebaluatutako etapetako batean ere ez da hautematen talde esperimendaleko ikasleen errendimenduan jaitsierarik eta, are gehiago, neurketa batzuetan, talde esperimendale igoera handiagoa da kontrol-taldeena baino.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, talde esperimendale batez besteko puntuazioak Euskadiko batez besteko eta ELGAko puntuazioak gainditzen ditu PISA 2012ko datuetan. Hori ez da gertatzen kontrol-taldean.

Talde esperimendale guztiek, Lehen Hezkuntzako 6. mailan eta DBHko 3. mailan, esperimendatzean parte hartzeko, gutxienez, euskaraz orduen % 20 eskaintzeko baldintza bete zuten.

Laburbilduz, Lehen Hezkuntzako eta DBHko I. HMM eta II. HMMko talde esperimendaleko ikasleen *Euskarazko irakurmeneko* emaitzek erakusten dute esperimendatzean parte hartu izanak emaitzei ez diela modu negatiboan eragin konpetentzia honetan.

Gaztelaniazko irakurmena

Konpetentzia honetan, talde esperimendale kontrol-taldean gainera mantendu dira egindako neurketa guztietan, bai Lehen Hezkuntzan, bai DBHn. Gainera, talde esperimendale eta kontrol-taldean arteko hasierako puntuazioen aldeak ez dira nabarmen aldatzen prozesuan zehar.

DBHko 3. mailako ikasleen emaitzak, bai talde esperimendale, bai kontrol-taldearena, Euskadiko eta ELGAko batez besteko puntuazioaren gainera daude PISA 2012ko datuetan.

Gaztelanian, ikastetxe askok ez dute bete hizkuntza honetan gutxienez orduen % 20 eskaintzearen baldintza hori eta egoera hori gertatu da I. HMM eta II. HMMn.

Ondorioz, bi etapetako ikasleek *Gaztelaniazko irakurmenean* izan dituzten azken emaitzak eta bilakaerak berresten dute HMM esperimendatzean parte hartzeak badirudiela ez diola hizkuntza honetan konpetentzia mailari eragin.

2. HELBURUA: HIZKUNTZAKOAK EZ DIREN KONPETENTZIETAKO ERRENDIMENDUA, KASU HONETAN MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA ETA ZIENTZIA KULTURARAKO KONPETENTZIA, ANTZEKOA DA HMM TALDE ESPERIMENTALETAN ETA KONTROL TALDEETAN.

Matematikarako konpetentzia

Lehen Hezkuntzan, konpetentzia honetan, talde esperimentalen eta kontrol-taldean emaitzek bat egiteko joera erakusten dute azken neurketan. Lehen ebaluazioan denetariko emaitzak izan ziren. Hau da, ebaluazioaren amaieran emaitzak oso hurbilekoak dira eta aldeak eskasak dira.

Bigarren Hezkuntzan, kontrol-taldearekin alderatuta talde esperimentalen mesedetarako aldea handitu egin da zertxobait azken neurketan, eta talde esperimentalen bilakaera sendoagoa erakusten du.

DBHko 3. mailan, talde esperimentalek soilik gainditu dute Euskadiko eta ELGaren batez besteko puntuazioa PISA 2012 azterketan. Kontrol-taldea distantzia jakin batera geratu da.

Horren ondorioz, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek HMM esperimentazioan parte hartzeak ez du eraginik *Matematikarako konpetentzian* izan dituzten emaitzetan.

Zientzia-kulturarako konpetentzia

Konpetentzia honetan, Lehen Hezkuntzan eta DBHn, kontrol-taldeak, neurketa guztietan, bi talde esperimentalek baino emaitza baxuagoak lortu ditu. Hala ere, aldeak murrizak dira bi etapetan.

Konpetentzia honetan, ezinezkoa da HMM puntuazioak PISA ebaluazioko puntuazioekin kontrastatzea; izan ere, ez da erabili aurreko konpetentzietan bezala ELGaren eskalan kokatu ahal izateko probarik.

Laburbilduz, Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleak HMM esperientzian parte hartzeak ez dirudi konpetentzia honetako emaitzei eragin dienik.

3. HELBURUA: H3KO ERRENDIMENDUA, KASU HONETAN INGELESEKOA, HMM TALDE ESPERIMENTALETAN KONTROL TALDEETAN BAINO NABARMEN HANDIAGOA DA.

Lehen Hezkuntza

Lehen Hezkuntzako talde esperimentaleko ikasleek (I. HMMkoa nahiz II. HMMkoa) ingeles-orduak ugaritu gabeko kontrol-taldekoenak baino neurri handiagoan hobetu dituzte ingeleseko kompetentziak. A2 mailan edo maila altuagoan talde esperimentaletako ikasleen % 34 zegoen; aldiz, nahitaezko ingelesa zuen kontrol-taldean, erdia baino gutxiago, % 13. Kontrola +ingelesa taldeak, ingeleseko ordutegia zabaldua duenak, talde esperimentalaren emaitzak gainditu ditu eta ikasleen % 42,4 du A2 mailan edo maila altuagoan.

Hizkuntza-gaitasunen arabera, etapa honetan, emaitzak entzumenaren dimentsioan dira altuenak, oro har, 10 puntutan gainditzen du aztertutako hiru ikastetxe motetako ikasleek lortutako ehuneko orokorra.

Etapan honetan, ikastetxe asko ingelesez eskaintzen diren orduen ehunekoaren % 15 eta % 20 artean dago; hau da, zentro esperimental guztiek ugaritu egin dituzte legediak etapa honetarako zehaztutako gutxieneko orduak (% 10), baina kasu askotan, ez dira iritsi esperimentazioaren baldintzetan zehaztutako % 20ra.

Ondorio gisa, Lehen Hezkuntzako ikasleek HMM esperientzian parte hartzeak ingeleseko kompetentzia nabarmen hobetzea ekarri du. Hala ere, emaitzak hobeak izan zitezkeen esperientzian parte hartu duten ikastetxe guztietan ordutegi-betebeharrak bete izan baziren.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

Talde esperimentaletan, nahitaezko ingelesa duten kontrol-taldeetan baino errendimendu nabarmen handiagoa ikusten da, baina kontrola + ingelesa (ingeleseko ordutegia zabalitzen du) dutenetan baino txikiagoa. Talde esperimentaleko ikasleen % 75,1ek B1 maila edo goragokoa lortu du, eta kontrol-taldea + ingelesa dutenen % 91k. Aldiz, nahitaezko ingelesa duen kontrol-taldeko ikasleen % 41,2 soilik iritsi da B1 mailara azken edizioan.

Etapan honetan ere, entzumenean nabari dira emaitzarik altuenak; izan ere, kontrola + ingelesa duen taldeko ia ikasle guztiek eta talde esperimentaleko % 86,4k B1 maila edo maila altuagoa erakusten dute, eta hainbat ikasle B2 mailan ere kokatzen da.

Bigarren Hezkuntzako zentro esperimental guztiek Ingeleseko orduen % 15eko ehunekoa gainditzen dute, baina aldiz, ikastetxe asko ez da esperimentazioaren deialdiak zehaztutako % 20ko gutxieneko ehunekora iristen.

Ondorioz, curriculumean ingelesaren presentzia handitzen duten taldeetako ikasleek, hizkuntza honetan, nahitaezko ingelesa soilik eskaintzen duten kontrol-taldeetakoek baino kompetentzia maila handiagoa erakusten dute. Etapan honetan talde esperimentalen emaitza orokorrak oso emaitza onak izan direla esan daitekeen arren, pentsa genezake emaitza horiek hobeak izango zirela ikastetxe guztiek esperimentazio honetan parte hartzeko deialdietan ezarritako gutxieneko ehunekoa bete izan balute.

4. HELBURUA: ESPERIMENTAZIO HONETAKO IKASLEEN ERRENDIMENDUAN TESTUINGURUKO, IKASTETXEKO EDO BANAKAKO ZER FAKTOREK ERAGITEN DUEN IDENTIFIKATZEA.

Txosten honetan 10 aldagai aztertu dira eta horiek nolabaiteko eragina erakutsi dute ebaluatutako konpetentzia desberdinen emaitzetan. Aztertutako aldagai guztiak bi aldagai multzotan antolatu dira: zeharkako aldagaiak eta hizkuntza-aldagaiak.

I. ZEHARKAKO ALDAGAIK

IKASLEEN SEXUA: HMM esperientzian parte hartu duten ikasleen jokabidea sexuaren arabera aztertuz gero, nabari da euskal hezkuntza-sisteman egindako beste ebaluazioetan ikusitakoaren antzekoa dela ia, bai Lehen Hezkuntzan, bai DBHn: neskek mutilek baino emaitza hobek dituzte euskaraz eta ingelesez. Aldiz, mutilek puntuazioa nabarmen altuagoak lortzen dituzte *Matematikarako konpetentzian*. *Gaztelaniazko irakurmenean* ez da sexuaren araberako alderik nabari bi etapetan. Beraz, badirudi aldagai honek ez duela eragin zehatzik izan esperimentazio-prozesuan, Euskadiko ikasleei egindako ebaluazio guztietan aintzat hartutako eraginetik harago.

ADIN EGOKITASUNA: Adinaren arabera dagokion ikasmilarekiko ikaslearen adin-egokitasuna aintzat hartzen baldin bada, HMM esperientzian ebaluatutako ikasleek beste ebaluazioetan aintzat hartutako antzeko jokabidea dute: adin-egokitasun egoeran dauden ikasleek, konpetentzia guztietan, adin-egokitasun egoeran ez daudenek baino emaitza hobek lortzen dituzte, bai Lehen Hezkuntzan, bai DBHn. Ondorioz, aldagai honetan ere, beste ebaluazioetan ikusitakoaren antzeko jokabidea nabari da.

FAMILIAREN JATORRIA: Ikaslearen familiaren jatorriaren arabera –natiboa edo etorkina-, HMMn ebaluatutako ikasleek ere Euskadiko ikasleei egindako beste ebaluazioetan bildutakoaren antzeko jokabidea dute: bi etapetako ikasle natiboek ikasle etorkinek baino emaitza nabarmen hobek lortu dituzte konpetentzia guztietan. Hala ere, puntuazio-aldeak oso desberdinak dira konpetentziaren arabera. *Gaztelaniazko irakurmenean* soilik, bi taldeen arteko puntuazio-aldea ez da adierazgarria.

Kontuan hartu behar da Lehen Hezkuntzan HMM ikasle etorkinen ehuneko azken Ebaluazio diagnostikoan bildutakoaren oso antzekoa den arren, DBHko 3. mailan, HMM esperientzian, ikasle etorkinen ehunekoak oso adierazgarritasun txikia duela; izan ere, ikasle talde hori, HMM esperientzian, Ebaluazio diagnostikoan erregistratutakoaren erdia baino gutxiago da.

FAMILIAKO IKASKETAK: Bi etapetako HMM ikasleen artean unibertsitateko ikasketak dituzten familien ehuneko ebaluazio diagnostikoetan identifikatutakoa baino nabarmen altuagoa da (% 15 baino gehiago Lehen Hezkuntzan eta ia bikoitza DBHn). Hori kontuan izan beharreko datu garrantzitsua da; izan ere, Euskadiko ikasleek egindako ebaluazio guztietan gertatzen den moduan, HMM esperientzian ere korrelazio handia dago familiaren ikasketa mailen eta konpetentzietako emaitzen artean. Horrela, familiako ikasketa maila zenbat eta altuagoa izan, puntuazioa ere orduan eta hobea da.

IKASGELAKO KALIFIKAZIOAK ETA HMM-KO EMAITZAK: HMM ikasleek lau konpetentzietan lortutako puntuazioen eta zuzenean erlazionatutako arloetako kalifikazioen

artean harreman positiboa dago beti. Hala ere, korrelazioa askoz ere altuagoa da Lehen Hezkuntzan DBHn baino. Bi etapetan, beste ebaluazioetan aintzat hartutakoaren antzera, kalifikazio akademikoak zenbat eta hobeak izan, dagozkien kompetentzietako puntuazioak orduan eta altuagoak dira, eta kasu guztietan alde adierazgarriak daude. Egoera honek adierazten digu oro har HMM proben neurketa koherentea dela ikastetxeko kalifikazio akademikoekin.

2. HIZKUNTZA ALDAGAIAK

Atal honetan, hizkuntza arloko hainbat aldagai aztertu dira:

IKASLEEN FAMILIA HIZKUNTZA: Lehen Hezkuntzan, ikasleen % 18,2k etxean euskaraz hitz egiten du eta DBHko 3. mailan, HMM esperimenduan ebaluatutako biztanleria osoaren % 12,3k hitz egiten zuen etxean euskaraz. Maiz gertatzen den moduan, aldagai honen arabera, ebaluatutako kompetentzia guztietan ez dago joera uniformerik: eragin handia duite *Euskarazko irakurmenean* eta zertxobait baxuagoa, baina adierazgarria, *Matematikarako kompetentzian*. Hala eta guztiz ere, inpaktua nulua da *Gaztelaniazko irakurmenean*, batez ere Lehen Hezkuntzan, eta inpaktua eskasa da *Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian*. Hala ere, DBHn handiagoa da Lehen Hezkuntzan baino.

Azken kompetentzia honetan, Lehen Hezkuntzan ingeleseko orduen kopurua handitzen duten taldeetan puntuazio-aldeak ez dira adierazgarriak. Aldiz, kontrol-taldeen artean aldeak adierazgarriak dira.

INGELESEKO ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK: Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen % 45,8k eta DBHko 3. mailan eskolatutakoaren % 56,2k adierazi du mota eta intentsitate desberdineko ingeleseko eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzen duela. 2011ko Ebaluazio diagnostikoan bildutakoak baino ehuneko altuagoak dira, % 10 zehazki. Ebaluazio horretan ingeleseko kompetentzia ebaluatu zen. Lehen Hezkuntzan eta DBHn, jarduera mota honetako parte-hartzean ez dago alde handirik talde esperimenduetako ikasleen eta kontrol-taldeko ikasleen artean. Hala ere, II. HMMko kontrola + ingeleseko duen taldeak gainerakoek baino puntuazioa altuagoak erakusten ditu.

Bi etapetan, jarduera mota honetan parte hartzeak eragin handia du *Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako* emaitzetan, baina gainera, eragina adierazgarria da ebaluatutako gainerako kompetentzia guztietan. Horrek esan nahiko luke, jarduera mota hauetan parte hartzen duten ikasleak ikuspegi akademikotik onak izan ohi direla oro har.

Lehen Hezkuntzan, badirudi aldagai honek indar gehiago duela curriculumean ingeleseko ordu kopurua handitzeak baino; izan ere, eskolaz kanpoko jarduera hauetan parte hartzen duten kontrol-taldeetako ikasleek parte hartzen ez duten ikasle esperimenduetan baino puntuazio altuagoak lortzen dituzte. Aldiz, DBHn, emaitzetan indar gehien duen aldagaia ingeleseko orduak ugartzea dela dirudi; izan ere, talde esperimenduetako ikasleek nabarmen gaintzen dute ingeleseko ordutegia zabaltzen ez duten ikastetxetako taldeen puntuazioa, nahiz eta ingeleseko eskolaz kanpoko jardueretan parte hartu.

EUSKARAREN ERABILERA OROKORRA: Lehen Hezkuntzako eta DBHko HMM ikasleen ikastetxetako euskararen erabilera orokorraren indizeak 2013ko ebaluazio diagnostikoan

aintzat hartutakoaren oso antzekoak dira, eta bi ebaluazioetan, Lehen Hezkuntzan emaitzak altuagoak dira DBHn baino.

Aldagai honek inpaktu handia du Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen euskarako emaitzetan. Izan ere, ikastetxean euskara asko erabiltzeak eragin positibo argia duela dirudi puntuazioetan. Hala eta guztiz ere, DBHko 3. mailan, eragin hori euskara gutxiago erabiltzen duten taldeen artean soilik hartzen da aintzat, baina ez indize honetan maila handiagoa duten taldeen artean.

Aldagai honek ia inpaktu nulua du edo eragina ez da batere argia eta zenbaitetan kontraesankorra da gaztelaniazko eta ingelesezko konpetentzietan.

HIZKUNTZA BAKOITZEAN EMANDAKO ORDUEN EHUNEKOA: Lehen Hezkuntzan eta DBHn, *Euskarazko irakurmenean* eta *Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* korrelazio positiboa dago emandako orduen ehunekoaren eta emaitzen artean. Aldiz, *Gaztelaniazko irakurmenean*, korrelaziorik ez da existitzen. Korrelazio horien intentsitatea handiagoa da Lehen Hezkuntzan Bigarren Hezkuntzan baino.

Garrantzitsua da nabarmentzea euskaraz zentro esperimental guztiek gutxienez curriculumeko orduen % 20 euskaraz emateko eskakizuna betetzen duten arren, egoera hori ez dela betetzen gaztelaniaren kasuan. Ingelesean, zentro esperimental guztiek derrigorrezko orduen ehuneko areagotzen dute, baina ikastetxe asko ez da deialdiak zehaztutako % 20ra iristen. Horrela, ondoriozta genezake konpetentzia honetan, emaitzak hobeak izan zitezkeela gertaera hori gauzatu izan balitz.

JARRERA HIZKUNTZEN AURREAN (ZALETASUNAREN ETA ZAILTASUNAREN PERTZEPZIOA): Aldagai honen azterketan, euskararen eta gaztelaniaren jokabidea ingelesean ikusten denetik guztiz desberdina da. Lehen Hezkuntzan eta DBHn, bi hizkuntza koofizialetan aldagai baten eta bestearen ehunekoak oso hurbil daude. Badirudi bietan iritzia zuzenean erlazionatuta dagoela, eta ikasleak, ikasteko helburu gisa, zailtasunaz jabetu ostean, hizkuntza hauengatikoa zaletasun handiagoa edo txikiagoa erakusten duela. Hizkuntza horiekiko zaletasun handi samarra edo handia erakusten duten ikasleen ehunekoak hizkuntza erraza edo oso erraza dela diotenen oso antzekoak dira. Hori gertatzen da bai Lehen Hezkuntzan, bai DBHn.

Aldiz, ingelesean, aldagai baten eta bestearen erantzunen ehunekoak nahikoa desberdinak dira. Horrela, hizkuntza horrekiko zaletasunak ez dirudi zuzenean zailtasunaren pertzepzioarekin dagoenik erlazionatuta. Hain zuzen ere, hizkuntza hori asko edo asko samar gustatzen zaiela (% 61 Lehen Hezkuntzan eta % 68,6 DBHn) irizten duten ikasleen ehuneko altu batek uste du hizkuntza hori erraza edo oso erraza dela (% 38,3 Lehen Hezkuntzan eta % 46,2 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan).

Aldagai horiek oso eragin handia dute *Euskarazko irakurmenean* bi etapetan, eta eskalako muturreko puntuen artean 100 puntuko aldea gainditzen du. *Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* ere, bi etapetan, inpaktu handia ikusten da emaitzetan, eta kasu batzuetan, 150 puntuak gainditzen dituzte muturreko erantzunen artean. Hala eta guztiz ere, *Gaztelaniazko irakurmenean*, eragina beste bi hizkuntzetan baino askoz ere txikiagoa da, 15 puntu inguruko emaitzen aldearekin.

5. HELBURUA: HMMH ESPERIMENTAZIOA AMAITZEAN, LEHEN HEZKUNTZAKO 6. MAILAN ETA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO 3. MAILAN HIZKUNTZA BAKOITZEAN IKASLEEK LORTZEN DUTEN EEMB MAILA ZEIN DEN ZEHAZTEA.

Helburu hori betetzeko, hiru lantalde eratu ziren, ebaluatutako hizkuntza bakoitzeko bat. Horiek arduratu ziren ebaluazio-prozesu honetan erabilitako errendimendu-probak sakonean aztertzeaz, errendimenduko eskala desberdinak EEMB eskalarekin lotzeaz, eta aztertutako hiru hizkuntzetan Markoko maila bakoitzean kokatutako ikasleen ehunekoak eta emaitzak ikertzeaz.

Lan honen emaitza gisa, talde bakoitzak EEMBren erreferentzia maila adostu du eta Lehen Hezkuntzaren eta DBHren amaierarako egokitu daiteke. Euskarako eta gaztelaniako taldeek ikusarazten digute kontuan izan behar dugula hizkuntza hauetarako egiten den proposamena oso baldintzatuta dagoela; izan ere, esku artean izan ditugun datu guztiak irakurmenari dagozkio eta zenbait aldagai falta dira. Horiek ezin izan dira kontuan hartu kasu bakoitzean proposatzen den maila baloratzeko unean.

Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia

HMMH esperimentazioan parte hartu duten B eta D ereduak Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleak EEMBko BI maila lortzeko prest egongo lirarteke. B ereduak ikasleen % 67,3 eta D ereduak ikasleen % 77,3k BI maila du edo maila hori gainditzen du.

A ereduak ikasleak, derrigorrezko lehen etaparen amaieran, A2 maila lortzeko moduan egongo lirarteke. A ereduak % 20,8k soilik du edo gainditzen du proposatutako BI maila.

DBHko 3. mailako ikasleei dagokienez, D ereduak ikasleak B2 maila lortzeko moduan egongo lirarteke; B ereduak BI eta B2 mailen artean egongo lirarteke. Azkenik, A ereduak ikasleak BI maila lortzeko moduan egongo lirarteke. D ereduak ikasleen % 70 inguruk B2 maila du edo maila hori gainditzen du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, eta B ereduak ikasleen erdia iristen da maila horretara. A ereduak, ikasleen % 24k soilik lortzen du edo gainditzen du maila hori DBHko 3. mailan.

Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia

Lehen Hezkuntzako etapa honen amaieran, HMMH esperientziaren ebaluazioan parte hartu duten ikasleak hiru hizkuntza-ereduetan EEMBko BI maila lortzeko moduan egongo lirarteke.

HMMHn ebaluatutako lagin osoaren % 89,2k BI maila du edo maila hori gainditzen du, eta Lehen Hezkuntzako 6. mailako hizkuntza-ereduen artean ez dira alde handiak nabari: A ereduak ikasleen % 86,4; B ereduak % 91 eta D ereduak ikasleen % 88,4 BI mailan dago edo maila hori gainditzen du.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, ikasleak, etaparen amaieran, EEMBko B2 maila lortzeko moduan egongo lirarteke; izan ere, % 79,4k B2 maila edo goragokoa lortu du.

Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia

Lantaldean, Lehen Hezkuntzako 6. mailarako, uste da EEMBko erreferentzia mailak A2 izan beharko lukeela, maila honetako emaitzak baxu samarrak direla egiaztatzen den arren. Beste

administrazio autonomiko batzuek bultzatutako beste proiektu batzuetan ezarritako erreferentzia maila da, eta ingeleseko ikaskuntzari eskaintzen zaizkion ordu kopuruekin lotuta koherentziarik handiena duena.

Bigarren Hezkuntzaren amaierarako, taldeak uste du ikasleak B1 maila lortzeko moduan egongo lirakeela; izan ere, % 70 inguruk maila hori edo altuagoa lortzen du. Kontuan izanda ikasle horiek derrigorrezko eskolatzeko beste urtebete dutela, espero liteke oraindik ikasle ehuneko altuago batek maila hori lor dezakeela.

EEMBko erreferentzia mailak derrigorrezko etapen amaierarako		
	LEHEN HEZKUNTZA	DBH
EUSKARA	BI (B eta D ereduetan) A2 (A eredu)	B2 (D eredu) B1 eta B2 mailen artean (B eredu) B1 (A eredu)
GAZTELANIA	B1	B2
INGELES	A2	B1